

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**7311** *25/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 3koa, Ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurriena.*

I

COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiak erabat aldatu du munduko ekonomiaren egoera. Urruntze fisikoko neurriak eta mugikortasun-mugak beharrezkoak dira, eta eraginkorrak dira birusaren transmisioa kontrolatzeko. Hala ere, eragin handia dute ekoizpen-jardueran eta herritarren ongizatean. Ondorio horiek agerian geratu dira bai eskaintzan, bai etxeko eta kanpoko eskarian. Izan ere, eskaintzei dagokionez, hornidura-kateek zailtasun handiak izan dituzte eta negozio ugari itxi dira aldi baterako; eta etxeko eta kanpoko eskariari dagokionez, neurri horiek eragin handia izan dute Espainiako ekonomiarako funtsezkoak diren zenbait sektoretan, hala nola turismoan. Negozioak aldi baterako ixteak, zirkulazio askea murrizteak eta jendaurreko ekitaldiak eteteak enpresei eragiten diete halaberrez, eta horiek oso garrantzitsuak dira, herrialde osorako enplegua eta aberastasuna sortzen dute-eta. Egoera hain kritikoa izanik, ekoizpen-sarea zaintzea eta enpresen zailtasun iragankorrei erantzutea lehentasunezkoa da pandemia honen ondorioei aurre egin ahal izateko.

Shock exogeno horrek berebiziko eragina izan du ekonomian, azken aldiko historian izan ez den bezalakoa. Ekonomiaren uzkurdurak herrialde askori eragiten die, bai eurogunekoei, bai EB osokoei, bai munduko beste herrialde batzuei, eta Nazioarteko Diru Funttsak, ekainerako eguneratutako aurreikuspen ekonomikoen arabera, jotzen du jarduera orokorra % 4,9 jaitsiko dela 2020an. Itxura guztien arabera, Espainiako barne-produktu gordinak beherakada handia izango du urtearen lehen zatian, batez ere apirilean, hilabete horretan mugikortasuna mugatzeko neurri gogorak ezarri ziren-eta birusaren hedapenari eusteko.

Egoera horri aurre egiteko, Gobernuak inoiz ez bezalako neurri-sorta jarri du abian martxotik aurrera, ekoizpen- eta gizarte-sarea babesteko, eragin negatiboa minimizatzeko eta alarma sanitarioa amaitu ondoren jarduera ekonomikoa ahalik eta gehien bultzatzeko balioko duen oinarriari eusteko. Martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren eta apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, hainbat neurri ezarri dira, likidezia izaten laguntzekoak, lanaren arlokoak eta errentei eustekoak, autonomoei bereziki erreparatuz. Besteak beste, nabarmentzekoa da Estatuaren konturako abal-lerro bat ezarri izana, 100.000 milioi eurokoa, zeina apiriletik ekainera bitarteko aldi askatu baita, enpresen eta autonomoen likidezia-premiei erantzuteko, fakturen kudeaketari, zirkulatzaille-premiari edo finantza- nahiz zerga-betebeharren epe-amaierari aurre egite aldera. Abal-lerro hori ezartzeaz gain, Thomas Cook lerroa, turismo-sektorerari eta hari lotutako jardueretara bideratutakoa, 400 milioi eurora handitu da, eta CESCEren aseguru-estaldurako lerro bat sortu da, gehienez ere 2.000 milioi eurokoa, Nazioartekotze Arriskuen Erreserba Funttsaren kargura.

Ekoizpen-sareari laguntzeko neurri horiek bat datoz Europako gainerako herrialdeetakoekin, eta modu eraginkorrean betetzen ari dira beren funtsezko helburua, alegia, enpresei beren ordainketa arruntak egiten jarraitzeko aukera ematea; hortaz, gure ekoizpen-sistemaren lehen defentsa-lerro bihurtu dira. Euroguneko ekonomia handien artean Espainia da abal publikoak gehien erabiltzen ari denetako bat, eta horrek, zalantzarik gabe, aukera eman du konfinamenduaren ondorio ekonomiko negatiboak arintzeko. Errege lege-dekretu hau onartu arte aitortutako eragiketen % 98 inguruk enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen premiei erantzutea izan dute helburu.

Bigarren neurri-multzok enplegua babestea izan du helburu; horretarako, enplegua suntsitu ordez, barne-doikuntzarako mekanismo bat ezarri da, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen (ABEEE) araubide berriaren bidez, eta, hari esker, langileen ordainsariak ordaintzeko babes publiko handia eman da eta Gizarte Segurantzako kotizazioetan salbuespen handiak aplikatu dira. Alarma-egoeran, 3 milioi langilek eta 550.000 enpresak baino gehiagok atera dute onura tresna berri horretatik, eta, horren bidez, kostu finkoak murriztu dituzte, COVID-19ak eragindako geldialdiari aurre egiteko.

Likidezia eta lana bultzatzeko neurri horiez gain, enpresa- eta familia-errentei laguntzeko ia ehun neurri ezarri dira, suspertzeko oinarri sendoa izate aldera; horien artean, nabarmentzekoa da aparteko prestazio bat ezarri izana jarduera itxi behar izan duten edo diru-sarrerak nabarmen murriztu zaizkien langile autonomoentzat. Milioi bat pertsonak baino gehiagok baliatu ahal izan dute konpentsazio-errenta hori, zeina kolektibo kalteberenetako eta osasun-larrialdiaren erasana gehien jasan dutenetako bati zuzendua baitago.

Orokorrean hainbat neurri hartu dira konfinamenduak jarduera ekonomikoan izan duen eraginari aurre egiteko; neurri batzuek BPGd-aren ia % 4ko eragina izan dute aurrekontuan, eta beste batzuk likideziaz laguntzeko izan dira, BPGd-aren % 11ri eraginez.

Ekintza nazionalak bultzatzearekin batera, Europar Batasunak enpresen, estatuen eta langileen segurtasun-sarea indartzeko hainbat tresna jarri ditu abian. Maiatzean eta ekainean, zenbait erregelamendu eta arau-aldaketa onartu dira, epe laburrerako hiru finantzaketa-tresna berri abian jartzeko; honako hauek erabiliko dira tresnok abian jartzeko: Europako Inbertsio Bankuaren enpresa-inbertsiorako berme-programa berria, enplegua aldi baterako babesteko eskemei laguntzeko Erkidegoko mekanismo berria (SURE) eta Egonkortasun Mekanismo Europarrak (EME) pandemiaren aurkako borrokatik eratorritako zuzeneko eta zeharkako osasun-gastuak finantzatzeko prekauzio-funts berri bat.

Alarma-egoera amaitu eta haren ondoriozko jarduera- eta mugikortasun-murrizketak kendu ondoren, suspertzea bultzatzeko neurri ekonomiko eta sozialen bigarren fasea abiarazi da. Hibernazio-fasean ekonomiaren erresistentzia babestu ondoren, funtsezkoa da tresnak egokitzea eta osatzea, ekoizpen-sarea eta enplegua babesteari dagokionez lortutakoa finkatzeko, eta laguntza publikoa erabiltzea enpresa-kaudimena indartzeko eta ekonomia berreraikitze aldera egin behar den inbertsioa bultzatzeko. Konfinamenduak eragin dituen likidezia-arazoak kaudimen-arazo bihurtu daitezkeen saihestu behar da.

Horren harira, zenbait programa sektorial jarri behar izan dira martxan pandemiaren ondorioz jardueran izandako beherakadak gehien eragin dien sektoreen premia bereziei aurre egiteko, baldin eta sektore horiek estrategikoak badira gure herriarentzat, BPGd-an eta enpleguan pisu handia dutelako eta ekonomia osoa bultzatzen dutelako.

Horiek horrela, joan diren ekainaren 15ean eta 18an, Automobil Industriaren Balio Katea Bultzatzeko Plana eta Turismo Sektorea Bultzatzeko Plana aurkeztu dira. Plan horietan jasotako neurri ekonomiko eta fiskal batzuk ordenamendu juridikoan sartu dira jada, ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (Ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituen).

Era berean, errege lege-dekretu honen bidez, energia berriztagarrien merkatua suspertzeko neurriak hartu dira, enplegua sortzeko duen ahalmen osoa aprobetxatuz; ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena), energia elektrikoaren erabilera intentsiboko industria-sektoreari laguntzeko neurriak indartu dira, eta horretarako Berme Elektointentsiboetarako Erreserbarako Espainiako Funtsa sortu da, energia erosteko epe luzeko alde biko kontratuak sinatzen laguntzeko, eta horrela, elektrizitate-kontsumo handia duten enpresei, batik bat industria-arlokoiei, kostu-esparru egonkorra emateko.

Neurri sektorialak hartzeaz gain, laguntza-tresna horizontalak ekonomia suspertzeko fasearen premietara egokitu dira. Horrela, bada, COVID-19arekin zerikusia duten arrazoiengatik aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE) ezartzen laguntzeko ezohiko araubidea, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez onartua, ekainaren 30era arte luzatu zen, normaltasun berrirako trantsizio-prozesura

egokitu zen, eta, horren ondorioz, langileen berraktibazioa sustatu zen, maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (Enpleguaren Aldeko Akordio Sozialaren baldintzak jasotzen dituena). Normaltasun berria erdietsi ondoren, langileak lanera itzul eta enpresak berraktiba daitezen sustatze aldera, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretua eman da; ABEEE-*ei* laguntzeko beste urrats bat izan da hori, espediente horiek ekonomia suspertzeko tresnak direlakoan. Errege lege-dekretu horren bidez, ezohiko araubidea irailaren 30era arte luzatu da, eta berriz ere lortu da gizarte-eragileen adostasuna, Enpleguaren Aldeko II. Akordioaren bitartez. ABEEE-*ei* laguntza iraunkorra emateko esparru horri esker, langileak erritmo onean itzuli dira lanera, ekonomiaren hibernaziorako neurriak amaitu zirenetik aurrera. Hala, bada, esparru horrek suspertze-fasean lagundu du, eta ABEEE-en eraginpean zeuden milioi bat eta erdi langile baino gehiago lanera itzultzea erraztu du. Era berean, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuak irailaren 30era arte luzatu du langile autonomoei babes berezia emateko araubidea.

Neurri horiek osatze aldera, finantza-laguntza emateko mekanismoak ekoizpen-sarera zabaldu behar dira, sistemaren likidezia bermatzeaz gain, inbertsio produktiboa eta enpresen egokitzapena bultzatzeko, eta enpresa estrategikoei kaudimena izaten laguntzeko, dituzten zailtasun iragankorrek azkenean interes orokorraren aurkako ondorio sozialak edo ekonomikoak izan ez ditzaten. Prozesu horretan, bermatu behar da kaudimenari laguntzeko baliabide publikoak bideragarriak eta herrialderako estrategikoak diren jardueretara bideratzen direla, eta optimizatzen dela esparru horretan egindako inbertsioen itzulera zergadunentzat eta gizarte osoarentzat.

Krisialdiari aurre egiteko, berreraikuntza ekonomikoa eta soziala bultzatzeko eta etorkizuneko hazkundera sustatzeko, ez da nahikoa ekoizpen-sarea kontserbatzea; aitzitik, osasun-krisialdiaren ondorioz bizkortuko diren egitura-aldaketetara egokitu behar da, eta horretarako inbertsio publikoak eta pribatuak egin beharko dira. Beraz, funtsezkoa da inbertsio horiek egiteko behar diren erraztasunak ezartzea, eta inbertsiook ekonomiaren balizko hazkundera sustatzen duten sektoreetan zentratuko dira, baita ekonomia epe luzera jasangarria izan dadin sustatzen duten sektoreetan ere, bereziki trantsizio digitalean eta ingurumenekoan.

Horren harira, Europako Batzordeak kaudimenari laguntzeko tresna berri bat sortzea proposatu du (*Solvency Support Mechanism*), epe ertainean kaudimendunak diren enpresen kapitaleko partaidetzak hartzea finantzatzeko Europako Inbertsio Bankuaren bidez, baldin eta enpresa horiek, jardueraren ezohiko beherakadaren ondorioz, laguntza behar badute.

Ilido beretik, Espainiako ekonomiaren erresilientzia handitze aldera, ezinbestekoa da enpresen nazioartekotzea bultzatzea, esportazioen beherakada arintzeko, nazioarteko merkataritzaren eta ekoizpen-kateen gaineko eragin negatibo handia izaten ari den honetan.

Gure ekonomiak eta enpresa-sareak zailtasunak dituzte, eta, beraz, batera lan egin beharra dago, eta, 2020ko bigarren seihilekoan, suspertzea babestu behar da funts publikoen bidez, enplegua sortzen laguntzeko, inbertsioa sustatzeko eta 2021-2022 aldian hazkunde sendo eta iraunkorra berreskuratzeko. Helburu horiek izanik, errege lege-dekretu honek ekoizpen-sektoreari, enpleguari eta errentei laguntzeko zenbait neurri onartzen ditu; hori dela eta, baliabide publikoen mobilizazio nabarmena izango da, eta horiek berehala, hots, 2020an, izango dituzte ondorioak.

Zehazki, kaudimenari eta inbertsioari laguntzeari dagokionez, finantza-laguntzako neurriak hedatzen eta egokitzen dira, eta, horretarako, Kreditu Ofizialeko Institutuaren (ICO) abal-lerro berri bat onartzen da, 40.000 milioi eurokoa, batez ere inbertsio produktiboak finantzatzeko. Gainera, Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateak (SEPI) kudeatutako funts berri bat sortzen da, 10.000 milioi eurokoa, enpresa ez-finanzario estrategiko kaudimendunei finantza-laguntza emateko, baldin eta COVID-19ak bereziki eragin badie eta hala eskatzen badute. Bestalde, gure esportazio-merkatuetako jarduerak beherakada izan duenez, eta, ondorioz, nazioarteko testuingurua konplexuagoa denez, enpresak nazioartekotzeko laguntza indartze aldera, enpresa kotizatuetara zabaltzen da

Esportaziorako Kreditu Aseguruen Espainiako Konpainiaren (CESCE) berme publikoen aparteko lerroa —8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutakoa— eskuratzeko aukera. Ildo beretik, Kanpo Inbertsioetarako Funtza (FIEX) indartzen da. COFIDESek kudeatzen du funts hori, eta haren zuzkidura 10 milioi eurotik 100 milioi eurora handitzen da.

Errege lege-dekretuak, halaber, turismo- eta automobil-sektoreei laguntzeko planak abian jartzeko behar diren xedapenak biltzen ditu. Lehenik eta behin, hipoteka-zordunak babestea ziurtatzeko neurri bat hartzea aurreikusten du, baldin eta hipoteka-zordun horiek hotelei, turismo-ostatuari eta bidaiari-agentziari lotutako higiezina badute, eta neurri hori honako hau izango da: hamabi hilabetera arteko luzamendu-aldia ematea aipatutako hipoteka-zordunen eta kreditu-erakundearen artean sinatutako finantza-eragiketarako gauzatzeko.

Bigarrenik, helmugetan turismo-jasangarritasunerako planak sortzea aurreikusten da, horien jasangarritasuna sustatzeko, eta osasun-krisialdi honek eragin dien turismo-enpresen eraldaketa digitalari buruzko xedapenak ezartzen dira.

Hirugarrenik, turismo-sektoreko aldirako langile finkoentzako hobariak hedatzen dira, eta xedatzen da bateragarriak izango direla Gizarte Segurantzako kotizazioetan salbuespenak aplikatzearekin.

Laugarrenik, automobil-parkea berritzen laguntzeko Renove Programa abian jartzeko laguntzak emateko oinarri zehatzak ezartzen dira. Programa hori joan den ekainaren 15ean aurkeztu zuen Gobernuak.

Bestalde, enpresen kaudimena indartze eta ekonomia suspertze aldera, bazkideek sozietatea uzteko duten eskubidea eteteko epea luzatzen da.

Era berean, I+G+b arloko mekanismoak indartzeko xedapen bat jasotzen da, eta arau batzuk ezartzen dira SARS-coVID-2 koronabirusari lotutako proiektu sanitarioen lankidetzarako publiko-pribatuko mekanismoak erabiltzeko.

Azkenik, beste azken xedapen baten bidez, aldatu egiten da maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duena.

Alde batetik, 20. artikuluari beste apartatu bat gehitzen zaio, 4.a, eta haren helburua da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari behar den lege-estaldura ematea, batetik, autonomia-erkidegoei eta toki-erakundeei behar duten informazioa helarazteko beren eskumeneko prestazioak aitortu eta kontrola ditzaten, eta bestetik, edozein administraziorik jakinarazteko bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko ebazpenak, prestazio hori kudea eta kontrola dezaten, bai eta hala eskatzen duten erakunde eta organismo publikoei ere, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera aplikatuz eratorritako jardunak egin ditzaten, beren eskumenen esparruan. Bestalde, lehen xedapen iragankorraren 3. apartatuari beste paragrafo bat gehitzen zaio, eta, haren bidez, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta foru-ogasunen artean informazioa transmititzeko aukera ematen da, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziari dagokionez aurreikusitako baldintza berberetan, eta hori beharrezkoa da aipatutako xedapen iragankorra foru-lurraldeetan aplikatzeko.

Azken batean, neurri horiek guztiak hartzeko, 51.000 milioi euro baino gehiago mobilizatu behar dira.

Errege lege-dekretu hau honela dago egituratuta: zioen azalpena, bi kapitulu, 52 artikulua, bost xedapen gehigarri eta bederatzi azken xedapen.

## II

Lehenik eta behin, abal-lerro bat onartzen da, inbertsiora bideratutako finantzaketa sustatzea helburu duena; aurreko lerroaren helburu nagusia konfinamenduak eragindako likidezia-premiei aurre egitea izan zen. Konfinamenduan zehar, jarduera ekonomikorik ez izateak eragindako likidezia-arazoak arintzea izan zen abal publikoen lehentasuna. Izan ere, arazo horiek, azkenean, kanpo-efektu negatibo handiak eta kate-efektuak eragin ahalko zituzten ekoizpen-kate osoan, hornitzaileei, langileei eta bezeroei eragiten zietelako. Orain, berriz, enpresek eta autonomoek beren eguneroko jarduerari ekin diete berriz ere, eta beren baliabideak erabiliz erantzun ahal izango diete likidezia-premiei, ezohiko laguntza publikorik jaso gabe. Hala ere, Espainiako ekonomia hazi ahal izateko, funtsezkoa da inbertsio-jarduera bultzatzea, eta horretarako sortu da abal-lerro berri hau. Aurreko abal-

lerroak bezala, aukera emango du sektore pribatuko baliabideak askatzeko, zenbatetsitako inbertsioaren beherakadari aurre egiteko eta balio erantsi handiena sortzen duen lekuetan sustatzeko, bereziki bi ardatz nagusiren inguruan, ingurumen-jasangarritasunaren eta digitalizazioaren inguruan. Abal-lerroa 40.000 milioi eurokoa izango da gehienez, eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak emango du, gainbegiratutako finantza-erakundeek enpresei eta autonomoei inbertsioak egiteko emandako finantzaketa bultzatze aldera. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako abal-lerroak oso ondo funtzionatu duenez, aurreikusten da kasu honetan berdin jokatzea: Ministro Kontseiluaren ondoz ondoko erabakiak onartzea; erabaki horietan zehaztuko da zein baldintzatan askatuko diren abal-tarte guztiak.

Bigarrenik, ezartzen da enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsa sortuko dela, osasun-larrialdiak ekoizpen-sarerako eta sare ekonomikorako estrategikotzat jotzen diren enpresa kaudimendunen balantzean duen eragina konpentsatzeko. Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsaren Kudeaketa Kontseilua sortzen da, eta haren osaera eta funtzionamendua Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez zehaztuko dira. Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsa Kudeaketa Kontseiluak kudeatuko du, Estatuako Industria Partaidetzarako Sozietatearen (SEPI) bidez; aldi baterako izango da, eta 10.000 milioi euroko hasierako zuzkidura izango du hainbat finantza-tresna eskuratzeko, hala nola zorra, tresna hibridoak edo aurretik aipatutako enpresen kapital sozialeko partaidetzak. Birkapitalizazio gisako laguntzen helburua hauxe da: aukera ematea enpresen jarduerari eutsi ahal izateko, baldin eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz aldi baterako zailtasun larriak dituzten enpresak badira eta kreditua edo likidezia-neurriak nahikoak ez badira. Esku hartzeko neurri hori azken aukerakoa eta aldi baterakoa da, eta, onuradunek eskatzen badute aplikatuko da, bakar-bakarrik Estatuako edo eskualdeko enpresen kasuan, eta betiere ekoizpen-sarerako estrategikotzat jotzen badira, besteak beste, eragin sozial eta ekonomiko handia dutelako, edo garrantzitsuak direlako segurtasunerako, pertsonen osasunerako, azpiegiturarako eta komunikazioetarako, edo merkatuek behar bezala funtziona dezaten laguntzen dutelako. Funtsaren konturako eragiketak egiteko, enpresa interesdunak hala eskatu beharko du.

Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsaren bidez bideratutako laguntzek bete egin behar dute Europar Batasunak estatuaren laguntzen arloan ezarri duen araudia, bereziki Europako Batzordeak maiatzaren 8an onartutako aldaketa, «COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babestera bideratutako estatuaren laguntzei buruzko Aldi Baterako Esparrua»ri dagokionez. Berrikusitako aldi baterako esparru horrek ezartzen du zer baldintza bete behar dituzten kapital-ekarpen edo zor-tresna hibrido gisako laguntzek Europar Batasuneko araudiarekin bateragarriak izateko. Birkapitalizazio gisako laguntzek Estatuaren partaidetzaren desinbertsio-planen mende egon behar dute, eta, nolana ere, aipatutako Aldi Baterako Esparruan xedatutakoaren arabera ordainduko dira, eta esparru horretan ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

Amaitzeko, COVID-19ak eragindako ondorio ekonomikoei aurre egiteko eta likidezia-murrizketek gehien eragin dituen enpresek nazioarteko merkataritzarako finantzaketa lor dezaten errazteko, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak enpresa esportatzaileei laguntza emango zaiela aurreikusten du, hain zuzen, kreditu zirkulatzailea estaltzeko antolatuko den aparteko lerro baten bidez, CESCEk kudeatuko baitu.

Hasieran, kreditu zirkulatzailea estaltzeko CESCEren aparteko lerroa enpresa txiki eta ertaintzat eta kotizatu gabeko enpresentzat antolatu zen, enpresa kotizatuak alde batera utzita, finantzaketa eskuratzeko erraztasun handiagoa izan ohi dutela jo baitzen. Egungo pandemian, enpresa-segmentu guztietan nabaritzen ari da krisialdiaren eragina. Jarduera-sektorea enpresaren tamaina baino erabakigarriagoa izaten ari da. Enpresa kotizatueta batak zailtasunak izaten ari dira finantzaketa eskuratzeko, eta lerrotik kanpo uzteak zaildu egiten du, gainera, beren ohiko bankuak erabili ahal izatea.

Kontuan izan behar da enpresa kotizatu horietako batzuek eragin handia dutela enpleguan, ez bakarrik zuzeneko plantilletan, baita inguruan sortzen dituzten zeharkako ondorioetan ere. Horregatik, egokitze jotzen da lerro hori erabiltzeko aukera kotizatutako enpresetara zabaltzea, eta, beraz, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko CESCEren

aparteko lerroa nazioartekotutako enpresetara bideratzea, edozein dela ere haien tamaina edo egitura korporatiboa zein sozietate-egitura. Aurrekoa alde batera utzi gabe, eta enpresek lerroa dibertsifikatuta erabiltzen dutela ziurtatzeko, enpresa kotizatuek lerroaren zenbateko osoaren % 35 baino ezingo dute jaso.

## III

Turismoaren balio-katea da koronabirusaren egungo osasun-krisialdiak gehien eragin duen jarduera ekonomikoetako bat. COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-krisialdiak eragin handia izan du mugikortasunean, baita turismo-sektorean ere. Izan ere, turismo-sektoreak ingurune ekonomiko globalizatuan eta oso aldakorrean garatzen du bere jarduera, eta gaur egungo epidemiak aldaketa handia eragin du eskarian, sortu duen ziurgabetasunaren, eta haren hedapenaren eta kutsaduraren ondorioz.

COVID-19aren agerraldia, sektore ekonomiko askotan eta horien ekoizpen-kateetan ondorioak izateaz gain, eragin oso zuzena eta apartekoa izaten ari da mundu-mailako turismoan. Iragan maiatzaren 7an, Turismoaren Mundu Erakundeak berriz aztertu zituen 2020. urterako zituen aurreikuspenak, eta kalkulatu zuen, 2019. urtearekin konparatuta, % 60 eta % 80 arteko beherakada izan dela gurera etorritako nazioarteko turisten kopuruan. Horrek ekarriko luke 910.000 milioi eta 1,2 bilioi AEBetako dolar arteko galerak izatea turismo-espazioetan. Espainian, apirilean bakarrik, nazioarteko 7 milioi turista baino gehiago galdu dira, bai eta horiei lotutako 7.000 milioi euroko gastua ere (INEren FRONTUR edo EGATUR inkestetako datuak, 2019ko apirilekoak).

Arrazoi horiek zirela tarteko, Gobernuak Turismo Sektorea Bultzatzeko Plana aurkeztu zuen, 4.262 milioi eurokoa. Plan horrek aurreikusten du, besteak beste, premiazko neurri bat hartzea, hotelei eta antzeko turismo-ostatuei, egonaldi laburreko turismo-ostatuei eta bestelako ostatuei eta bidaiia-agentziei lotutako higiezia duten hipoteka-zordunak babesteko.

Neurri horren arabera, zeina luzamendu bat eskaintzea baita, finantza-erakundeek, zordunek hala eskatzen badute, berritu egingo dituzte turismo-jarduerari lotutako ondare-elementuekin zerikusia duten finantzaketa-eragiketa guztiak, baldin eta alarma-egoera deklaratu aurretik sinatu baziren eta onuraduna alarma-egoera deklaratu aurretik hartzekodunen konkurtsoan ez zegoen pertsona fisiko edo juridikoa bada, eta COVID-19aren ondorioz finantza-zailtasunak baditu; betiere maileguari ez bazaizkio jada aplikatu legezko, sektoreko edo borondatezko luzamendu bat edo batzuk, guztira gutxienez hamabi hilabete irauten dutenak. Luzamenduak iraun bitartean, hipoteka-zorren interesak bakarrik ordainduko dira, eta kapitala ez da amortizatuko. Era berean, finantza-betebeharra beste hamabi hilabetez luzatuko da gehienez, edo geroraturako zenbatekoa gainerako kuoten artean birbanatuko da, hitzartutako muga-eguna aldatu gabe.

Gabezia hipoteka-maileguei aplikatuko zaie, baldin eta berme gisa ondasun higiezin bat badute eta ondasun higiezin horretan Estatuko lurralde osoan gauzatzen den turismo-sektoreko jarduera ekonomiko bat garatzen bada. Onuradunak hotelak eta antzeko turismo-ostatuak eta egonaldi laburreko turismo-ostatuak eta bestelako ostatuak izango dira, baita bidaiia-agentziak ere.

Bestalde, hobarria ematen da neurri hori ezartzeko eragiketen ondoriozko notarioen eta Jabetza Erregistroaren arantzelak ordaintzeko, bai eta edozein motatako zergak edo kargak ordaintzeko ere.

Aipatutakoaz gain, hau da, turismo-sektorean paralisiaz eta ziurgabetasunaz gain, turismo-sektoreak inbertsioak egin behar ditu «normaltasun berri»rako ezarritako protokolo higienikoak eta sanitarioak beteta berriro irekitzeko. Horiek horrela, eta nazioarteko turismoan inoiz ez bezalako beherakada izango denez, Helmugetako Turismo Jasangarritasunerako Planen Programak suspertzea arduratsuagoa eta jasangarriagoa izan dadin laguntzea du helburu.

Bestalde, aipatutako Turismo Sektorea Bultzatzeko Planaren barruan, Turismoko Estatu Idazkaritzak 216 milioi euroko mailegu-lerro bat antolatuko du, salbuespen gisa, 2020an, COVID-19aren krisialdiak eragindako turismo-enpresen eta langile autonomoen eraldaketa digitalaren arloko inbertsio-premiei erantzute aldera, interes-tasa hobaridunak

eta gabealdi luzeak baliatuz turismo-sektorearen eraldaketa digitala, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzen duten proiektuak finantzatzeko.

Neurri horiek lehenbailehen hartu behar dira, enplegua ez suntsitzeko eta Espainiako turismo-industriari lehiakortasunik gal ez dezan, horrek desabantaila-egoeran jarriko bailuke Europako eta nazioarteko merkatuetan.

Likidezia-maileguak dira, eta horien helburua da COVID-19aren krisialdiak eragindako turismo-enpresen inbertsio-premiei erantzutea; izan ere, mota horretako enpresek berehalako likidezia behar dute lehiakortasunari bultzada berria emateko eta merkatuan birkokatzea lortzeko. Mailegu horiei esker, enpresek azkarrago eta modu jasangarriagoan suspertzeko aukera izango dute etorkizunean, krisialdiaren ondoren enpleguari eusten lagunduko diete-eta. Premiak hain espezifikoak direnez, Administrazioak, horiei erantzuteko orduan, epe eta irizpide berberak aplikatu behar ditu Estatuko lurralde osoan, eta hori kudeaketa zentralizatua ezarri bakarrik berma daiteke; horrela eginez, helburu nagusia bete ahalko da, hots, enpresei premiazko finantzaketa eman ahalko zaie. Inguruabar horiek direla medio, ezin dira kredituak aldeztu aurretik lurraldeka banatu autonomia-erkidegoen artean, eta Estatuko Administrazio Orokorrek esku hartu behar du, balizko hartzaileen nolabaiteko berdintasuna bermatzeko Estatuko lurralde osoan.

Enpleguaren ikuspegitik, COVID-19ak eragindako salbuespenezko egoera eragin berezia izaten ari da autonomia-erkidego guztietako turismo-sektorean eta hari lotutako sektoreetan lan egiten duten aldizkako langile finkoen enpleguan. Egungo krisialdian egiaztatu da turismo-sektorea dela eragindako sektore ekonomiko nagusietako bat, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoerak iraun bitartean pertsonen zirkulazio askea murriztu delako eta eten egin direlako jendaurreko jarduerak, bereziki ostalaritza- eta jatetxe-jarduerak. Hasiera batean, ziurgabetasunaren eta zuhurtzia-efektuaren ondorioz turismo-zerbitzuen eskaria txikiagoa zenez, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, 2020ko otsailetik ekainera arte luzatu zen aldizkako kontratu finkoak dituzten langileen jarduera-aldia luzatzeagatik hobariaren aplikazioa, aipaturako salbuespenezko egoerak gehien eragin diezaiekeen autonomia-erkidego guztietako langileei dagokienez. Hala ere, alarma-egoera luzatzearen ondorioz, eta, bai neurri horien deseskalatze-prozesuan, bai prozesu hori amaitu eta normaltasun berria hasten denean, turismo-jardueretara eta turismoari lotutako merkataritza- eta ostalaritza-jardueretara pixkanaka itzultzearen ondorioz, beharrezkoa da hobari horiek 2020ko uztailetik urrira bitartean luzatzea, salbuespenez, autonomia-erkidego guztietan, bai eta hobari horiek Gizarte Segurantzako kuoten gaineko salbuespenekin bateragarri bihurtzea ere.

#### IV

Bestalde, Espainiako automobil-sektorearen kasuan, urte amaierarako kalkuluen arabera, merkatuak % 45 egingo du behera, eta produkzioan, berriz, 700.000 unitate gutxiago izango dira. Hortaz, koronabirusaren egungo osasun-krisialdiak gehien eragin dien industria- eta merkataritza-arloko jarduera ekonomikoetako bat da automobilgintzaren balio-katea.

Pandemiaren ondorio negatiboei aurre egiteko berreraikuntza ekonomikoko eta sozialeko prozesuari ekin behar izan zaio, eta, haren barruan, Gobernuak Automobilgintza Industriaren Balio Katea Bultzatzeko Plan bat aurkeztu du 2020ko ekainaren 15ean. Plan horrek bost ardatzen inguruan egituraturako 21 neurri biltzen ditu, eta horietako bat ibilgailu-parkea berritzea eta haren ordeztu parke modernoagoa eta eraginkorragoa jartzea da. Horiek horrela, Ibilgailuak Berritzeko 2020 Programa aurkeztu da (Renove Programa 2020).

Programa horren helburua da ibilgailu zaharren ordeztu modelo garbiagoak eta seguruagoak jartzea, ingurumen-irizpideak txertatuz. Programa honek zirkulazioan dauden ibilgailu kutsatzaileak isuri gutxiagoko ibilgailu berriek ordeztuak izan daitezten sustatzen du, neutraltasun teknologikoaren ikuspegitik, eta gaur egun eskuragarri dauden teknologia guztietako ibilgailuak hartzen ditu barne, ibilgailu elektrikoak, hibridoak, hidrogenokoak,

errekuntzakoak, PGLkoak eta gas naturalekoak. Ikuspegi zabala du programak, eta kategoria garrantzitsuenetako ibilgailuak erosten laguntzen du, turismoetatik eta merkataritzako ibilgailu arinetatik hasi eta ibilgailu industrial astunetaraino eta autobusetaraino.

Horri lotuta, eta premia-printzipioari dagokionez, nazioarteko esparruan nabarmendu behar dira Europar Batasunak 2030erako kolektiboki finkatutako konpromisoak, energia-efizientzia hobetzeari, energia berriztagarriak txertatzeari eta berotegi-efektuko gasak murrizteari buruzkoak. Estatuan, gaur egun, Espainiako garraio-sektoreak sortzen du kontsumitutako azken energiaren % 39, eta guztizko CO<sub>2</sub> isurien laurdena baino gehiago sektore horretatik dator; gainera, errepideko garraioari dagozkio garraio-sektorearen energia-kontsumoaren % 80 eta haren CO<sub>2</sub> isurien % 90. Ibilgailu zaharren ordeztu modelo berrietakoak jarri parkea berritzeak aurrerapen handia ekarriko du ildo horretan.

## V

COVID-19ak ekarritako osasun-krisialdiaren ondoriozko eragin ekonomikoa ikusita, komeni da bazkideek sozietatea uzteko duten eskubidea eteteko epea luzatzea, soilik dibidenduak ez banatzeak eragin badu sozietatea uztea, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren 348 bis artikulua 1. eta 4. apartatuetan ezartzen denez. Horrela, dibidendua atxiki ahal izango da, enpresek kaudimen indartuaz aurre egin ahal izateko suspertze ekonomikoari. Sozietatea uzteko eskubidea eteteko epea azaldutako helburua betetzeko beharrezkoa den denboraz baino ez da luzatzen, hau da, 2020ko abenduaren 31ra arte.

Funtsezkoa da, halaber, SARS-CoViD-2 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiarekin zerikusia duten I+G+b arloko proiektuen finantzaketa publikoaren esparruan, funts horien aplikazio egokia arautzea; bermatu behar da, nolahi ere, oztipoak gainditzeko lankidetzaren mekanismoak ezarri ahal izango direla, kasu kasuko proiektuaren emaitza sendagai edo osasun-produktu bat denean, edo eraldaketa industrialaren bitartez sendagaiak edo osasun-produktuak egiteko erabiliko diren bitarteko produktuak direnean, edo horiek garatzeko beharrezkoak diren ekipamenduak, ereduak, prototipoak, sistemak edo prozesu-ingeniaritzak direnean, betiere horiek ekoizteko edo azkar ekoizteko zailtasunak badaude, eta zailtasun horiek behar adinako hornidurarik ez izatea eragin badezakete.

Mekanismo horiek agente finantzatzaileak eta kasu kasuko proiektua garatzen duen erakundeak lankidetzan aritu beharra dakarte, eta ikerketaren ondoriozko produktuak esportatzeko, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) baimena eman behar duela jasoko dute; halaber, osasungintzako agintaritzek horien hornidura zentralizatzea erabakitzeke ahalmena izango dute.

Lankidetzaren akordioa zuzenbidean baimendutako edozein modutan sinatu behar da, eta, modua kontratua bada, Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedatutakoa bete behar da; nolahi ere, akordioak proportzionaltasun-printzipioari jarraitu behar dio, eta osasun publikoa babesten dela bermatzea izango du helburu bakarra.

## VI

Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake «aparteko eta presazko beharrezko egoz gero», eta ezingo dute eraginik izan Estatuko oinarrizko erakundearen antolamenduan, ez eta I. titulua arautzen dituen herritarren eskubide, betebehar eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean. Konstituzio Auzitegiak onartzen du neurri ekonomikoak errege lege-dekretuaren tresna baliatuz hartzea, baldin eta esplizituki eta arrazoituz justifikatzen bada beharra eta premia daudela, hau da, egoera ekonomikoak erantzun azkar bat eskatzen duenean eta neurri horiek arazko bide arruntaren bidez izapidetuz atzeratzeak kalterik ez du ekar dezakeenean.



Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baldin eta presako legegintza justifikatzen duen helburua honako hau bada, gure Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz eskatu duen bezala (6/1983 Epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 Epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 Epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 Epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria): Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin bati aurre egitea, zeinak eskatzen baitu, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, arau bat egin beharra berehala, legeak Parlamentuan izapidetzeko erabiltzen den ohiko bidean edo presako prozeduran baino epe laburragoan. Eta are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean. Agerikoa denez, tresna arauemaile horretara jo behar da, nazioarte mailako irismena duen osasun publikoko larrialdia deklaratu zenetik gure herria jasaten ari den egoera larriari aurre egiteko. Izan ere, larrialdiak alarma-egoera deklaratu beharra eragin zuen, eta horren ondorioz, herritarrek, langileek, enpresek eta sektore publikoak sakrifizioa egin behar izan dute, eta beraz, botere publikoek beste erantzun bat eman behar dute.

Azken batean, egungo inguruabarren ondorioz, politika publiko bat behar da, Gobernuak ondo definitutako helburuak betetzeko, eta politika hori gauza dadin presaz ezarri beharra dago, eta aparteko bultzada eman behar zaio une honetan. Hori dela eta, errege lege-dekretu hau presaz onartzeko beharrezko beharrezko judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014 epaia, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarriz arreta.

Konstituzio Auzitegiak azpimarratu duenez, «gai bat erlatiboki edo modu absolutuan lege arrunt batez arautu beharrekoa izateak ez du kentzen ezohiko eta behin-behineko eran lege-dekretuz arautzea» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 60/1986 epaia, 2. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, 8. oinarri juridikoa; 100/2012 epaia, 9. oinarri juridikoa; 35/2017 epaia, martxoaren 1koa, 5. oinarri juridikoa).

Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiak erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi, inolaz ere, konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012 epaia, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012 epaia, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013 epaia, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek modu sakon eta arrazoituan justifikatzen dute arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa).

Era berean, errege lege-dekretuaren bidez ezarritako neurriek ez dituzte urratzen konstituzio-eskubideak, eta errespetatu egiten dute jabetza pribatuaren eta enpresa-askatasunaren funtsezko edukia, Espainiako Konstituzioaren 33. eta 38. artikuluetan jasotakoak, hurrenez hurren. Neurri horiek bat datoz ezarri diren konstituzionaltasun-parametroekin.

Errege lege-dekretuak aldaketa horiek ordenamenduan sartzeko tresna gisa erabiltzeari dagokionez, bi gauza hartu behar dira kontuan: tresna arauemaile horren bidez arlo batzuk ezin direla arautu eta, gainera, inguruabar jakin batzuk gertatu behar direla mota horretako araua erabili ahal izateko. Arautu ezin diren arloei dagokienez, hona zer ezartzen duen Konstituzioak 86.1 artikuluan: errege lege-dekretuek «ezingo dute eraginik sortu estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan, lehenengo tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere». Errege lege-dekretu honek ez die eragiten arlo horiei.

Izan ere, arauan sartzeko diren xedapenek ez dute ukitzen aurreko elementu horietako bakar bat ere muinean: ez da Estatuko funtsezko erakunderik arautzen; ez da ukitzen herritarren eskubide eta betebeharren izaera; ez da autonomia-erkidegoen araubidearen

gaineko eraginik sortuko, ez baitira horientzat hemengo neurriak, eta hauteskunde-araubidearekin ere ez dago inolako loturarik. Beraz, xedapen horien edukian ez dago ezer haiek onartzea eragotzen duenik puntu honetan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, errege lege-dekretu hau erregulazio onaren printzipioetara egokitzen da.

Horiek horrela, premia- eta efikazia-printzipioen arabera, ekimenaren oinarria da COVID-19ak eragindako osasun publikoko krisialdiaren ondoriozko salbuespenezko inguruabar sozial eta ekonomikoei erantzuteak dakarren interes orokorra, hauxe baita premia horiei aurre egiteko neurri gehigarriak hartzeko unea, eta errege lege-dekretua baita hori lortzeko tresnarik egokiena.

Araua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, ezinbesteko erregulazioa baitu herritar guztien eta, bereziki, langileen ongizatea bermatzeko eta jarduera ekonomikoaren gaineko eragina minimizatzeke egungo salbuespenezko egoeran.

Era berean, bat dator segurtasun juridikoaren printzipioarekin, koherentea da Europar Batasuneko zuzenbidearekin eta gainerako ordenamendu juridikoarekin, eta politika sozialaren eta ekonomikoaren printzipio gidariei jarraitzen die.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, ez da kontsulta publikoaren izapidea bete, ez eta jendaurreko entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak ere, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26. artikuluko 11. apartatuan ezarritako salbuespena dela medio.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honek ez du administrazio-kargarik ezartzen, ez badago justifikatuta eta ez bada ahalik eta kargarik txikiena, eta, nolahi ere, proportzionala, kontuan hartuta egoera berezia dela eta hartutako neurriak aplikatzean eraginkortasun-printzipioa bermatu beharra dagoela.

Beraz, errege lege-dekretu honetako neurri guztiek betetzen dute, oro har eta banan-banan, beren izaera eta xedea ikusirik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko errege lege-dekretu bat onartu ahal izateko eskatzen duen aparteko eta presazko beharrezanaren baldintza.

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1 artikuluen 1., 6., 7., 8., 10., 11., 13., 14., 15., 17., 18., 23. eta 25. apartatuen babesean ematen da. Artikulu horrek eskumen hauek ematen dizkio Estatuari: konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean, espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak arautzea; merkataritza-, zigor- eta espetxe-legegintza; prozesu-legegintza, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako zuzenbide substantiboaren berezitasunetatik eratorritako arlo horretako espezialitateak; lan-legegintza; legegintza zibila; aduana eta arantzelen araubidea eta kanpo merkataritza; kredituak, bankuak eta aseguruak antolatzeko oinarriak; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; Ogasun Nagusia eta Estatuaren Zorra; ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustapena eta koordinazio orokorra; Gizarte Segurantzaren arloko oinarrizko legeria eta araubide ekonomikoa; administrazio publikoaren araubidearen oinarriak; kontratuei eta administrazio-emakidei buruzko oinarrizko legeria; telekomunikazioak; ibilgailu motordunen trafikoa eta zirkulazioa; ingurumena babesteko oinarrizko legeria, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek izan ditzaketan ahalmenak, babes-arau gehigarriak eta mea- eta energia-araubidearen oinarriak ezartzeko.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenez baliatuta, Gobernuko hirugarren lehendakariorde eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko ministroak eta Justiziako, Ogasuneko, Lan eta Gizarte Ekonomiako, Industria, Merkataritza eta Turismoa, Zientzia eta Berrikuntzako eta Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazioa ministroek proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2020ko uztailaren 3ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

### Inbertsioari eta kaudimenari laguntzeko neurriak

#### *Inbertsioetarako abalen lerroa*

1. artikulua. *Gainbegiraturako finantza-erakundeek enpresei eta autonomoei emandako finantzaketa Estatuaren kontura estaltzeko lerro bat onartzea, haren helburu nagusia izanik inbertsioak finantzatzea.*

1. Herrialdea ekonomikoki susper dadin sustatze aldera, Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak abalak emango dizkio gainbegiraturako finantza-erakundeek enpresei eta autonomoei emandako finantzaketari, batez ere inbertsio berriak egitearen ondoriozko finantza-premiei erantzuteko.

2. Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak gehienez ere 40.000 milioi euroko abalak eman ahal izango ditu, 2020ko abenduaren 31ra arte. Aplikatu beharreko baldintzak eta bete beharreko betekizunak, abala eskatzeko gehieneko epea barnean dela, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez ezarriko dira, eta ez da beharrezkoa izango gerora araudia garatzea.

3. Europar Batasunak estatu kideen laguntzen arloan ezarri duen araudia bete beharko dute arau honetan araututako abalek eta Ministro Kontseiluaren erabakian garatutako baldintzek.

4. Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak, artikulua honetan xedatutakoari jarraikiz, enpresak eta autonomoak finantzatzeko abal batzuk ematen ditu. Abal horiek exekutatzeari dagozkion zenbatekoak Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioaren aurrekontu-partida honen bidez ordainduko dira: 27.04.9230.351 «Arriskuak estaltzea Altxorrek emandako abaletan, aurreko ekitaldietako arriskuak barne». Kreditu hori zabalgarria da, Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen II. eranskinaren arabera («Kreditu zabalgarriak»), Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 54. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 59. artikuluan abal horiei buruz xedatutakoa aplikatuko zaio, artikulua honen arabera emandako abalei dagokienez.

Altxorren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak baimena dauka abalaren exekuzioari dagozkion ordainketak egiteko, altxortegi-eragiketen bitartez, horretarako propio sortuko diren kontzeptuen kargura.

Ordainketak egin ondoren, Altxorren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak ekitaldian egindako ordainketak gastuen aurrekontuan aplikatuko ditu. Urte bakoitzeko abenduan egindako ordainketak hurrengo hiruhilekoan aplikatuko zaizkio gastuen aurrekontuari.

#### *Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsa*

2. artikulua. *Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsa sortzea.*

1. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 137. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsa sortzen da; funts hori (aurrerantzean, «Funtsa») nortasun juridikorik gabekoa da, eta Estatuako Administrazio Orokorren atxikita dago Ogasun Ministerioaren bidez. Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsaren Kudeaketa Kontseilua sortzen da, eta haren osaera eta funtzionamendua 15. apartatuan aipatutako Ministro Kontseiluaren erabakiaren bidez zehaztuko dira. Kudeaketa Kontseilua arduratuko da funtsaren kudeaketaz Estatuako Industria Partaidetzarako Sozietatearen (SEPI) bidez; sozietate hori Ogasuneko Idazkariordetzaren bitartez Ogasun Ministerioari atxikitako ministerioen arteko kide anitzeko organoa da.

2. Funtsaren xedea da aldi baterako laguntza publikoa ematea enpresen kaudimena indartzeko, bereziki partaidetzako maileguak, mendeko zorra, akzio-harpidetza edo bestelako kapital-tresnak emanez enpresa ez-finantzarioei, baldin eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz aldi baterako zailtasun larriak badituzte eta Estatuko edo eskualdeko ekoizpen-sarerako estrategikotzat jotzen badira, besteak beste, eragin sozial eta ekonomiko handia dutelako, edo garrantzitsuak direlako segurtasunerako, pertsonen osasunerako, azpiegituretarako eta komunikazioetarako, edo merkatuek behar bezala funtziona dezaten laguntzen dutelako. Funtsaren konturako eragiketak egiteko, enpresa interesdunak hala eskatu beharko du.

3. Funtsaren hasierako zuzkidura 10.000 milioi euro da. Honako hauek Altxor Publikoan sartuko dira: enpresa eskatzaileen administrazio-organoetan parte hartzearen ondorioz egiten diren inbertsioen edo eragiketen ondoriozko dibidenduen, interesen, gainbalioen eta bestelako ordainsarien zenbatekoa, eta, bestalde, egindako desinbertsioen eta itzulketen emaitzak, minusbaliotasunengatik eta gastuengatik gutxituta.

Altxor Publikoan sartu beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta horiek kobratzeko Aurrekontuen Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

Aurreko apartatuan adierazitakoaren ondorioetarako, 10.000 milioi euroko aparteko kreditua ematen zaio indarrean dagoen aurrekontu honi: 15. atala, «Ogasun Ministerioa»; 01. zerbitzua, «Ministerioa, Idazkariordetza eta Zerbitzu Orokorrak»; 923M programa, «Ogasuneko Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak»; 8. kapitulua, «Finantza-aktiboak»; 87. artikulua, «Ondare-ekarpenak»; eta 879. kontzeptua, «Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsari egindako ondare-ekarpena». Apartatu honetan emandako aparteko kreditua Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 46. artikulua araberako finantzatzeko da.

I. eranskinean jasotzen da funtsaren 2020ko ekitaldirako ustiapen- eta kapital-aurrekontua.

4. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean, errege lege-dekretu honetan eta aplikatzekoak diren administrazio-zuzenbide orokorreko eta bereziko gainerako arauetan xedatutakoari jarraitzen dio enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsak.

5. Funtsa Estatuko sektore publikoaren parte da, nortasun juridikorik gabeko funtsa gisa, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 2.2.f) artikulua ondorioetarako, eta han aurreikusitako aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidearen mende dago. Kontu Auzitegian kontuak emateko, Kudeaketa Kontseiluko presidentea izango da kontu-emailea.

6. Kudeaketa Kontseiluak du xedapen honen 2. apartatuko eskabideak ebazteko eskumena, eta Ministro Kontseiluaren baimena beharko da eragiketak onartzeko.

7. Ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, enpresak eskabidea aurkezten duen egunetik aurrera. Ebazteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da. Kudeaketa Kontseiluaren ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta haien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da.

8. Funtsari buruzko eragiketa eta akzio guztietan, Estatuko Administrazio Orokorren izenean eta hura ordezkatzu jardungo du SEPIk, egindako aktibo-eragiketak ordezkatzu dituzten tituluen eta kontratuen gordailuzain gisa arituko da, eta Estatuko Administrazio Orokorren partaidetzari administratzaile gisa legezkiokkeen eskubideak baliatuko ditu. Funtsaren kontura egindako eragiketa guztiak kontabilitate espezifikoko batean erregistratuko dira, Kudeaketa Kontseiluko kideen kontabilitatearekiko berezia eta independentea den batean. Funtsaren erantzukizunak Kudeaketa Kontseiluak bere gain hartutakoak besterik ez dira.

Ez dira sartuko Estatuko Administrazio Orokorren Ondarean hark funtsaren kontura eskuratzen dituen partaidetzak, akzioak, tituluak eta gainerako tresnak, eta ez zaie aplikatuko Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen VII. tituluaren aurreikusitakoa.

9. Errege lege-dekretu hau betez SEPIri dagozkion jarduketak egiteko, erakunde horrek Funtsaren kontura kontratatu ahal izango ditu beharrezkoak diren kanpo-laguntzako zerbitzu guztiak, hain zuzen, Funtsa eta haren kontura finantzatutako eragiketa guztiak eraginkorrak izateko, haiek abian jartzeko, garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak direnak; eta zerbitzu horiek kontratatu ahal izango ditu, baldin eta ezin atzeratzeko beharrezkoak badago, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan aurreikusitako salbuespenarekin bat, han aurreikusitako baldintzak betetzen badira.

10. Urtero, konpentsazio ekonomikoa emango da, SEPIk aurreko ekitaldian Funtsaren kudeaketa eskuordetuko eginkizunak betetzean eta gauzatzean eragindako kostuen truke; konpentsazio hori Funtsaren kontura egingo da, eta Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak baimena eman beharko du erabaki baten bidez.

11. Xedapen honen aplikaziotik zuzenean edo zeharka eratorritako ondare-eskualdatze, sozietate-eragiketa eta egintza guztiak, baita funtsen ekarpenak edo kapital-handitzeak ere, baldin eta Funtsaren kontura partaidetutako enpresen kapitalizatorako edo finantza- eta ondare-berregituraketarako gauzatzen badira, salbuetsita egongo dira Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo tokiko edozein tributu ordaintzetik, eta azken kasu horretan, ez da bidezkoa izango martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren (Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena) 9.2 artikuluan aipatzen den konpentsazioa ematea. Era berean, lehen aipatutako eskualdaketa, eragiketa eta egintza guztiak egiteko, ez da ordaindu behar izango fede-emaila publikoen eta jabetza- eta merkataritza-erregistratzaileen esku-hartzeek eragindako arantzelik eta ordainsari profesionalik.

12. Enpresaren kapital sozialean parte hartzen den kasuetan, ez da inolako egintzaren edo erabakiren beharrik izango, Merkataritza Erregistroari jakinaraztea izan ezik, honako hauek zehazteko: zer boto dagozkion Kudeaketa Kontseiluari, horien ondorioz zer eskubide politiko dituen, eta zer-nolako presentzia izango duen erakundearen administrazio-organoan, partaidetza-kuotaren baliokidea den kontseiluko kideen kopurua izendatuz, zenbaki oso hurbilenera biribilduta.

13. Administrazioak bere gain hartuko du, zuzenean, legeetan aurreikusitako kasuetan enplegatu publikoak, kapital sozialean partaidetza duten enpresetako administrazio-kontseiluetako kide izateagatik, izan dezakeen erantzukizuna. Kudeaketa Kontseiluak ofizios eskatu ahal izango dio enplegatu publikoari erantzun dezala administrazioaren ondasunei eta eskubideei eragindako kalteengatik, baldin eta dolorik, errurik edo zabarkeria astunik izan bada, administrazio-legeetan ondare-erantzukizunari buruz aurreikusita dagoenaren arabera.

14. Kapital sozialeko partaidetzak Funtsaren kargura eskuratzean, ez da eskuratzeko eskaintza publikoa egin beharrik izango, Balore Merkatuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 128. eta 129. artikuluetan aurreikusitako kasuetan.

15. Funtsaren funtzionamendua, baliabideen mobilizazioa eta likidazioa, bai eta xedapen honen 2. apartatuko eragiketetan aplikatu beharreko baldintzak eta bete beharreko betekizunak ere, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez zehaztuko dira, eta ez da arauen bitartez garatu beharrik izango.

16. Funtsak finantzatutako eragiketek Europako Batzordearen estatuaren laguntzei buruzko araudiari jarraituko diote, eta, bereziki, Europako Batzordeak emandako Komunikazioari —komunikazio horretan, aldi baterako esparru bat onartu zen estatu kideei COVID-19aren agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesten laguntzeko—.

17. Errege lege-dekretu honek agintzen dizkien eginkizunak betez Kudeaketa Kontseiluak eta SEPIk eskuratu dituzten datuak, dokumentuak eta informazioak isilpekoak izango dira, eta ezingo dizkiete ez pertsoneri, ez agintaritzari jakinarazi, ez horiek lortu ziren helburuetarako ez beste batzuetarako erabili, indarrean den araudian aurreikusitako salbuespenak salbuespen. Halaber, Kudeaketa Kontseiluak eta SEPIk legez esleituta dituzten eginkizunak betetzeko izendatzen dituzten kontu-auditoreek, lege-aholkulariek eta gainerako aditu independenteek sekretua gorde beharko dute, eta ezin izango dute

jasotako informazioa erabili eman zaien helburuetarako ez beste batzuetarako. Datuek, dokumentuek, eta informazioek isilpeko izateari utziko diote interesdunek horietan aipatzen diren gertaerak jakitera ematen dituzten momentuan.

18. Ogasuneko ministroak emandako agindu baten bidez hartuko da Funtsa ezabatze erabakia, Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak txostena egin ondoren.

19. Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko Funtsa ezabatzen denean, saldoa Altxorrean sartuko da.

## II. KAPITULUA

### **Ekonomia suspertzen laguntzeko beste neurri batzuk**

#### *Hipoteka-luzamendua turismo-sektorerako*

3. artikulua. *Turismo-jarduera bati lotutako higiezinak finantzatzeko emandako hipoteka-maileguen luzamendua.*

1. Langile autonomoek eta egoitza soziala Espainian duten pertsona juridikoen luzamendua aplikatzeko eskubidea izango dute 4. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituen higiezin baten gaineko hipoteka-bermedun maileguen printzipalaren ordainketaren gainean, baldin eta:

a) COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondoriozko finantza-zailtasunak badituzte.

b) Maileguari ez bazaio, jada, ezarri mota hauetako luzamendurik:

1.a. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan (COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena) aurreikusitakoa.

2.a. Maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuan (COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak hartzen dituena nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan) aurreikusitakoa.

3.a. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua (alarma-egoera deklaritzen duena COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko) indarrean jarri ondoren zordunak eta hartzekodunak borondatez adostutakoa. Hala ere, zordunak kapitulu honetan aurreikusitako luzamendua baliatu ahal izango du, zenbaki honetan aipatutako borondatezko luzamenduari alde zuzenetik uko egiten badio.

2. Maileguari 1. apartatuko b) letran aurreikusitako luzamenduetakoren bat aplikatu bazaio hamabi hilabetez baino gutxiagoz, zordunak kapitulu honetan aurreikusitako luzamendua baliatu ahal izango du, hamabi hilabete bete arte.

3. Kapitulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, turismo-jardueratzat joko dira hirugarren xedapen gehigarrian jasotzen diren Ekonomia Jardueren Saillkapen Nazionalako (EJSN) kodeetakoren batean sartuta daudenak.

4. Osasun-larrialdiaren ondorioz finantza-zailtasunak daudela joko da, 1.a) apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, baldin eta 1. apartatuan aipatutako hipoteka-zordunek gutxienez % 40ko murrizketa izan badute 2020ko martxotik maiatzera arteko diru-sarreraren edo fakturazioaren hilabeteko batez bestekoan, 2019ko hil horien batez bestekoarekin alderatuta.

Diru-sarrerak edo fakturazioa murriztu direla egiaztatzeko, hori justifikatzen duen kontabilitate-informazioa aurkeztu beharko da. Horretarako, jaulkitako eta jasotako fakturen erregistro-liburuaren kopia, sarreraren eta gastuen eguneroko liburua, salmenten eta sarreraren erregistro-liburua edo erosketen eta gastuen liburua aurkeztu beharko dira.

Jarduera-bolumena egiaztatzen duten liburua eraman behar ez dituzten langile autonomoek zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez egiaztatu beharko dute murrizketa.

5. Ez da joko osasun-larrialdiaren ondorioz finantza-zailtasunik dagoenik, 1.a) apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kasu hauetan:

a) Luzamenduaren xede den mailegua berandutze-egoeran badago errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den unean, 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko kuotaren bat (osorik edo zati bat) ordaindu gabe utzi zela-eta.

b) Zorduna konkurtsoan deklaratu bada martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua (alarma-egoera deklaratzeko duena COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko) indarrean jarri aurretik.

#### 4. artikulua. *Luzamenduaren aplikazio-eremu objektiboa.*

Kapitulu honetan aurreikusitako neurriak aplikatuko zaizkie Espainiako legearen mendeko mailegu-kontratuei, baldin eta Estatuko lurraldean gauzatzen den turismo-sektoreko jarduera batekin lotutako higiezin baten gaineko hipoteka-bermea badute —jarduera horrek errege lege-dekretu honen hirugarren xedapen gehigarrian jasota egon beharko du—, betiere kontratu horiek martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua (alarma-egoera deklaratzeko duena COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko) indarrean jarri aurretik sinatuta badaude.

#### 5. artikulua. *Luzamendua eskatzea.*

1. Hirugarren artikuluan aipatzen diren hipoteka-zordunek hartzekodunari eskatu ahal izango diote hipoteka-zorraren printzipala ordaintzeko epearen luzamendua, gehienez ere hamabi hilabetekoa.

2. Eskabidea aurkeztu ahal izango da errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik eta Europako Banku Agintaritzak emandako EBA/GL/2020/02 jarraibideen (COVID-19aren krisialdiaren ondorioz maileguen itzulketei aplikatutako legegintzako eta legegintzakoak ez diren luzamenduei buruzkoak) 10. puntuan ezarritako epea amaitu arte, edo epe horren gainean ezar daitezkeen luzapenak amaitu arte, hala badagokio.

3. Hirugarren artikuluan aipatzen diren hipoteka-zordunek honako hauek egiaztatu beharko dituzte luzamendua eskatzen den unean:

- a) Sozietatearen xedea, hala badagokio.
- b) Zerga-egoitza.
- c) Jardueraren EJSN kodea.
- d) Higiezina zuzenean lotuta dagoela bigarren xedapen gehigarrian adierazitako turismo-sektoreko jarduera baten garapenarekin.
- e) 3.4 artikuluan adierazitako informazioa.

#### 6. artikulua. *Luzamendua ematea eta ondorioak.*

1. Hipoteka-zordunak 5. artikuluan ezarritakoa bete ondoren, hartzekodunak luzamendua aplikatuko du, eta berritzea formalizatuko du arau orokorrekin bat etorritik. Hala ere, hasierako epearen luzapena inskribatzeak ondorio guztiak izango ditu inskribatutako bitarteko hartzekodunentzat, nahiz eta hartzekodun horiek ados ez egon. Luzamenduaren ondorioak abal-emaleei ere aplikatuko zaizkie, ez da beharrezkoa izango haiek luzamendua onartzea edo haren aurka egitea, eta haien egoera juridikoa ez da aldatuko.

2. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera mugaeguneratutako eta ordaindu gabeko kuotei aplikatuko zaie luzamendua, eta maileguaren printzipalaren ordainketak zordunak eskatutako epeaz etetea ekarriko du. Kontratuaren gainerako edukia ez da aldatuko, eta mailegu-hartzaileak geroratutako zenbatekoa ordaintzeko modu hauek izango ditu aukeran:

- a) Kuotak birbanatzea muga-eguna aldatu gabe eta aplikatu beharreko interes-tasa aldatu gabe.
- b) Luzamenduak zenbat hilabete irauten duen, horrenbestez atzeratzea muga-eguna.

3. Luzamendua aplikatuko ez balitz zordunari eska lekizkiokeen zenbatekoak ez dira muga-eguneratutzat joko. Luzamendua aplikatzen den bitartean ordainketa geroratzen zaion maileguaren printzipalak maileguan ezarritako interes arruntak sortuko ditu.

4. Kapitulu honetan aurreikusitako luzamendua aplikatzeko aukera aitortzeko, ez da bete beharko Higiezin Kredituko Kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legean xedatutakoa.

5. Hirugarren artikuluan ezarritako pertsona juridikoek ezin izango dituzte irabaziak banatu, kapital-itzulketak egin, akzio propioak berrerosi edo kapitala inola ere ordaindu luzamendua amaitu arte.

## 7. artikulua. *Luzamendua higiezinak errentan ematen direnean.*

1. Turismo-sektoreko jarduera ekonomiko bati lotutako higiezinaren gaineko errentamendu-kontratu bat sinatzen bada, hipoteka-luzamenduaren onuradunak luzamendu bat eman beharko dio errentariari, gutxienez hipoteka-luzamenduaren zenbatekoaren % 70ekoa, errentamenduaren ordainketan, betiere ez bada jada lortu, bi alderdiak ados jarrita, ordainketa geroratzea edo zenbateko osoa edo haren zati bat barkatzea.

2. Hipoteka-zordunak ez baina errentariak 3. artikuluko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako finantza-zailtasunetako bat badu, errentariak hipotekaren luzamendua eskatu ahalko dio errentatzaileari, eta, horretarako, 5. artikuluko 3. apartatuan aipatutako alderdiak egiaztatzeko behar diren dokumentuak emango dizkio. Behin luzamendua emanda, artikuluko honen 1. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

3. Aurreko apartatuetan aurreikusitako kasuetan, 6. artikuluko 5. apartatuan araututakoa (luzamenduaren ondorioak) errentariari aplikatuko zaio, eta ez zordunari.

## 8. artikulua. *Zordunak luzamendua bidegabeki aplikatzearen ondorioak.*

1. Zordunak kapitulu honetan araututako luzamendutik onura ateratzen badu, luzamenduaren aplikazio-eremuan sartu ez arren, eta kalteak eragiten baditu, kalte-ordainen erantzule izango da, bai eta neurriok aplikatzeak sortutako gastu guztien erantzule ere, hargatik eragotzi gabe zordunaren jokabide horrek beste mota bateko erantzukizunak eragitea.

2. Kalte-ordainen eta gastuen zenbatekoa ezin da izan zordunak kapitulu honetan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz bidegabeki eskuratu duen etekina baino txikiagoa.

## 9. artikulua. *Gainbegiratzeko eta zehatzeko araubidea.*

1. Espainiako Bankuak gainbegiraturako erakunde mailegu-emaleek hari bidaliko diote egun baliodun bakoitzean aurreko egun baliodunari buruzko informazio hau:

- a) Zordunek aurkeztutako luzamendu-eskabideen kopurua.
- b) Emandako luzamenduen kopurua.
- c) Ezetsitako luzamendu-eskabideen kopurua.
- d) Luzamenduaren onuradunen kopurua, langile autonomoen eta pertsona juridikoen arabera bereizita.
- e) Luzamendua aplikatu zaien maileguen kopurua.
- f) Amortizatze dagoen saldo bizia, zeinaren ordainketari luzamendua aplikatu zaion.
- g) Zorduna egiten ari zen jardueraren EJSN kodea.
- h) Zordunak luzamendua notario-eskrituran dokumentatzeko eskatzen duen maileguen kopurua.

2. Kreditu Erakundearen Antolamendu, Gainbegiraketa eta Kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 2. artikuluan aipatutako antolamendu- eta diziplina-arautzat hartuko da 3., 4., 5. eta 6. artikuluetan eta artikuluko honen 1. apartatuan aurreikusitakoa.



*Helmugetako Turismo Jasangarritasunerako Planak*10. artikulua. *Helmugetako Turismo Jasangarritasunerako Planak*

1. «Helmugetako Turismo Jasangarritasunerako Planak» izeneko tresna sortu da, Turismoko Estatu Idazkaritzak helmuga turistikoak bultzatzeko, egokitze eta hobetzeko jardueretan inbertitzen lagundu dezan, horien jasangarritasuna handitze aldera.

2. Turismoko Konferentzia Sektorialak Helmugetako Turismo Jasangarritasunerako Planen Programa bat onartuko du.

3. Turismo Jasangarritasunerako Planen Programa gauzatzeko, Turismoko Konferentzia Sektorialak, urtero, toki-erakundeek aurkeztutako turismo-jasangarritasunerako planen proposamenetako batzuk onartuko ditu; hain zuzen ere, programan ezarritako hautaketa-irizpideak hobekien betetzen dituzten proposamenak onartuko ditu, eta plan horietan jasoko da zein helmuga diren jarduketaren xede.

4. Turismoko Estatu Idazkaritzak, autonomia-erkidegoek eta, hala badagokio, lurraldearen arabera eskumena duten toki-erakundeek hitzarmenak sinatuko dituzte, eta hitzarmen horietan zehaztuko da zein diren egin beharreko jarduketak, zenbateko inbertsioa zenbatetsi den, zer epetan gauzatu den eta parte hartzen duten administrazioek finantzatzeko egingo duten ekarpenaren ehunekoa (Turismoko Estatu Idazkaritzaren kasuan, ekarpenak ezingo du gainditu plan bakoitzera bideratutako zenbateko osoaren % 50).

Toki-erakundeek gauzatu dituzte planetan jasotako jarduketak, toki-erakunde horiek kudeatuko dituzte planok, eta, horren barruan, finantzatzeko ekarpenak (aurretik ordainduko dira) administratuko dituzte.

5. Plan bakoitza urtebete irauten duten hainbat betearazpen-fasetan egituratuko da, eta fase horiei aurrekontu bana egokituko zaie. Planaren finantzaketa jarduketaren betearazpenaren arabera dauden benetako premiekin bat etor dadin, Turismoko Estatu Idazkaritzak aipatutako aurrekontuak eskura jarri ahal izateko, beharrezkoa izango da aurrekontu-kreditu nahikoa egotea eta aurreko urteetako kuotak alde aurretik ordaintzea. Hitzarmena sinatzen duten alderdiek alde aurretik egingo dute beren ekarpena, bankukontu finalista batean, eta planaren gerentziak (toki-administrazioaren esku egongo da) ireki eta kudeatuko du kontu hori.

6. Aurreko apartatuetan araututako tresna Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren aurrekontuen kontura finantzatuko da.

*Turismo-sektorearen eraldaketa digitalerako eta berrikuntzarako proiektuak finantzatzeko ezohiko sistema*11. artikulua. *Ezohiko finantzaketa-lerroa.*

1. 2020ko ekitaldiko deialdiaren oinarri arautzaileak ezartzen dira, norgehiagoka-arabidean, eraldaketa digitaleko eta berrikuntzako proiektuak garatzeko finantza-laguntza emateko COVID-19aren ondorioz kalte ekonomikoak izan dituzten turismo-sektoreko enpresa pribatuei eta langile autonomoei. Hona hemen laguntza horren helburua: COVID-19ak eragindako krisialditik atera ondoren turismoa finkatzen laguntzea, sektore horren lehiakortasuna berrindartzea eta enpresak merkatuan birkoka daitezen lortzea, azkarrago eta modu iraunkorragoan susper daitezen; horrela, enpleguari eusten lagunduko zaio krisialdiaren ondoren.

2. Ezohiko finantzaketa-lerro hau Estatuko lurraldeko edozein lekutan egiten diren proiektuei eta jarduketei aplikatuko zaie.

3. Ezohiko sistema hau 2020an ematen diren laguntzei soilik aplikatuko zaie.

4. Deialdian aurreikusitakoaren arabera COVID-19aren krisialdiak eragin diela egiaztatzen duten turismo-enpresen eraldaketa digitalaren eta berrikuntzaren arloko inbertsio-premiei erantzungo die maileguak.

5. Ezohiko finantzaketa-sistema hau honako hauetan babes hartuta ezarri da: «COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko estatuaren laguntzei buruzko Aldi Baterako Esparrua»n (C (2020) 1863), Europako Batzordeak apirilaren 3an egindako esparru horren aldaketan (C (2020) 2215) eta Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak 2020ko martxoaren 26an eta apirilaren 17an hartutako erabaketan (akordio horien bitartez, Europako Batzordeari I. eta II. aldi baterako esparru nazionalak jakinaraztea onartu zen).

12. artikulua. *Onuradunak.*

1. Oinarri hauetan ezarritako finantzaketa jaso ahal izango dute, bai langile autonomoek, bai Espainian legez eraturako eta dagokion erregistroan behar bezala inskribaturako nortasun juridiko propioa duten sozietateek, baldin eta sektore publikokoak ez badira, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3 n) artikuluan definitutakoaren arabera, betiere COVID-19aren agerraldiak kalte ekonomikoak eragin badizkie eta turismo-sektoreko jarduera bat garatzen badute, halakotzat hartuta apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuak onartutako Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN 2009) I. ataleko 55. eta 56. dibisioetan, N ataleko 7711. azpidibisioan eta 79. dibisioan eta R ataleko 93. dibisioan sartzen diren jarduerak.

2. Eskatzaileak turismo-jarduera bat garatzen duela ulertuko da, baldin eta, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez, aurreko atalean aipatutako jardueretako bat garatu badu, nahiz eta ez etorri bat finantzatzeko eskatzen den jarduerarekin.

3. Maileguen eskatzaileek egiaztatu beharko dute eskabidea aurkezten duten unean dituzten funts propioen maila ondare garbi eta pasibo osoaren % 33ren parekoa dela.

4. Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan zehaztutako egoeretakoren batean dauden sozietateak edo langile autonomoak, ez eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura aurretik emandako beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko betebeharra egunean ez dutenak ere. Halaber, enpresek ezin izango dute mailegurik jaso baldin eta berreskuratze-agindu baten zain badaude, Europako Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legearen aurkakoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela adierazi ostean, edo 2019ko abenduaren 31n krisialdian baldin bazeuden, krisialdian dagoen enpresaren definiziotzat hartuta Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduan ezarritakoa.

13. artikulua. *Onuradunen betebeharrak.*

Oro har, honako hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Dirulaguntzak eman izanaren oinarrian dagoen jarduera egitea eta jarrera hori hartzea.

b) Ezarritako epean egiaztatzea jarduera egin dela eta dirulaguntza ematea eragin zuten betekizunak eta baldintzak bete direla.

c) Egiaztapen- eta kontrol-jarduketetan laguntzea, jarduketa horiek egin bitartean eskatzen zaizkien dokumentu guztiak aurkeztuz.

d) Gastu finantzarriekin batera, zati batean edo osorik, beste edozein finantzaketa publiko lortu baldin badute, horren berri ematea Turismoko Estatu Idazkaritzari.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzea, hala egiteko eskatzen zaienean.

f) Merkataritza Erregistroan kontuak aurkezteko betebeharra bete dela egiaztatzea, hala egiteko eskatzen zaienean.

14. artikulua. *Proiektu motak.*

Proiektu-kategoria hauek finantzatu ahal izango dira:

a) Enpresen eraldaketa digitala sustatzen duten proiektuak. Proiektu horiek jarduketa hauetako bat edo batzuk jaso beharko dituzte:

i. Turismo-enpresen oinarria digitalizatzea; horretarako, digitalizazio masiboko tresnak garatuko dira, salmenta errazten duten irtenbide digitalak ezarriko dira, irtenbide digital mugikorrek jarriko dira, eta *big data* edo, oro har, datuen ekonomia aplikatuko dira.

ii. Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea, estrategia digitalak diseinatuz eta ezarri.

iii. Turismo-produktuen eta -zerbitzuen merkataritza elektronikoa garatzea, batik bat *cloud computing* arloko irtenbideak eta mugikortasuna baliatuz.

iv. Marketin digitalarekin, presentziarekin, desberdintzearekin eta lineako ospearekin lotutako estrategiak diseinatzea eta ezartzea.

v. Digitalizazioa, honako hauek baliatuz: teknologia mugikorrek, geoerreferentziarioa, Turismo 2.0, errealitate birtuala eta areagotua, turismo-helmuga adimendunak, *smart destinations* delakoak, domotika eta sentsorizazioa, datuak atzematea eta aztertzea, plataforma sozialak, sare eta zerbitzu elektronikoen segurtasuna, eta dagoeneko abian diren arlo horretako proiektu publikoak edo pribatuak osatzen dituzten jarduera guztiak.

vi. Turismo digitalaren kudeaketa eta sustapena, produktu, merkatu eta turismo-zerbitzu berriei buruzko ikerketa, kanal anitzeko eta irekiko sustapena eta merkaturatzea, informazioaren kudeaketa, bezeroaren pertzepzioa eta ezagutza, kudeaketa-prozesuen optimizazioa, berrikuntza kudeatzeko sistemak, eta dagoeneko abian diren arlo horretako proiektu publikoak edo pribatuak osatzen dituzten jarduera guztiak.

b) Turismo-arloko ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-proiektuak, baldin eta lehendik egindako ikerketak, garapenak edo berrikuntzak aplikatze hutsa ez badakarte:

i. Turismo-produktu, -prozesu edo -zerbitzu berriak garatzeko edo daudenak hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen ezagutza berriak eskuratzeko berrikuntza-proiektuak.

ii. Zientzia-, teknologia- eta enpresa-arloko edo beste arlo batzuetako ezagutzak eta teknikak eskuratzeko eta erabiltzeko garapen-proiektuak, turismo-produktu, -prozesu edo -zerbitzu berriak edo hobetuak egiteko.

iii. Antolaketa-arloko berrikuntza-proiektuak, eta arlo hauei antolaketa-metodo berriak aplikatzeko prozesuak: merkataritza-praktikei, lantokien antolaketari, prozesuei edo turismo-enpresen kanpo-harremani; edo ingurumen-kudeaketako eta -auditoretzako sistemak ezartzeko prozesuak, hala nola EMAS (Eco-Management and Audit Scheme-Ekokudeaketako eta Ekoauditoretzako Erkidegoko Erregelamendua).

Kategoria honetako proiektuek honako hauekin lotutako turismo-sektoreko ezagutza-arloren bati buruzkoak izan beharko dute:

– Energia: energia-kudeaketa, energia berriztagarriak, energia-efizientzia eta energia-kudeaketa eta -kontrola.

– Jasangarritasuna: turismo jasangarria, ura berrerabiltzea, hondakinen kudeaketa eta kontrola (bilketa berezia, erabilera bakarreko produktu eta ontzi gutxiago sortzea, elikagai gutxiago alferrik galtzea), CO<sub>2</sub> isurketen eta karbono-aztarnaren kudeaketa eta kontrola, klima-aldaketara egokitzea eta naturan oinarritutako funtzio anitzeko irtenbideak eta ziurtagiriak.

– Materialak eta eraikuntza: eraikuntza jasangarria, arkitektura bioklimatikoak, lekuak pertsonalizatzea, eraikuntza-material berrien isolamendu termikoa edo akustikoa, eraispen selektiboa, materialak berrerabiltzea edo birziklatzea, ondarea birgaitzea eta berreskuratzea, material berriak (isolamendua, garbiketa, estaldura, dekorazioa, eta abar) eta BIM teknologia txertatzea.

– Klima-aldaketa: klima-aldaketaren ondoriozko arriskuak aztertzea eta egokitzapen-neurriak diseinatzea.

– Humanitateak, gizartea eta zientzia juridikoak: *living labs* delakoak; turistek irisgarritasun-arloan zer premia dituzten jakitea; irisgarritasuna ziurtatzeko metodologiei buruz ikertzea; turismo-balioaren katea erabat irisgarria izatea; helmuga turistikoak neurtzeko adierazleak edo posizionamendu- eta pertsonalizazio-adierazleak garatzea; turismoak ingurunean duen eragina; eta eskaria aurreikusteko ereduak ezartzea, kudeaketa integratua egiteko tokiko eta hurbileko hornitzaile-sareen hornidura-katearekin batera.

– Garraioa eta zerbitzu elkartuak: garraio jasangarria; garraioaren erabiltzaileari eta karbonoa konpentsatzeko programetan duen eginkizunari buruzko ikerketa; isuri gutxiko eremuak; garraioekin integratutako helmugetako planak, produktuei, ibilbideei eta gaikako ibilbideei buruzkoak; eremu edo eskualde turistikoetan jarduteko programa publiko-pribatuak garatzea esperientziazko gaikako ibilbide eta produktuetan oinarrituta; garraioaren eta potentzial turistiko handiko kultura- eta natura-baliabideen lurralde-egituraketa; garraioaren eta turismo-mugikortasunaren gaineko ekintzak, garraioaren ondorioak kanporatzeari buruzko ikerketa, garraioaren ondorioak kanporatzearen barne-ondorioak; garraioaren erabilera-intentsitateari buruzko mapak egitea; informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera-intentsitatea turismo-garraioan eta horrek lankidetzaren harremanen esparruan dituen ondorioak; turismo-arloko IKTen erabiltzaileen orientazioa; helmugetako sareen elkarlana eta lankidetzaren; negozio-eredu eta banaketa-sistema berriak garatzea; hainbat helmugatarako eta gailutarako informazio-irtenbide aurreratuak; turistentzako zerbitzu eta eduki berriak sortzea; eta eskaria aurreikusteko ereduak ezartzea, kudeaketa integratua egiteko hornidura-katearekin batera.

– Irisgarritasuna: turismo-eskaintzaren irisgarritasuna modu estandarizatuan eta eraginkorrean ziurtatzeko aukera emango duen metodologia garatzea; irisgarritasunari buruzko araudi eraginkorrak diseinatzea, turismo-baliabideen erabateko irisgarritasuna lortzeko; turismo-baliabideetan eta -helmugetan hobekuntza teknikoak eta teknologikoak egitea, irisgarriak izateko eta desgaitasuna duten pertsonen premietara egokitzeko; turismo-zerbitzu berritzaileetako langileak prestatzeko programa berriak sortzea; irisgarritasunaren inguruko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa sustatzea Espainiako enpresengan.

#### 15. artikulua. *Gastu finantzarrien kontzeptuak.*

1. Gastu finantzarritzat hartuko dira azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31.1 artikuluan ezarritakoa betetzen dutenak, baldin eta atal hauetan zehaztutako kategorietako batean sartzen badira:

a) Langile-gastuak. Lan-kontratua duten langileen, enpresako bazkide diren langile autonomoen eta ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoen gastuak egotzi ahal izango zaizkio proiektuari, Langile Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legean ezarritakoari jarraituz.

b) Tresna eta material inbentariagarrien kostuak. Tresna eta material inbentariagarri horien amortizazio-gastuak bakarrik onartuko dira, eta dagokion zatiaren eta aurkeztutako proiektua garatzeko behar-beharrezkoa den aldiaren gainean kalkulatuko dira gastu horiek, oro har onartutako kontabilitate-printzipioei jarraituz, betiere emate-ebazpenean ezarritako mugen barruan. Ekipamendu fisikoak CE marka edo egokitasun-adierazpena eta serie-zenbakia izan beharko ditu. Ekipamendu fisikoak identifikatzeko, etiketa bat jarriko da ikusteko moduko leku batean, eta programaren eta organo emailearen izenak adieraziko dira han.

c) Kontratu-ikerketaren, ezagutza teknikoen eta eskumen osoko baldintzetan kanpoko iturrien lizentzia baten bidez eskuratutako edo lortutako patenteen kostuak. Kontzeptu horri egotziko zaizkio proiektutik soilik eratorritako kanpo-lankidetzako gastuak, bai eta IKT zerbitzuak ematearen, hirugarrenek proiektutik eratorritako produktuak edo zerbitzuak diseinatzeke edo berriz diseinatzeke aholkularitza ematearen eta proiektua

gauzaten laguntzen duten patenteak eskuratzearen ondoriozko beste gastu batzuk ere. Berariaz baztertzen da eskatutako finantzaketaren kudeaketarekin eta izapidetzearekin zerikusia duen aholkularitza oro. Hornitzaile berak egiten dituen lanak ezin izango dira zatikatu.

d) Gastu orokor osagarriak. Proiektua garatzean lortutako aktibo ukiezin hauek jabetza industrialaren eta intelektualaren bidez babesteko gastuak: patenteak, erabilgarritasun-ereduak, diseinu industrialak, markak edo beste figura batzuk; proiektuaren jardueratik zuzenean eratorritako materialen, horniduren eta antzeko produktuen kostuak. Kontzeptu horri egotzi ahal izango zaizkio proiektua egiteko erabilitako material inbentariaezinaren gastuak. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira bulegoko materiala eta erakundearen bestelako gastu orokorrak edo arruntak.

2. Gastu-kontzeptuak finantzagarritzat jotzeko, banan-banan zehaztu beharko dira memorian, dagokion deialdian ezarritako ereduari jarraituz, bai eta eskaera egiteko galde-sortan ere. Era berean, dagokion partidari egotzi beharko zaizkio eskaera egiteko galde-sortan, aurreko apartatuan ezarritako definizioaren arabera.

3. Zalantzarik gabe finantzatu beharreko jarduerarekin bat datozen eta, eskabide-memorian aurkeztutako jarduketaren deskribapenaren arabera, behar-beharrezkoak diren kontzeptuak baino ezin izango dira finantzagarritzat jo.

4. Hona hemen gastu finantzagarrien kontzeptuei aplikatu beharreko arauak:

a) Onuradunarekin lotura duten pertsonetikiko edo erakundeetikiko eragiketak egin badira, halakotzat hartuta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 68. artikuluan xedatutakoak, organo kudeatzailearen berariazko baimena duten inbertsioak baino ez dira onartuko, baldin eta merkatuko baldintza normalen arabera egiten badira, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

b) Ezin da finantzaketarik eman enpresak eskuratzeko edo bat-egite korporatiboko beste eragiketa batzuetarako, ez eta erosketa agregatuko edo zerbitzu erkideetako kooperatibak edo elkarteak sortzeko ere.

c) Zeharkako zergak ez dira inola ere gastu finantzagarritzat hartuko, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31.8 artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Gastuaren zenbatekoak 9/2017 Legean kontratu txikirako xedatutako zenbatekoak gainditzen baditu, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu hainbat hornitzailearen eskutik, obrarako konpromisoa hartu edo zerbitzua edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, ezaugarri bereziak dituztela-eta, ez badago merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen dituen behar adina erakunde, edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada. Justifikazioan, edo, hala badagokio, eskabidean aurkeztutako eskaintzen arteko hautua egiteko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraituko zaie, eta proposamen ekonomiko onena hautatzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

e) Ondasun inbentariagarriei dagokienez, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikuluan 4. eta 5. apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da.

f) Ez dira inola ere finantzatuko inbertsioen ordainketa geroratuak edo bestelako arazoiek eragindako finantza-gastuak, lursailetan, lokaletan eta obra zibilean egindako inbertsioak, zerbitzuak emateko azpiegiturak abian jartzearen ondoriozko gastuak, finantza-errentamenduaren bidez finantzatutako inbertsioak, eta proiektua sustatzearen eta hedatzearen ondoriozko gastuak.

g) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29.1 artikuluan zehaztutako moduan ulertutako azpikontratazioei dagokienez, lege horretan ezarritakoari jarraitu beharko zaio.

16. artikulua. *Izapidetzea, emate-araubidea eta finantzaketaren ezaugarriak.*

1. Emate-araubidea norgehiagokaren bidezkoa izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1 artikuluekin bat.

2. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren titularraren aginduz egingo da deialdia. Turismoko Estatu Idazkaritzari dagokio deialdiak egiteko eta laguntzak emateko prozedurak aplikatzeko, izapidetzeko eta ebazteko ebazpenak ematea, beharrezkoa denean, bai eta maileguak ordaintzea eta itzulketak aldatzea eta izapidetzea ere.

3. Errege lege-dekretu honetan eta deialdiaren ebazpenean aurreikusi gabeko guztiari dagokionez, azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta hura garatzeko erregelamenduan ezarritakoa aplikatuko da (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

17. artikulua. *Jarduketak egiteko epea.*

1. 2020ko otsailaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte egindako inbertsioak eta gastuak finantzatu ahal izango dira.

2. 2020ko otsailaren 1a baino lehen hasitako proiektuen kasuan, data horretatik aurrera proiektua bizkortzeko edo haren irismena handitzeko egin beharreko jarduketak bakarrik hartuko dira kontuan; kasu horretan, proiektua bizkortzeko edo haren irismena handitzeko ahaleginen ondoriozko kostu gehigarriak bakarrik jasoko dira finantzaketa-eskabidean.

18. artikulua. *Deialdian ezarritako finantza-laguntzaren guztizko zenbatekoa.*

1. Errege lege-dekretu honen bidez emango den laguntzak mailegu itzulgarriaren forma izango du, gehienez ere 216.000.000 eurokoa izango da guztira, eta Estatuaren 2020rako Aurrekontu Orokorren 20.04.432A.833 programako aurrekontu-aplikazioei egotziko zaie, hargatik eragotzi gabe Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokor Luzatuekin jardutearen ondoriozko egitura eta zenbatekoak.

2. Laguntzak eman ahal izateko, kreditu egokia eta behar adinakoa egon behar da emate-ebazpena ematen den unean.

19. artikulua. *Finantza daitekeen gutxieneko aurrekontua.*

Finantza daitekeen gutxieneko aurrekontua 50.000 euro izango da.

20. artikulua. *Finantzaketa-araubidea.*

1. Errege lege-dekretu honen arabera emandako finantzaketa mailegu itzulgarri gisa emango da beti, eta ezaugarri hauek izango ditu:

a) Maileguaren zenbatekoa: artikulua honen 2., 3. eta 4. apartatuetan ezarritako ehunekoak eta mugak aplikatuz gero lortzen dena.

b) Amortizazio-epea: gehienez ere sei urte, eta hiru urteko gabealdia. Epe horiek laburtu ahal izango dira interesdunak eskabidean hala egiteko adierazten badu.

c) Aplikatu beharreko interes-tasa: interes-tasa aldakorra izango da, eta taula honen arabera ezarriko da:

Onuradun mota	1. urteko interesa (%)	2. eta 3. urteetako interesa (%)	4., 5. eta 6. urteetako interesa (%)
ETEak.	0,1	0,19	0,69
Enpresa handiak.	0,19	0,69	1,69

d) Amortizazio-metodoak sistema honi jarraituko dio: printzipalaren amortizazio-kuotak urtekoak eta zenbateko berekoak izango dira, eta gabealdia amaitutakoan ordaindu beharko dira. Interesak urtean behin likidatuko dira, aldi bakoitzaren amaieran dagokion amortizazio-kuotarekin batera ordainduko dira, eta aldiaren hasieran dagoen kapital biziaren gainean kalkulatuko dira. Printzipala entregatzen den egunetik aurrera sortuko dira

interesak, hau da, Altxor Publikoak onuradunari emandako zenbatekoa transferitzen duen egunetik aurrera.

2. Oinarri hauen arabera eman beharreko finantzaketaren zenbatekoa, gehienez ere, errege lege-dekretu honen 15. artikulua arabera finantzagarritzat jo den proiektuaren aurrekontu osoaren % 75 izango da.

3. Nolanahi ere, finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da izan eskatutako mailegua baino handiagoa, eta muga hauek errespetatuko ditu:

a) Inbertsioaren guztizko finantzaketa publikoa, hots, edozein administrazio edo erakunde publikok emandako baliabide publikoen batura, ezingo da izan errege lege-dekretu honen 6. artikulua arabera finantzagarritzat jo den inbertsio-proiektuaren aurrekontu osoaren % 80 baino handiagoa.

b) Emango den maileguaren zenbatekoa ezingo da izan azken funts propioen halako 5 baino handiagoa; funts horiek egiaztatzeko, eskatzaileak dokumentu publikoa aurkeztu beharko du eskabideak aurkezteko epean.

c) Onuradun bakoitzeko eman beharreko maileguaren zenbateko osoak ez ditu hauek gaindituko:

i. 800.000 euro.

ii. 2019an edo datuak eskuragarri dauden azken urtean onuradunak eragindako urteko soldata-kostuen halako bi (gizarte-kargak eta enpresaren esparruan lan egiten duten baina azpikontrata baten nominan formalki ageri diren langileen kostua barne).

iii. Onuradunak 2019an izandako negozio-bolumen osoaren % 25.

4. Laguntza horiek Estatuko aldi baterako esparruan sartzen diren beste batzuekin metatu ahal izango dira, baldin eta mota bakoitzeko laguntzetarako ezarri diren gehieneko zenbatekoak eta gehieneko intentsitate-atalaseak errespetatzen badira; salbuespena izango dira azpiko mailegu baten printzipal bererako ematen diren berme gisako laguntzak, betiere mailegu horren zenbateko osoak Erkidegoko aldi baterako esparruaren 25. puntuko d letran edo 27. puntuko d letran ezarritako atalaseak gainditzen baditu. Era berean, *de minimis* erregelamenduen aplikazio-eremuan sartzen diren laguntzekin eta Kategorien araberrako Salbuespenen Erregelamendu Orokorren arabera salbuetsitako laguntzekin metatu ahal izango dira, baldin eta aipatutako erregelamenduetan eta aldi baterako esparruan bertan aurreikusitako metatzeari buruzko arauak errespetatzen badira.

## 21. artikulua. *Bermeen araubidea.*

1. Mailegua emateko ebazpena eman aurretik, bermea eratu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da Gordailuen Kutxa Orokorrean, «Kreditu-erakundeek edo elkarren bermerako sozietateek emandako abalak» modalitatean, aipatutako kutxaren araudiaren arabera (161/1997 Errege Dekretua, otsailaren 7koa, Gordailuen Kutxa Orokorren Erregelamendua onartzen duena, eta hura garatzen duen Agindua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioarena, 2000ko urtarrilaren 7koa, abuztuaren 2ko ECO/2120/2002 Aginduaren bidez aldatua) eta hartarako ezarritako betekizunekin bat.

2. Eratu beharreko bermearen zenbateko osoa emandako maileguaren % 20 izango da.

3. Errege lege-dekretu honen 32. artikulua arabera laguntzaren xede den jarduera egin dela egiaztatzen denean eta itzuli beharreko zenbatekoak ordaintzen direnean askatuko dira bermeak. Bermeak ezerezteko araubidea Gordailuen Kutxa Orokorren araudian ezarritakoari lotuko zaio.

4. Bermeen zati bat, dagokiona, konfiskatuko da, baldin eta errege lege-dekretu honetan edo emate-ebazpenean onuradunari ezarritako baldintzetako edozein ez betetzeagatik dagokion itzulketa egiten ez badu, harik eta zenbateko hori itzuli dela egiaztatuta arte. Printzipalaren kuotak ez ordaintzeak ere ekarriko du bermeak konfiskatzea.

22. artikulua. *Laguntzak emateko prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna eta jarraipena egiteaz arduratuko den organoa.*

1. Industria, Merkataritza eta Turismoko ministroak izango du errege lege-dekretu honetan araututako laguntzak ematea erabakitze eskumena, hargatik eragotzi gabe arlo horren gaineko indarreko eskuordetzak.

2. Turismoko Estatu Idazkaritza da laguntzak emateko prozedurak antolatze eta bideratzeko organo eskuduna.

3. Turismoko Estatu Idazkaritza izango da finantzatutako jardueren jarraipena egiteaz arduratuko den organoa.

23. artikulua. *Izapidetze elektronikoa.*

1. Izapidetze elektronikoa nahitaezkoa izango da prozeduraren fase guztietan. Finantza-laguntza hau eskatzen duten proiektuei buruzko eskabideak, komunikazioak eta gainerako dokumentuak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren erregistro elektronikoa aurkeztuko dira (<https://sede.serviciosmin.gob.es/registroelectronico>).

2. Eskatzaileak, eskabidea aurkezteko erabili zuen ziurtagiriaren bidez, Ministerioaren egoitza elektronikora jo ahal izango du (<https://sede.serviciosmin.gob.es>), eta han kontsultatu ahal izango ditu aurkeztutako dokumentuak eta espedientearen izapidetze-egoera. Jakinarazpen elektronikoa urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo dira. Interesdunek modu seguruan identifikatu beharko dute, elektronikoki, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren egoitzan sartzeko, eta ondoren, jakinarazten zaizkien prozedura-egintzak kontsultatu ahal izango dituzte, eta organo jarduleak eskatzen dizkien dokumentu gehigarriak aurkeztu.

3. Ministerioaren egoitza elektronikoa (<https://sede.serviciosmin.gob.es>) argitaratuko dira ebazpen-proposamenak, bai eta ezeste- eta emate-ebazpenak, horien aldaketak eta prozedurako gainerako egintzak ere, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan norgehiagoka-prozedurei buruz xedatutakoaren arabera egindako jakinarazpenen ondorio guztiak izango dituzte.

4. Itzulketa-prozedura bat abian den kasuetan, agerraldi elektronikoa bidezko jakinarazpen-modalitatea erabiliko da prozedura horrekin lotutako jakinarazpenak egiteko, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. Prozeduraren faseetan bete beharreko inprimakiak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako dokumentu elektronikoa egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri, eta nahitaez erabili beharko dira hala dagokionean.

6. Prozeduraren fase batzuetan aukera ematen bada dokumentu jakin batzuen orde z erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko, administrazioa sinplifikatze aldera, adierazpen horiek formatu elektronikoa aurkeztu beharko dira, adierazpen-egileak elektronikoki sinatuta.

7. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 eta 53.1.d) artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eskatzaileek ez dituzte aurkeztu behar izango laguntza emateko eskumena duen organoaren esku dauden dokumentuak. Aitzitik, berriaz adierazi beharko dute eskaera egiteko galde-sortan noiz eta zein administrazio-organotan aurkeztu zituzten dokumentu horiek, eta horretarako, dokumentuak aurkeztean jakinarazi zieten espediente-zenbakia adieraziko dute, betiere ez badira bost urte baino gehiago igaro espediente-zenbaki horrekin loturiko prozedura amaitu zenetik. Eskatzaileak eskaera egiteko galde-sortan adierazitako datuak ministerioak tratatzeko, berriazko baimena eskatuko da, arau hauek betez: abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679(EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen baitu. Dokumentua lortzea ezinezkoa denean edo interesdunak bere datu pertsonalak kontsultatuak izateko baimena eman ez duenean, organo eskudunak eskatzaileari



eskatuko dio dokumentua aurkezteko, edo, bestela, dokumentuan aipatzen diren betekizunak beste bitarteko batzuen bidez egiaztatzeko.

24. artikulua. *Ordezkaritza.*

1. Finantza-laguntza eskatu duten edo haren onuradun diren erakundeak ordezkatzuz dokumentuak elektronikoki sinatzen edo aurkezten dituzten pertsona fisikoek jarduketa bakoitzerako behar den ordezkaritza izan beharko dute, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Finantza-laguntzaren eskabidea sinatzen duenak egiaztatu beharko du eskabidea aurkezten duen unean eskaera egiten duen pertsona juridikoaren izenean eta hura ordezkatzuz jarduteko zuzenbidean behar den adinako ahalordea duela. Betebehar hori betetzen ez bada, eta ez-betetzea zuzentzen ez bada, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ordezkaritza nahikoa egiaztatzeko betebeharretik salbuetsita egongo dira laguntzak eskatzen dituzten erakundeen erregistroan izena emanda dauden erakundeak, baldin eta erregistro horretan egiaztatu bada eskabidea sinatzen duena erakundearen ordezkaria dela. Erregistro hori Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Laguntzen Atarian dago eskuragarri (<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas>).

25. artikulua. *Eskabideak aurkezteko epea.*

1. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Ezarritako epeetik kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

26. artikulua. *Eskaerak formalizatzea eta aurkeztea.*

1. Laguntza-eskabideak Turismoko Estatu Idazkaritzara bidaliko dira, organo hori baita prozedura bideratzeko organo eskuduna, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Laguntzen Atarian (<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas>) bete eta aurkeztu ahal izango dira, han izango baitira beharrezko bitarteko elektronikoak.

2. Eskatzailea pertsona juridikoa bada, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu finantzaketa-eskabidearekin batera:

a) Finantzaketaren eskabide-orri eta galde-sorta elektronikoa: Elektronikoki sinatutako fitxategia. Hura nahitaez bete beharko da Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Laguntzen Atarian (<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas>) eskura dauden bitarteko elektronikoak erabiliz, eta aurkeztu den inbertsiorako beste laguntza batzuk jaso baldin badira aldi berean, horren berri emango da fitxategian.

b) Proiektua deskribatzen duen memoria, deialdian ezarritako egituraren eta edukiaren arabera eta elektronikoki sinatuta. Proiekturako beharrezkoak diren lizentziak eta baimenak izanez gero, memoriari erantsitako dokumentu gisa aurkeztu beharko dira.

c) Eskabidea sinatzen duenak ahalordea duela egiaztatu beharko da, zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz, betiere ahalordea existitzen dela modu fidagarrian jasotzen badu.

d) 2018ko ekitaldiari dagokion sozietateen gaineko zergaren likidazioa, eta 2019koa, baldin eta eskabidea zerga hori likidatzeko epea amaitu ondoren aurkezten bada; eta 2019ko ekitaldiko kontuak ikuskatuta, horretara behartuta badago.

e) Funts propioak egiaztatzeko dokumentu publikoa, dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta. Kapital sozialeko elementuen edo diruzkoak ez diren bazkideen ekarpenen kasuan, aditu independente elkargokide baten tasazioa.

f) 2019ko ekitaldiari dagokion BEZaren hiru hileroko aitortpenak.

g) Honako hau dioten erantzukizunpeko adierazpenak:

– Ez duela zorrik Administrazioarekin, hau da, ez diola laguntzarik edo mailegurik itzuli behar; eta ez duela bete gabeko berreskuratze-agindurik, Europako Batzordeak aurretiaz

hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legearen aurkakoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela adierazi duela-eta.

– Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura lehendik eskuratutako beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko betebeharraren ordainketa egunean duela.

– Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 13.2 artikuluan aipatzen diren debekuen eraginpean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamenduaren 26. eta 27. artikuluetan ezarritakoa betez.

– Estatuko eta Europar Batasuneko araudi aplikagarri guztia beteko duela, batik bat obra-, hornidura eta ingurumen-arloetako eskumenei, kontratazioei eta adjudikazioei dagokienez, eta konpromisoa hartzen duela proiekturako behar diren lizentzia eta baimen guztiak aurkezteko, horiek eskuratzen dituenean.

– Laguntza-eskabidearen xede diren gastuen artean ez dagoela eskatzailearekin lotura duten pertsonetikiko edo erakundeetikiko eragiketarik. Bestela, adierazpen bat egingo da, eta han, lotura hori zein den zehaztuko da eta dena delako eragiketak errege legedekretu honen 15.4.a) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela jasoko da.

– Eskatzailea enpresa-talde batekoa den ala ez. Gainera, enpresa-talde batekoa bada, talde horretako erakundeek ez dutela zorrik dirulaguntzak itzuli behar dituztela-eta.

3. Eskatzaileak langile autonomoak badira, aurreko apartatuko a), b), c), g) eta h) letretan adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte finantzaketa-eskabidearekin batera.

4. Interesdunek Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren erregistro elektronikoa aurkeztuko dituzte finantzaketa-eskabidea eta gainerako dokumentuak, eta, hala badagokio, behar adinako ordezkari-ahalordea duen pertsonaren sinadura elektronikoa ere beharko da. Eskabidea elektronikoki sinatuz bermatuko da harekin batera aurkeztutako dokumentuen kopia digitalizatuak jatorrizkoetikiko leialak direla.

Ordezkaritza mankomunatuaren kasuan, halaber, eskabidearen kopia digitalizatu bat aurkeztu beharko da, ordezkari mankomunatu bakoitzak elektronikoki sinatuta.

5. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/649 (EB) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrearekin bat, eskatzaileak berariaz adierazi beharko du eskabidean baimena ematen diola organo emaileari zuzenean egiazta dezan, ziurtagiri elektronikoen bidez, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela. Baimenik ematen ez badu, ziurtagiri hori aurkeztu beharko du eskabidearekin batera.

6. Aurkeztutako dokumentazioak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, interesdunari 10 egun baliouduneko epea emango zaio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, akatsa zuzendu dezan edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio ezen, hori egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, alde aurretik ebazpena emanda, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Ondorio horietarako, dokumentuak aurkeztu ez izana zuzendutzat joko da, baldin eta egiaztatzen bada aurkeztuko diren dokumentuak eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenagokoak direla; baina ez dira zuzendutzat joko muga-egun hori baino geroagokoak diren dokumentuak aurkezten badira, nahiz eta betekizun hori betetzen dela egiaztatu.

7. Eskatzaileak laguntza-eskabidearen xede diren jarduerak finantzatzeko funts publikoak lortu edo eskatu baditu, horrela adierazi beharko du eskaera egiteko galde-sortan. Gainera, adierazpen hori eguneratu beharko du baldin eta hasieran adierazitakoa instrukzioaren ondoren aldatzen bada.

8. Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egitearen ondorioetarako, eskatzaileek erakundearen ordezkari izandako aldaketen berri eman beharko diete organo jarduleei, aldaketak izan bezain laster. Erakundearen ordezkaria aldatu dela dioen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera egiten diren jakinarazpenetan aplikatuko da aldaketa. Behar bezala egindakotzat joko dira egun horren aurretik espedientearen ageri den ordezkariari zuzendutako jakinarazpenak.

27. artikulua. *Eskabideak ebaluatzeko irizpideak.*

1. Eskabideak onartzeko fasean eskatzaileak emandako informazioa soilik ebaluatuko da. Laguntzak norgehiagoka-araubidearen bidez emateko prozedurak direnez, eta, beraz, ofizios hasitakoak, ez da onartuko eskabidearen borondatezko hobekuntzarik. Hala ere, instrukzio-organoak argibideak eskatu ahal izango ditu eskabidea birformulatzea edo hobetzea ez dakarten eskabidearen alderdiei buruz.

2. Ebaluazioa egiteko, artikulua honetan zehaztutako irizpideei jarraituko zaie. Ebaluazioaren guztizko puntuazioa 0 eta 100 puntu arteko tartean banatuko da. Puntuazio-atalaseak ezartzen baldin badira, horietara iritsi beharko da finantzaketa lortzeko. Ezin izango dira proiektuak finantzatu, baldin eta dagozkien irizpideetan lortu duten puntuazioa ez bada iristen aipatutako atalasetara edo, hala badagokio, irizpide baztertzailera.

3. Eskabide batek baino gehiagok puntuazio bera lortu badute, lehentasuna izango du enpresa bakoitzeko plantillan aldi baterako kontratuen ehunekorik txikiena duen eskatzailearen eskabideak.

4. Honako ebaluazio-irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Proiektu edo onuradun motak COVID-19aren krisialdiak ekarritako erasan-mailara egokitzea (0-10 puntu).

b) Proiektuaren izaera berritzailea (0-30 puntu). Produktu, zerbitzu edo ekoizpenzein antolaketa-metodo berria edo nabarmen hobetua. Irizpide honen barruan, honako hauek hartuko dira kontuan:

1.a. Planteatutako berrikuntzaren azalpena (0-10 puntu).

2.a. Konpondu beharreko arazoaren azalpena (0-10 puntu).

3.a. Merkatuaren egungo egoera eta hobekuntzak, merkatuaren joerekin, lehiarekin eta desberdintze-faktoreekin bat etortzea (0-10 puntu).

c) Proiektuaren Negozio Plana (0-30 puntu). Irizpide hau ebaluatzeko, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

1.a. Helburuak (0-5 puntu).

2.a. Finantzaketa-eskema (0-5 puntu).

3.a. Enpresaren aurrekariak, jarduerak, bazkideak, ibilbidea (0-5 puntu).

4.a. Xede-merkatuari buruzko informazioa (0-3 puntu).

5.a. Eskariaren azterketa (0-2 puntu).

6.a. Lehiakideak aztertzea (0-2 puntu).

7.a. Balizko bezeroak (0-3 puntu).

8.a. Balizko hornitzaileak (0-3 puntu).

9.a. Produktuaren edo zerbitzuaren deskribapena (0-10 puntu).

10.a. Kronograma eta mugarriak (0-2 puntu).

d) Aurreikusitako eragin sozioekonomikoa. Eskualdea dinamizatzeko aukerak. Enplegua sortzea (0-20 puntu). Honako hauek baloratuko dira:

1.a. Arazo komunak konpontzeko gaitasuna (0-5 puntu).

2.a. Sektoriko edo eskualdeko aukera estrategikoa (0-5 puntu).

3.a. Lurraldearen gaineko eragin dinamizatzailea (0-5 puntu).

4.a. I+G arloan enplegua sortzea (0-5 puntu).

5.a. Proiektua autonomia-erkidego desberdinetan garatzea (0-10 puntu).

e) Proiektuaren ekonomia- eta finantza-bideragarritasuna. Eraitzen kontua (0-10 puntu). Honako hauek hartu beharko dira kontuan:

1.a. Proiektuaren guztizko fakturazioaren eta guztizko aurrekontuaren arteko erlazioa.

2.a. Merkatu potentzialaren azterketa.

3.a. Eraitzen kontu justifikatua.

Enpresak zirkulatzailan eta ohiko gaiengatiko ustiapen-marjinan saldo positiborik ez badu, ez da punturik emango 1. eta 3. zenbakietan.

5. Eskabideak ebaluatzeko txostena ebaluazio-batzorde batek egingo du.

28. artikulua. *Ebaluazio Batzordea.*

1. Ebaluazio Batzordeak kide anitzeko organo gisa jardungo du, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluko 3. atalean xedatutakoa beteko du. Honako hauek osatuko dute:

a) Turismoko Estatu Idazkaritzaren Kabineteko (Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa) kide bat; batzordeburu izango da.

b) Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko idazkariordetzak izendatutako kide bat.

c) Turismoko Estatu Idazkaritzaren Turismoaren Garapenerako eta Jasangarritasunerako Zuzendariordetza Nagusiko kide bat.

d) Turismoko Estatu Idazkaritzaren Lankidetzako eta Lehiakortasuneko Zuzendariordetza Nagusiko kide bat.

e) SEGITTUR SAko (Turismo Berrikuntza eta Teknologia Kudeatzeko Estatuko Sozietatea) kide bat, Turismoko Estatu Idazkaritzak izendatua.

f) Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioko Adimen Artifizialaren eta Teknologia Gaitzaile Digitalen Zuzendariordetza Nagusiko kide bat.

g) Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa ordezkatzeko duen kide bat.

Turismoko Estatu Idazkaritzako Turismoaren Garapenerako eta Jasangarritasunerako Zuzendariordetza Nagusiko funtzionario batek idazkari gisa jardungo du, eta hitza eta botoa izango ditu.

2. Instrukzio-organismoak behin betiko ebazpen-proposamena bidaliko dio Turismoko Estatu Idazkaritzari.

3. Dirulaguntzak kudeatzeko, erakunde laguntzaileengana jo ahal izango da. Horiek eskabideak ebaluatu ahal izango dituzte, gastuak kontrolatu eta onuradunengandik horien justifikazioa jaso, bai eta ordainketak egin ere. Erakunde laguntzaileek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluan aurreikusitako eginkizunak bete ahal izango dituzte. Enpresa-erakunde publikoek eta Estatuko merkataritza-sozietateek bakarrik jardun ahal izango dute erakunde laguntzaile gisa, eta horiek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 16.5 artikuluan aurreikusitako moduan hautatuko dira.

29. artikulua. *Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena*

1. Instrukzioa egiteko organo eskudunak ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena egiteko oinarri hartzen diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Ebaluazioa egin ondoren, instrukzio-organismoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 24.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie, hamar egun balioduneko epean komenigarri deritzeten alegazioak egin ditzaten.

Behin-behineko ebazpen-proposamenaren jakinarazpenarekin batera, hamar egun balioduneko epea emango zaie onuradun izateko proposatutako eskatzaileei, horiek, hala

badagokio, eskaera egitean aurkeztutako informazioa eguneratu dezaten, onuradun izateko nahitaez bete beharreko baldintza hauei dagokienez:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, baldin eta interesdunak ez badu berriazko baimenik ematen organoak zuzenean egiazta dezan betebeharrak horiek betetzen direla.

b) Administrazioarekiko zorrik ez izatea laguntzak edo maileguak itzultzea dela-eta, eta berreskuratze-agindurik ere bete gabe ez izatea, Europako Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legearen aurkakoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela adierazi ostean.

c) Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura lehendik eskuratutako beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko betebeharren ordainketa egunean izatea.

d) Ez egotea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan aipatzen diren debeku ezeinen eraginpean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduaren 26. eta 27. artikuluetan ezarritakoa betez.

Aurreko b), c) eta d) paragrafoak eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu ahal izango dira.

3. Interesdunek egindako alegazioak aztertu ondoren, instrukzio-organok behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta ebazpen-proposamen hori onuradun gisa proposatu diren interesdunei jakinaraziko zaie, 10 egun balioduneko epean jakinaraz dezaten proposatutako finantziak onartzen edo baztertzen duten, eta egun horretara arte egindako inbertsioen eta gastuen emaitza eguneratuta aurkez dezaten, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Laguntzen Atarian eskuragarri dagoen Prozedura Gidan adierazten diren jarraibideak eta inprimakia betez (<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas>).

Epe hori igaro eta esanbidezko onarpena jakinarazi ez bada edo egindako inbertsio eta gastuen frogagiriak aurkeztu ez badira, eskatzaileak laguntzari uko egin diola ulertuko da.

4. Prozeduraren edozein unetan, eskatzaileak, hala badagokio, eta horren berri izan bezain laster jakinarazi beharko dio instrukzio-organismoari beste finantzaketa publiko bat lortu duela laguntzaren xede diren jarduerak gauzatzeko.

5. Ebazpena emateko organo eskudunari behin betiko ebazpen-proposamena helarazi ondoren, organo horrek dagokion ebazpena emango du hamabost egun balioduneko epean. Ebazpen hori arrazoitua izango da eta administrazio-bidea amaituko du, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamenduaren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laguntza emateko ebazpenean, laguntza zein eskatzaileari ematen zaion eta gainerako eskabideen berriazko ezespenez gain, ezetsi egin diren beste eskabideen zerrenda ordenatu bat jaso daiteke, non adieraziko den zer eskabide ezetsi den, onuradun izateko oinarri arautzaileetan ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, deialdian finkatutako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu dutelako; zerrenda horretan, deialdian aurreikusitako balioespen-irizpideen arabera eskabide horietako bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko da.

6. Behin-behineko eta behin betiko ebazpen-proposamenak eta laguntza emateko prozeduraren ebazpena Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Laguntzen Atarian argitaratuko dira. Horrez gain, onuradun bakoitzak posta elektronikoz jasoko du argitalpen horien ohartarazpena; horretarako, eskaera-inprimakian adierazitako datuak erabiliko dira.

7. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, deialdia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori igarota ebazpena emateko organo eskudunak ez badu jakinarazpenik egiten, interesdunak legitimatuta egongo dira eskaera ezetsia izan dela ulertzeko.

8. Emandako laguntza Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartzen duen Dirulaguntzen Erregelamenduaren 30. artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. Behin-behineko eta behin betiko ebazpen-proposamenek ez dute inolako eskubiderik sortzen proposatutako onuradunaren alde eta Administrazioaren aurka, harik eta laguntza emateko ebazpena jakinarazten zaion arte.

10. Finantzaketa emateko prozeduraren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka errekurtsioa jarri ahal izango da errege lege-dekretu honen 35. artikuluan adierazitako epeetan eta moduan.

### 30. artikulua. *Ordainketa.*

1. Finantzaketa ordainduko da baldin eta organo kudeatzaileak egiaztatzen badu onuradunak errege lege-dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bai eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 34. artikuluan adierazitakoak ere, besteak beste: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea; Merkataritza Erregistroan kontuak aurkezteko obligazioak betetzea eta sozietateen gaineko zergaren likidazioa egitea; itzultzeko ebazpen baten ondorioz zordun ez izatea; eta aurretik Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako beste edozein maileguren edo aurrerakinen diru-itzulera egunean izatea; bai eta berreskuratze-agindurik ere bete gabe ez izatea, Europako Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legearen aurkakoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela adierazi ostean.

2. Aurreko atalean adierazitako betebeharrak dagokienez, onuraduna zer egoeratan dagoen ezagutzen ez bada, onuradunari errekerimendua egingo zaio, gehienez ere 10 egun balioduneko epean —errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita—, dagozkion ziurtagiriak edo erantzukizunpeko adierazpenak aurkez ditzan, dagozkion arabera. Dokumentu edo adierazpen horiek aurkezten ez baditu edo epez kanpo aurkezten baditu, laguntza kobratzeko eskubidea galduko du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen I. tituluko V. kapituluan eta haren Erregelamenduaren 89. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Errege lege-dekretu honetan araututako laguntza ordainketa bakarrean emango da, eta ordainketa hori justifikazioa aurkeztu aurretik egingo da.

### 31. artikulua. *Emate-ebazpena aldatzea.*

1. Finantzatutako gastuak emate-ebazpenean zehaztutako epean eta moduan gauzatu beharko dira. Hala ere, zenbait egoera zehatz gertatzen badira, eta egoera horiek, behar bezala justifikaturik, laguntza emateko ebazpenean jasotako baldintza teknikoak edo ekonomikoak aldatzen badituzte, onuradunak dirulaguntza emateko ebazpen hori aldatzea eskatu ahalko du, betiere aldaketa horrek ez badie eragiten emandako laguntzarekin lortu nahi diren helburuei eta funtsezko alderdiei, eta ez badie kalterik egiten hirugarrenen eskubideei.

2. Baldintza tekniko edo ekonomikoak aldatu dituzten inguruabar horiek honako hauek izan daitezke:

a) Eskabidea egitean aurreikusi ezineko eta lehenago ere ezin aurreikusteko moduko bat-bateko kausen ondoriozko aldaketak izatea; nahiz eta, proiektua egitean edo zehaztaperen teknikoak idaztean, jardunbide profesional egokiaren arabera eskatzen den ardura osoaz jokatu den.

b) Laguntza esleitu ondoren identifikatutako edo onartutako osasun-, ingurumen-, hirigintza-, segurtasun- edo irisgarritasun-arloko zehaztaperen teknikoetara egokitu behar izatea jarduera.

c) Jarduketa edo proiektua hasieran definitutako baldintzetan gauzatzeko ezinezko egiten duen ezinbesteko arrazoia.

3. Edozein aldaketa egiteko, interesdunak eskaera egin beharko du alde aurretik. Eskabideak aurkezteko epea amaituko da inbertsioa gauzatzeko hasieran aurreikusitako epea amaitu baino hamabost egun baliodun lehenago, eta epe hori dirulaguntza emateko ebazpena eman zuen organoak berriaz onartu beharko du, eta interesdunari jakinarazi.

4. Laguntzak emateko ebazpenak ezingo dira aldatu baldin eta baldintza tekniko edo ekonomikoetan aldaketa hauek gertatzen badira:

- a) Proiektuak gauzatzeko epea luzatzen bada.
- b) Hasierako ebaluazioa gainditu ez duten edo onuraduna zehazteko eragina izan duten baldintzak onartzen badira. Hala ere, sozietateen bat egitearekin, xurgatzearekin eta zatiketarekin lotutako aldaketak alegatu ahal izateko, neurriren batean proiektuaren betearazpena babestu dela bermatu beharko da.
- c) Jardueraren aurrekontu finantzarria gutxienez 34. artikuluan ezarritako ehunekoan edo gehiagoan murrizten bada; kasu horretan, ulertuko da laguntza emateko xede izan ziren helburuak erabat bete gabe utzi direla.
- d) Baldintza berriak izateko baimena ematen bazaie espedientei, noiz eta espediente horien maileguk organo kudeatzaile honi egin beharreko ordainketak egunean ez dituzten, eta Merkataritza Erregistroan kontuak aurkezteko edo sozietateen gaineko zerga likidatzeko betebeharrak bete gabe dituzten.

5. Aurrekontu finantzarriaren elementuen orde, kategoria hauen barruan funtzionaltasun baliokidea duten beste batzuk erabili ahal izateko, ez da emate-ebazpena aldatzeko eskabiderik egin beharko, betiere ondoren zehazten diren baldintzak betetzen badira:

1.a Kanpoko lankidetzen kasuan, hasieran aurreikusitako kolaboratzailearen orde beste bat jarri ahal izango da, betiere lankidetzak-jarduerak jatorrizko berak badira eta kolaboratzaile berriak jarduera horiei ekiteko gaitasuna badu.

2.a Kasu guztietan, aintzat hartutako gastu-kategorian finantzatu daitezkeen zenbatekoa eta emate-ebazpenean jasotako zenbatekoa berdinak izan beharko dira. Gainera, egindako ordezkapenak justifikatu egin beharko dira, hurrengo artikuluan eskatzen diren frogagiriaren bidez.

6. Laguntzaren ordainketa emate-ebazpena aldatu aurretik egiten bada, eta, aldaketa horren ondorioz, soberakina izaten bada onartutako laguntzan, 10. artikuluan ezarritako mugei jarraikiz, berehala hasiko da aurrez egindako ordainketa itzultzeko prozedura, eta horrekin batera, ordainketa egiten denetik itzulketa egitea adosten den egunera arte sortutako berandutze-interesak ere itzuli beharko dira, soberakin horren zenbatekoa oinarri hartuta.

32. artikulua. *Jarduketak egin izanaren justifikazioa, jarraipena eta kontrola.*

1. Onuradunak oinarri hauen esparruan finantzatutako jardueren frogagiriak aurkeztu beharko ditu jarduketa amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan, laguntza emateko ebazpenaren eta aldaketak egiteko egon daitezkeen hurrengo ebazpenen arabera.

Ezarritako epean ez bazaio frogagiririk aurkeztu organo eskudunari, organo horrek onuradunari eskatuko dio hamabost egun baliouduneko epe luzaezinean aurkez ditzala frogagiriok, eta ohartaraziko dio horiek aurkeztu ezean, laguntza itzultzea eskatuko zaiola, bai eta azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritako gainerako erantzukizunak betetzea ere.

2. Finantzatutako jarduketak egin direla justifikatzeko, Dirulaguntzen Erregelamenduaren II. tituluko II. kapituluan ezarritakoari jarraituko zaio; Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua izan da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen I. tituluko IV. kapituluarekin bat eginez.

3. Finantzatutako jarduketak egin direla justifikatzeko, justifikazioko kontuaren modalitatea hartuko da oinarri, eta, hortaz, gastu-frogagiriak eta ordainketa-frogagiriak aurkeztuko dira.

4. Proiektuko jarduerak egin izana justifikatzeko frogagiri guztiak elektronikoki eta sinadura elektronikorekin aurkeztu beharko dira, uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan ezarritakoaren arabera (agindu horren bidez, dirulaguntzen justifikazioan baliabide elektronikoki, informatikoki eta telematikoki erabiltzea arautzen da).

Frogagiriak elektronikoki aurkezten direnean, honako hauek ere aurkezten direla ulertuko da: batetik, hasierako aurkezpena, lehen aipatutako epearen barruan; eta, bestetik, organo kudeatzaileak onuradunei eskatzen dizkien zuzenketak.

Agiriak elektronikoki aurkeztu arren, onuradunek gastuen eta ordainketen, auditoria-txostenen eta abarren jatorrizko frogagiriak gorde beharko dituzte, badaezpada ere, jarraipena egiteko ardura duen organo kudeatzaileak edo, legez aurreikusitako kontrol-jarduerak egitean, Estatuko Administrazioako Kontu Hartzailatza Nagusiak edo Kontuen Auzitegiak geroago eskatu baitieziaiekete.

5. Dagokion egiaztapen tekniko-ekonomikoa egin ondoren, jarraipena egiteko organo arduradunak ziurtagiri bat emango du, finantzaketa ematea justifikatu zuten helburuak bete direla egiaztatzeko. Ziurtagiri horrek, hala badagokio, itzulketa bidezkoa dela zehaztuko du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

6. Onuradunak men egin beharko du finantzatutako jarduketan jarraipena egiteko ardura duen organo kudeatzaileak egin beharreko egiaztapenen aurrean, bai eta Estatuko Administrazioako Kontu Hartzailatza Nagusiaren finantza-kontrolaren eta Kontu Auzitegiaren kontrol fiskalizatzailearen eta aplikagarri den beste edozein araudiren aurrean ere.

33. artikulua. *Ez-betetzeak, itzulketak eta zehapenak.*

1. Oinarri hauetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako baldintzak eta, hala badagokio, emate-ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, laguntza kobratzeko eskubidea galduko da; edo, hala badagokio, eta dagokion itzulketa-prozeduraren ondoren, ez-betetzea atzematen bada, jasotako laguntza itzuli beharko da, dagozkion berandutze-interesekin batera. Hori hala beteko da Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 77. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

2. Dirulaguntza osorik itzultzeko arrazoi izango dira honako hauek:

a) Dirulaguntza lortzea hura eskuratzeko eskatzen diren baldintzak gezurtatuz edo ematea galaraziko luketen baldintzak ezkutatuz.

b) Ez betetzea, oso-osorik, dirulaguntza emateko oinarrian dagoen ez helburua, ez jarduera, ez proiektua.

c) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea edo nahikoa ez justifikatzea, errege lege-dekretu honen 32. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

d) Ez betetzea publizitate-neurriak hartzeko betebeharra, kapitulu honetan jaso den moduan.

e) Ez ordaintzea, elkarren segidako bi alditan, printzipala edo zor diren interesak amortizatzeke ondoz ondoko bi kuota.

f) Enpresa onuradunaren bazkideek deskapitalizazioak egitea edo ekarpenen gainean murrizketak egitea, mailegua ordaintzen den urteari dagozkion ekitaldietan eta hurrengo bietan, eta horren ondorioz, emandako maileguaren baldintzak bete gabe uztea, errege lege-dekretu honen 20. artikuluan ezarritako mugei dagozkionez; kasu horretan, emandako maileguaren soberakina itzultzeko eskatuko da aipatutako finantzaketa-mugak betetzeko.

g) Jarkitzea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea honako hauei: finantziarioa emateko ebazpena ematen den unetik administrazioak espedientea ixten duen arte kudeaketa-zentroak egin ditzakeen bitarteko egiaztapen-jarduketei; errege lege-dekretu honetan zehaztutako egiaztapen-jarduketei; eta Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren VI. tituluaren aurreikusitako finantza-kontrolaren jarduketei. Era berean, itzulketa egiteko arrazoi izango da, baita ere, ez betetzea kontabilitate- eta erregistro-arloko edo dokumentuak kontserbatzeko betebeharrak, baldin eta horien ondorioz, egoera hauek sortzen badira: ezin egiaztatzen ahal izatea jasotako funtsak zertan erabili diren, helburua bete ote den, finantzatutako jarduketak zer nolatan dauden eta zer nolako erregulartasuna duten, edo beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutik datozen helburu bereko laguntzak, diru-sarrerak eta baliabideak batzen ote diren —izan Estatukoak, izan Europar Batasunekoak edo izan nazioartekoak—.



h) Ez betetzea Administrazioak onuradunei ezarritako betebeharrak, ezta laguntza ematearen ondorioz onuradunek hartutako konpromisoak ere, betiere helburuak lortzeko, jardura egiteko, proiektua gauzatzeko edo laguntza eman izanaren oinarrian dagoen jarrera hartzeko moduari eragiten badiote edo horri buruzkoak badira betebehar edota konpromiso horiek.

i) Itzultzeko beharra sortzen duen erabaki bat hartzea, Europar Batasunaren Itunaren 87. artikulutik 89. artikulura arte ezarritakoari jarraikiz.

j) Laguntzaren araudi erregulatzailan aurreikusitako gainerako kasuak.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta Aurrekontuen Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

4. Dirua itzultzeko prozedura hasteko erabakiak honako hauek adierazi beharko ditu: prozedura hasteko arrazoa, bete ez diren betebeharrak eta eragindako laguntzaren zenbatekoa.

Itzultzeko prozedura hasteko jakinarazpena jaso ondoren, interesdunak egokitzen dituen alegazioak eta agiriak aurkeztu ahal izango ditu, hamabost egun balioduneko epean.

Organo emaileak izango du espedientea ebazteko ardura, eta ebazpen hori interesdunari jakinarazi beharko dio gehienez ere hamabi hilabeteko epean, hasteko erabakia hartzen den egunetik zenbatzen hasita. Ebazpenean honako hauek adieraziko dira: itzultzeko obligazioa duen pertsona nor den, zer betebehar ez diren bete, artikulua honen bigarren apartatuan aurreikusitakoen arteko prozedura-arrazoa zein den, eta itzuli beharreko zenbatekoa zein den, berandutze-interesekin batera.

5. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra garatzen duen Erregelamenduaren 90. artikulua araberak, borondatezko itzulketa dela esaten da onuradunak hala egiten duenean, Administrazioak alde aurretik eskatu gabe.

Dagokion diru-sarrera egin ahal izateko, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1996ko otsailaren 1eko Agindua —Estatuaren gastua exekutatzeko orduan bete beharreko kontabilitate-eragiketarako jarraibidea onartzen duena— aldatzen duen martxoaren 4ko HAP/336/2014 Agindua ezarritakoa aplikatuko da; martxoaren 4ko HAP/336/2014 Agindu horrek Estatuko Administrazio Orokorren arloko zenbait kontabilitate-jarraibide aldatzen ditu.

Interesdunak borondatezko itzulketa egin nahi duela eta itzulketa horren zenbatekoa jakinarazi beharko dio laguntza ematen duen zerbitzu kudeatzaileari, eta dagokion 069 sarrera-agiria jaso arte itxaron beharko du ordainketa egin ahal izateko.

#### 34. artikulua. *Balitzko ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak.*

1. Guztiz bete gabe uzten badira laguntza ematearen helburuak, hau da, gastu finantzarriak ez badira gauzatzen edo justifikazioa aurkezteko obligazioa ez bada betetzen, itzuli egin beharko da aurreratutako ordainketa, bai eta ordainketa egiten denetik itzulketa erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak ere.

2. Onuradunaren betetze-maila erabateko betetze-mailara nabarmen hurbiltzen denean, eta onuradunak egiaztatzen badu zalantzarik gabeko jardura izan duela bere konpromisoak eta laguntza emateko baldintzak betetzeko, irizpide hau hartuko da kontuan:

Partzialki bete gabe uzten badira, bai laguntza ematearen helburuak, bai inbertsio finantzarria, bai justifikatzeko betebeharra, itzuli egin beharko dira aurreratutako ordainketa eta berandutze-interesak, egin edo justifikatu gabeko inbertsioari dagokion ehunekoan.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, erabateko ez-betetzea dela ulertuko da gastu finantzarriaren ehuneko 60tik beherako betetze maila, eta guztizkoa ia erabat bete dela ulertuko da gutxienez ehuneko 60 edo gehiago betetzen denean.

Ehuneko hori kalkulatzeko, egin gabeko gastuak honako hauek direla esango da: agiri bidez egiaztatu ez direnak, kontzeptu ez finantzarriak egiaztatzen dituztenak, emate-ebazpeneko partiden banakapena errespetatzen ez dutenak, eta fakturatu eta/edo ordaindu gabeko gastuak.

4. Nolanahi ere, erabateko ez-betetzea dela ulertuko da honako hauek gertatzen badira:

- a) Onuradunak emandako eta laguntza emateko oinarritzat hartutako datuak faltsutzea, datu horiek zehaztugabeak izatea edo isilean gordetzea.
- b) Laguntza zertarako eman zen, helburu hori ez betetzea.
- c) Finantzatutako jarduera garatu ahal izateko legeriak eskatzen dituen erregistro ofizialetan izena emanda ez egotea.

35. artikulua. *Errekurtsoak.*

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, errege lege-dekretu honetan araututako prozeduraren ebazpenek administrazio-bidea amaitzen dute, eta ebazpen horien aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Aurrekoari kalterik egin gabe, ebazpen horien aurka errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpenak jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2. Berraztertze errekurtsoak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioan aurkeztu beharko dira, Ministerio horren erregistro elektronikoaren bidez.

36. artikulua. *Publizitatea.*

1. Onartutako inbertsioak edozein hedabidetan aipatzen diren guztietan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak finantzatu dituela ere aipatu beharko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Obligazio hori ez betetzea arau-hauste arintzat joko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 56.c) artikuluari jarraikiz, eta isun finko batekin zehatuko da, lege beraren 59. artikuluan aurreikusten diren baldintzen arabera.

37. artikulua. *Gastu publikoa ez handitzea ebaluazio-batzordearen funtzionamenduan eta aplikatu beharreko araudian.*

1. Ebaluazio-batzordea 28. artikuluan zehazten da, eta hura bere barruan hartzen duen organoari esleitutako giza baliabideak, baliabide teknikoak eta aurrekontu-baliabideak erabiliko dira haren funtzionamendurako.

2. Errege lege-dekretu honetan eta deialdiari dagokion ebazpenean aurreikusi ez den guztirako, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua); bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra; azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretuaren bidez onartutako ekainaren 22ko 11/2007 Legea partzialki garatzen duen Erregelamendua; eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

3. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, errege lege-dekretu honen babesean ematen diren maileguez horiei buruzko berriarazko araudia beteko dute, eta, horrelakorik ezean, aipatutako legean eragiketa horien inguruabarretarako egokiak diren aginduak beteko dituzte.

*2020an Espainiako ibilgailu-parkea berritzeko programa (Renove Plana 2000)*

38. artikulua. *Xedea eta aplikazio-eremua.*

1. «2020an Espainiako ibilgailu-parkea berritzeko programa (RENOVE PLANA 2020)» delakoari dirulaguntza gisa zuzeneko laguntza emateko prozedura arautzen da 38. artikulutik 52. artikulura arte. Programa horren helburua da erabilgarri dauden teknologia

onenak dituzten ibilgailuak eskuratzea sustatzea Espainian, ibilgailu zaharren ordez modelo garbiagoak eta seguruagoak erabili ahal izateko, eta, aldi berean, ingurumen- eta gizarte-irizpideak txertatzeko.

2. Hortaz, errege lege-dekretu honetan aipatzen diren dirulaguntzak emateko, Espainian eskuratu beharko dira II. eranskinean zehaztutako kategorietan aipatzen diren ibilgailuak.

3. Laguntzen xedea izango da ibilgailu berri bat eskuratzea, bai zuzenean, bai finantza-leasing bidezko zein errentamendu-renting bidezko (leasing operatiboa ere deitzen zaio) finantzaketa-eragiketen bidez. Ibilgailu hori Espainian eskuratu eta matrikulatu beharko da, 2020ko ekainaren 15etik aurrerako datarekin (egun hori barne).

4. Era berean, laguntza horien xedea ibilgailu erdiberri bat zuzenean eta egun horretatik aurrera eskuratzea ere izango da; kasu horretan, ibilgailu horren titularra kontzesionario bat izan beharko da, eta Espainian matrikulatuta izan beharko da haren izenean, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako datarekin.

5. Diruz lagundu daitezkeen ibilgailuen tipologia, aurrekontuaren banaketa, laguntzen zenbatekoa, eskabideen formalizazioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko datuak II. eranskinean jaso dira.

#### 39. artikulua. *Dirulaguntzen ezaugarriak, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna.*

1. Dirulaguntzak emateko, ezarritako baldintza guztietako bakoitza bete beharko dute eskabideek. Gainera, eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera emango dira dirulaguntzak, eskuragarri dagoen aurrekontua agortu arte, edo bestela, programaren indarraldiaren berreste-datara iritsi arte (data hori 42. artikuluan zehazten da).

2. Dirulaguntzak behin bakarrik emango dira, eta ezin izango dira bikoiztu ibilgailu bera behin eta berriz eskualdatuz gero.

3. Dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango helburu bererako indarrekoak diren beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta horiek Estatuko Administrazio Orokorraren edo haren erakunde publiko edo pribatuaren eskutik eman badira. Era berean, autonomia-erkidegoek kudeatzen dituzten dirulaguntzekin edo laguntzekin ere ez dira bateragarriak izango, baldin eta funts edo baliabide horiek Estatuko Administrazio Orokorretik badatoz.

4. Eskatzailea enpresa bat bada, dirulaguntza horiek Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako betekizun eta mugen mende egongo dira [erregelamendu horretan (2013ko abenduaren 24ko EBAO, L 352) lantzen da Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua «de minimis» laguntzei aplikatzearekin loturikoa]; horrez gain, RENOVE PLANA 2020 indarrean dagoen bitartean aplika daitekeen eta onar daitekeen beste edozein xedapenen mende ere egongo dira dirulaguntza horiek, beti ere erregelamendu horretan ezarritako laguntza-mugak gainditzea eragozten duten metatze-arauak errespetatuz.

Ondorio horietarako, aurreko bi ekitaldi fiskaletan zehar eta indarrean dagoen ekitaldi fiskalean zehar jasotako «de minimis» laguntzen gaineko erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek, dagokion laguntza-eskabidearen galdetegian xedatutakoaren arabera.

#### 40. artikulua. *Onuradunak.*

1. Honako hauek izan daitezke RENOVE PLANA 2020 delakoan aurreikusitako dirulaguntzen onuradunak:

a) Profesional autonomoak.  
b) Espainian bizi diren eta a) apartatuan sartuta ez dauden pertsona fisiko adinez nagusiak.

c) Enpresa pribatuak, baldin eta eskabidea aurkezteko unean Espainian establezimendu bat legez eratuta badute; eta beste pertsona juridiko mota batzuk, baldin

eta haien identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) A, B, C, D, E, F, G, J, N, R edo W hizkietatik hasten bada.

2. Ezin izango dira ibilgailuak eskuratzeko programa honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izan jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 615.1 edo 654.1 epigrafea duten kontzesionarioak edo salmenta-puntuak. Eskatzaileak hainbat jarduera ekonomiko lantzen baditu, eta jarduera horien artean aurretik aipatu direnen arteko bat badago, erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko du eskaera-galdesortan, eta adierazi beharko du laguntza-eskaeraren xede diren ibilgailuak ez direla erabiliko baztertutako jardueren arteko batean ere.

3. Dirulaguntza ematen den unean, eskatzaileak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Era berean, ez du bete gabeko inolako betebeharririk izango Estatuko Administrazio Orokorrarekiko eta haren mendeko edo hari lotutako organismo eta erakunde publikoekiko laguntzak itzultzeko. Gainera, onuraduna ezingo da egon berreskuratzeko-agindu baten zain, Europako Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legearen aurkakoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela adierazi ostean.

4. Ezingo dira programa honetan zehaztutako dirulaguntzen onuradun izan krisialdi-egoeran dauden enpresak, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. apartatuan egoera horri buruz jasotzen den definizioaren arabera; erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria batzuk barnermerkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Hori egiaztatzeko, dirulaguntzaren eskabideko galdesortan erantzukizunpeko adierazpena egingo da.

5. Ibilgailuak zuzenean edo finantza-leasing bidezko finantzaketa-eragiketen bidez eskuratzen direnean eta errege lege-dekretu honen ondorioetarako, onuraduntzat hartuko da Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistro Ofizialean erregistratutako matrikulazioaren titularra.

Ibilgailuak renting bidezko errentamenduaren finantzaketa-eragiketen bidez eskuratzen direnean, renting enpresari egingo zaio ordainketa; hala ere, laguntzaren azken hartzailea errentaria izango da.

#### 41. artikulua. *Dirulaguntzen emate-araubidea, finantzaketa eta zenbatekoa.*

1. Dirulaguntza horiek zuzenean emango dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. eta 28. artikuluen eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren I. tituluko III. kapituluaren arabera. Izan ere, interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoiak direla-eta ezin da norgehiagoka sustatu.

2. Dirulaguntzen finantzaketa 250.000.000 euroko aurrekontuaren kargura egingo da, eta aurrekontu hori honako hauen eskutik ezarriko da: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Nagusia.

Eman beharreko laguntzen aurrekontu osoa eta laguntzen zenbatekoaren araubidea antolatzeko, II. eranskinean aurreikusten diren moduari eta araei jarraituko zaie.

3. Programa hau gauzatzeko hornitutako aurrekontu erabilgarria agortu dela esango da programa horri dagokion zenbateko osoa amaitzen duen azken laguntza-eskaera egiten denean.

Une horretatik aurrera, laguntza-eskatzaileek eskabideak aurkezten jarraitu ahal izango dute dagokien aplikazio informatikoan. Eskabide horiek itxarote-zerrenda batean sartuko dira, eta aurkezten diren hurrenkeraren arabera erantzungo zaie, hertsiki, betiere kontuan izanik aurreko eskabideen artean balio gabetzerik izan ote den, eta ondorioz, aurrekonturik askatu ote den. Eskaerak aurkezten jarraitzeko aukera behin betiko amaituko da programaren indarraldiarekin batera. Aurkeztutako eta apartatu honetan adierazten den itxaron-zerrendan jasotako eskabideak ez du inola ere dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik sortuko.

42. artikulua. *Programaren indarraldia eta eskabideak aurkezteko epeak.*

1. Programak 2020ko ekainaren 15etik aurrera izango ditu ondorioak, eta 2020ko abenduaren 31n amaituko da; edo bestela, errege lege-dekretu honen II. eranskinaren 2. artikuluan ezarritako zenbateko erabilgarriak agortzen direnean amaituko da, baldin eta horiek lehenago agortzen badira.

2. Laguntza-eskabideak aurkezteko epea izango da Programako laguntzak kudeatzeko sistema telematikoa aktibatzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra artekoa, biak barne; eta errege lege-dekretu honen II. eranskinaren 2. artikuluan ezarritako aurrekontuak lehenago agortuz gero, aurrekontu horiek agortu artekoa izango da epea.

3. Laguntzak kudeatzeko sistema telematikoa aktibatzeko data eta ordua behar bezala jakinaraziko dira RENOVE PLANA 2020ko atariaren bidez.

43. artikulua. *Dirulaguntzak emateko prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak eta dirulaguntzen jarraipena egiteko organo arduraduna.*

1. Emate-prozedurak antolatu eta bideratzeko organo eskuduna Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Nagusia izango da.

2. Laguntzak emateko prozedura ebazteko organo eskuduna Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren titularra izango da, arlo horretan dauden eskuordetzeei kalterik egin gabe.

3. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 88.3 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Nagusia izango da laguntzen jarraipena egiteko organo arduraduna.

44. artikulua. *Laguntzen kudeaketa.*

1. Dirulaguntzak kudeatzeko, erakunde laguntzaile batek edo batzuek esku hartu ahalgo dute. Erakunde horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. eta 15. artikuluetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete eta bertan ezarritako eginkizunak gauzatu beharko dituzte, eta haiek hautatzeko, lege horren 16. artikuluan xedatutakoa beteko da. Erakunde laguntzailea hautatuz gero, enpresa-erakunde publikoek eta Estatuko merkataritza-sozietateek baino ezingo dute jardun erakunde laguntzaile gisa.

2. Laguntzak kudeaketa-sistema elektronikoa baten bidez kudeatuko dira, eta kudeaketa-sistema horrek bi arau hauetan eskatutako bermeak izango ditu: Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea eta Administrazio Elektronikoa arautzen duen gainerako araudia.

3. Erakunde laguntzailea hautatuz gero, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, erakunde laguntzaile horrek ekonomia- eta finantza-kaudimena duela egiaztatu beharko du; horretarako, egiaztatu beharko du azken bi ekitaldietako urteko kontu ikuskatuak aurkeztu dituela Merkataritza Erregistroan edo, erakundearen izaera juridikoaren arabera dagokion erregistroan.

Kaudimen teknika eta kudeaketaren eraginkortasuna bitarteko hauen bidez egiaztatuko dira:

a) Azken hiru urteetan egindako lanik garrantzizkoenen zerrenda, baldin eta lankidetzaren xede den arloan izandako esperientzia egiaztatzeko balio badezakete; bereziki, administrazio eta erakunde publikoekin eta laguntza publikoen kudeaketarekin zerikusia duten lanak jasoko dira.

b) Lankidetzaren xedea gauzatzeko arduradunen titulazio akademikoak eta profesionalak, bai eta, hala badagokio, ezarri beharreko sistemaren edo ereduaren alderdi teknikoaren arduradunarenak ere.

c) Lankidetzaren xedea eraginkortasunez gauzatzeko eskura dauden bitarteko teknikoaren deklarazioa.

45. artikulua. *Eskabideak formalizatzea eta aurkeztea.*

1. Eskabideak eta frogagiri osagarriak sinadura elektronikoa aurreratuaren bidez aurkeztuko dira, horretarako garatuko den aplikazio informatikoan. Eskabideak aztertzean, horiek aurkeztu diren hurrenkera jarraituko da hertsiki, II. eranskinean adierazitako epearen arabera.

Eskatzailea pertsona fisikoa bada, salmenta-puntuetan aurkitu ahal izango ditu laguntza-eskabidea izapidetzeko behar dituen bitarteko elektronikoak. Horretarako, sinadura elektronikoa aurreratuaren ziurtagiria izan beharko du. Era berean, interesdunak ordezkari bat izendatu ahal izango du eskabidea egiteko eta dokumentazioa kudeatzeko, eta ordezkari horrek horiek egiteko baimena izan beharko du.

2. Laguntza-eskabideak egiteko, aplikazio informatikoan eskuragarri dagoen inprimakia beteko da, II. eranskinean aurreikusitako prozedura-arauen arabera.

46. artikulua. *Laguntzen ebazpena eta ordainketa.*

1. Behin eskatzaileak eskabide osoa eta kudeaketa-sistema elektronikoa eskatzen diren frogagiri guztiak erregistratuta, dirulaguntza emateko baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko da.

2. Dirulaguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, eskabidea baliozkotuko da.

3. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren titularrak aurkeztu diren eskabideei buruzko ebazpena emango du, 43.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Ebazpena emateko eta interesdunari jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskaera osoa formalizatzen den eta frogagiri guztiak aurkezten diren egunetik aurrera. Ebazpena ez bada ematen eta jakinarazten horretarako ezarritako epean, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

4. Laguntza emateko ebazpena eman ondoren, agindutako laguntza ordainduko zaio onuradunari, eta laguntza horren zenbatekoak bat etorri beharko du eskabidean adierazitakoarekin. Ordainketa transferentzia bidez egingo da onuradunak adierazitako eta Altzor Publikoak hala aintzatetsitako banku-kontu batera.

5. Onuradun bakoitzari emango zaio laguntza emateko ebazpenen berri. Jakinarazpena erabili beharrean komunikazio elektronikoa erabiliko dira prozedurazko egintzen berri emateko, eta komunikazio elektronikoa horiek dagozkion ondorio guztiak izango dituzte. Onuradunak ohartarazpena jasoko du, jaso duela frogatzeko moduko edozer bitartekoren bidez, non adieraziko zaion emate-ebazpena Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren webgunean argitaratu dela ([www.mincotur.gob.es](http://www.mincotur.gob.es)).

6. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean jar daiteke errekurtsoa administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan eta epeetan.

47. artikulua. *Eskatzaileen eta onuradunen funtsezko betebeharrak.*

Eskatzaileen eta onuradunen funtsezko betebeharrak honako hauek izango dira:

a) Errege lege-dekretu honetan ezarritako metodologiari eta prozedurari jarraitu beharko diete, eta era berean, eskatzen diren baldintzak bete, dena delako jarduera gauzatu eta laguntzaren xede den ezarritako helburua ere bete beharko ditu; gainera, horiek bete direla egiaztatzen dituzten frogagiriak eta dokumentazioa gordeko ditu, II. eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

b) Laguntzaren onuradunak laguntzaren xede den jarduketa zuzen burutzen dela bermatzeko egiaztapenak ahalbidetzeko obligazioa izango du. Era berean, onuraduna honako hauen eraginpean egongo da: Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailtza Nagusiaren egiaztapen-jarduketak eta finantza-kontrola; Kontu Auzitegiaren fiskalizazio-

kontrola; eta, hala badagokio, Europar Batasuneko funts komunitarioekin batera finantzatutako laguntzen kudeaketari aplikatu beharreko araudian ezarritakoa.

c) Onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatueta eta errege lege-dekretu honen 40. artikuluan eskatzen diren baldintzak bete beharko ditu. Era berean, eta hala badagokio, ez da krisialdi-egoeran dagoen enpresa gisa definituta izan beharko, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. apartatuan definitutakoaren arabera. Ondorio horietarako, eskatzaileak, laguntza-eskabidearekin batera, dagozkion erantzukizunpeko adierazpenak sinatuko ditu, hargatik eragotzi gabe II. eranskineko 5.1.a) artikuluan xedatutakoa.

d) Laguntzaren onuradunak ibilgailuaren titularra izaten eta ibilgailua Espainian matrikulatuta izaten jarraitu beharko du gutxienez bi urtetan, dirulaguntza ematen den unetik zenbatzen hasita.

48. artikulua. *Laguntzen jarraipena eta kontrola egitea.*

1. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak errege lege-dekretu honen babesean emandako laguntzen jarraipena eta kontrola egingo du dagozkion jarduketan bidez, azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera egin beharreko kalterik egin gabe.

2. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ezarritako prozeduraren bidez, telematikoki eman diezaioke dirulaguntzen titular eta ibilgailu onuradunen berri ibilgailuen Erregistroari, errege lege-dekretu honen 47.d) artikuluan jasotako betebeharrak kontrolatzeko helburuarekin.

49. artikulua. *Laguntzak deuseztatzeko edo itzultzeko arrazoiak.*

1. Alde batera utzita zer nolako itzultzeak egin behar diren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza osorik edo partzialki itzuli beharko da, bai eta dirulaguntza ordaindu zen egunetik itzuli behar dela adosten den arte sortutako berandutze-interesa ere, lege horren 37. artikuluan araututako kasuetan eta errege lege-dekretu honetan berariaz aurreikusten diren gainerako kasuetan.

2. Ez betetze partzialen kasuan, onuradunak zer kopuru itzuli behar duen zehazteko, proportzionaltasun-printzipioa hartuko da kontuan, justifikatutako kostuak eta egiaztatutako jarduketak oinarri harturik, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37.2 artikuluko lege horren beraren 17.3.n) artikuluari dagokionez ezartzen duenaren arabera.

50. artikulua. *Publizitatea.*

Onuradunek errege lege-dekretu honetan araututako laguntzen gainean egiten dituzten aipamen guztietan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak finantzatu dituela agertu beharko da, hedabidea edozein delarik ere, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18.4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

51. artikulua. *Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalak babestea.*

1. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak eskatzailearen, onuradunaren edo interesdun ororen eskutik jasotzen dituen informazio eta datu pertsonalak konfidentzialak izango dira. Era berean, Ministerioak berak jasoko ditu informazio eta datu pertsonal horiek, eta bere titulartasuneko eta erantzukizunpeko fitxategi automatikoetan txertatuko ditu, hurrenez hurren, errege lege-dekretu honetan ezarritako obligazioak betetzen, kontrolatzen eta jarraitzen direla egiaztatzeko. Interesdunek pertsonalki eta idatzi baten bidez gauzatu ahal izango dituzte datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko dituzten eskubideak.

2. Aurrekoa gorabehera, onuradunek, errege lege-dekretu honetan ezarritako moduaren arabera programa honekin bat egiten dutenean, emandako laguntzaren datuak

argitaratzea onartzen dute, laguntza horien publizitatea, objektibotasuna eta norgehiagoka bermatu ahal izateko.

3. Errege lege-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzen gaineko informazioa jakinaraziko zaio Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 20. artikulua obligazio hori betetzeko ezartzen dituen baldintzen arabera.

52. artikulua. *Araubide juridikoa.*

Dirulaguntzak emateko baldintzak errege lege-dekretu honen 38. artikulutik 52. artikulura arte arautzen dira, eta dirulaguntza horiek, errege lege-dekretu honetan ezarritakoa betetzeaz gain, honako hauetan ezarritakoa ere bete beharko dute, hala dagokionean: azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta horren Erregelamenduan ezarritakoa; eta urriaren 1eko 39/2015 Legean, 2014ko ekainaren 17ko Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduan, 2013ko abenduaren 18ko Europako Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan eta aplikatu beharreko gainerako xedapenetan ezarritakoa.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren aparteko kreditua Automobil-industriaren balio-katea bultzatzeko planaren barruko Renove Planari erantzuteko.*

Aparteko kreditu bat ematea onartu da Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioan; zenbatekoa, guztira, 250 milioi euro izango dira, eta aurrekontu-aplikazio hau izango du: 20.09.422B.782 «Renove Plana, automobil-industriaren balio-katea bultzatzeko planaren barruan».

Aparteko kreditu horren finantzazioa Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 46. artikulua arabera egingo da.

Errege lege-dekretu honen onarpenaren bidez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 10.2. eta 34.1. artikuluek, hurrenez hurren, aipatzen duten baimena eta onarpena ematen dira.

Bigarren xedapen gehigarria. *Notarioen arantzelen eta Jabetza-erregistroaren ordainketaren hobaria.*

1. Hirugarren artikuluan adierazitako luzamendua barne hartzen duen hipoteka-maileguaren berritzea formalizatu eta inskribatzearen ondoriozko notarioen eta erregistroen arantzel-eskubideak hartzekodunak ordainduko ditu beti, eta ehuneko 50eko hobaria izango dute, baldintza hauetan:

a) Eskritura egilesteak hipoteka berritzeko eskriturei dagokien arantzela sortuko du. Arantzel hori Notarioen arantzelak onartzeari buruzko azaroaren 17ko 1426/1989 Errege Dekretuaren I. eranskinaren 1. zenbakiko 1. apartatuaren f) letran aurreikusten da; arantzel horiek ehuneko 50era murriztuko dira, eta ez da inolako zenbatekorik sortuko matrizearen eta kopiaren bosgarren foliotik aurrera, kopia baimendua izan edo kopia soila izan. Zehaztu denaren arabera, gutxieneko arantzela 30 eurokoa izango da, eta gehienekoa 75 eurokoa.

b) Inskripzioa egiten denean, berritze aldarazleentzat aurreikusten den arantzela aplikatuko da, Erregistratzaileen Ordainsaria onesten duen azaroaren 17ko 1427/1989 Errege Dekretuaren I. eranskinaren 2.1.g) artikuluan zehazten den moduan. Eraitza hori ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaio. Zehaztutako gutxieneko arantzela 24 eurokoa izango da, eta gehienekoa 50 eurokoa.

2. Eskritura publikoa formalizatu ondoren, notario eskuesleak Jabetza Erregistrora igorriko du eskritura hori, hipoteka-legeak baimentzen duen edozein aurkezpen-bideren bidez.



Hirugarren xedapen gehigarria. *Hipoteka-luzamendua aplikatzeko eremua turismo-sektorean.*

Hirugarren artikuluan aipatzen diren turismo-sektoreko jarduera ekonomikoak Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN) kode hauen arabera sailkatuko dira: 5510 (Hotelak eta antzeko ostatuak), 5520 (Ostatu turistikoak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk) eta 7911 (Bidaia-agentzien jarduerak).

Laugarren xedapen gehigarria. *Aldizkako kontratu finkoak dauzkaten langileen jardueraldia luzatzen laguntzeko neurriak, turismo-sektorean eta turismo-jarduerari lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetan.*

1. Turismo-sektoreko jardueretan aritzen diren enpresek, bai eta turismo-sektoreari lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetakoek ere (sektore publikoko enpresek ez beste guztiek), 2020ko uztailan, abuztuan, irailean eta urrian ekoizpen-jarduerarik sortzen badute, eta hil horietan aldizkako kontratu finkoak dituzten langileen okupazioari alta ematen badiote edota langile horien okupazioa alta egoeran mantentzen badute, hil horietan ehuneko 50eko hobaria aplikatu ahal izango dute langile horien gertakari arruntan Gizarte Segurantzako enpresa-kuotetan, bai eta langile horien langabezia, FOGASA eta lanbide-heziketaren baterako bilketaren kontzeptuen kuotetan ere.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak aplikatuko ditu kuoten hobariak, enpresak hala eskatuta. Horretarako, aldeztu aurretik, enpresako langileen identifikazioa jakinarazi beharko da, eta enpresak turismo-sektorearekin duen loturaren gaineko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, kotizazio-kontuaren kode eta sortzapen-hilabete bakoitzari dagokionez.

Hobariak aplikatzekoak izan daitezten, erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztu beharko dira adierazpen horiek ondorioak dituzten kuoten sortzapen-aldiari dagokion kuoten likidazioaren kalkulua eskatu aurretik.

Artikulu honetan aipatutako erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko, Gizarte Segurantzaren arloko datuak elektronikoki bidaltzeko Sistema (RED Sistema) erabili beharko da; sistema hori martxoaren 26ko ESS/484/2013 Aginduan arautzen da.

2. Artikulu honetan araututako hobaria Estatuko lurralde osoan aplikatzekoa izango da.

3. Lege honetan arautzen den Enplegua sustatzeko Programan ezarritako kontratazioetarako hobariak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko dagokion aurrekontu-partidaren kontura finantzatzeko dira.

4. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak aplikatuko ditu Gizarte Segurantzaren kuoten hobariak, dagozkion kuoten likidazioetan, hargatik eragotzi gabe Lan eta Gizarte Segurantzako lkuskaritzak ondoren egin dezakeen kontrola eta berrikusketa.

5. Hobari horiek bateragarriak izango dira Gizarte Segurantzari enpresa-kuotak ordaintzeko salbuespenarekin. Salbuespenak eta hobari hauek aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa ezingo da inola ere izan sartu beharko litzatekeen enpresa-kuotaren 100eko 100 baino handiagoa.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Finantzaketa publikoa lortu duten COVID-19 osasun-larrialdiarekin lotutako proiektuen emaitzen ustiapena.*

Baldin eta Espainiako administrazio publikoen edo haien organismo edo zuzenbide publikoko erakundeetako aurrekontuen kontura proiektu batek finantzaketa publikoa lortu eta proiektu horren emaitza sendagai bat edo osasun-produktu bat bada, edo emaitza hori industria-eraldaketaren bitartez sendagai edo osasun-produktu bihurtuko diren bitarteko produktuak badira, edo proiektu horren helburua beharrezkoak diren ekipamendu, eredu, prototipo, sistema edo prozesu-ingeniaritzak badira, eta produktu horiek SARS-CoVid-2 koronavirusak eragindako osasun-larrialdiaren ondoriozko premiei erantzuten badiete, baina, hala ere, produktu horiek azaleratzeko eta ekoizteko arazoak badaude, eta ondorioz,

barne-eskariari erantzuteko izakin-eskasia sor badaiteke, lankidetzaren publiko-privatuko mekanismoak baliatu beharko dira oztopo horiek gainditzeko, arau hauen arabera:

a) Lankidetzaren hitzarmena, Zuzenbidean baimendutako edozein modutan egingo dena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Espainiako Sistemaren eragile finantzatzaileak eta funts horien erakunde onuradunak sinatu beharko dute. Hitzarmen horrek kontratuaren forma hartu behar badu, hitzarmenaren xedea kontratuaren bidez ematen diren prestazioak direlako —Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen definitzen direnak—, kontratazioa lege horren arabera egin beharko da.

b) Hitzarmenak produktuen esportaziorako Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren (AEMPS) baimena beharko dela jasoko du, baina soil-soilik agentzia horrek berak lehenago ezarri badu sendagai edo osasun-produktu horien ekoizpen maila edo izakin maila ez dela nahikoa barne-eskariari erantzuteko. Era berean, Estatuaren Administrazio Sanitarioak sendagai eta osasun-produktu horien hornidura zentralizatu ahalko du, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren laugarren artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Nolanahi ere, sinatuko den hitzarmenak proportzionaltasun-printzipioarekin bat egin beharko du. Ondorioz, osasun publikoa egokiro babesteko helburua betetzen dela bermatu besterik ez du egin behar, hornikuntzaren arazoak irauten duen bitartean sendagai edo osasun-produktu horiek behar beste hornituz.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretua aldatzea; legegintzako errege-dekretuaren bidez, Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bategina onartzen da.*

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bateginaren 45.I.B) artikuluari 30. zenbakia gaineratu zaio —arau hori irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen—; 30. zenbaki hori honela geratzen da idatzita:

«30. Hipoteka-mailegaren eta -kredituen luzamenduak eta hipoteka-bermerik gabeko errentamenduak formalizatzeko eskriturak, baldin eta turismo-sektorerako hipoteka-luzamendua aplikatzearen ondorioz sortzen badira; luzamendu hori 2020ko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulutik 9. artikulura bitartean arautzen da.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzea.*

Laugarren xedapen gehigarriari 7. apartatua gaineratu zaio, eta honako idazkera hau izango du:

«7. Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko Funtsaren Kudeaketa Kontseiluaren ebazpenak, zuzenean eta auzialdi bakarrean, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salan.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hirurogeigarren xedapen gehigarriaren Bat apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Hirurogeigarren xedapen gehigarria. *Espainiaren interesekoa den kanpo-inbertsio espainiarra sustatzeko funtsen zuzkidura.*

Bat. Kanpo Inbertsioetarako Funtsaren zuzkidura 100.000 mila eurokoa izango da 2020an. Kanpo Inbertsioetarako Funtsaren Batzorde Betearazleak gehienez ere 300.000 mila euroko eragiketak onartu ahal izango ditu 2020an.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena, aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten da COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 31.1 artikulua b) paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«b) Onuradunak: Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskineko definizioaren arabera enpresa txiki eta ertaintzat hartzen diren Espainiako enpresak, bai eta tamaina handiagoko beste enpresa batzuk ere, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

– Enpresa nazioartekotuak edo nazioartekotzeko prozesuan daudenak izatea, gutxienez baldintza hauetako bat betetzen dutelako:

- nazioarteko negozioa —azken finantza-informazioan adierazia— gutxienez negozio-zifraren herena (% 33) delako, edo
- esportatzaile erregularrak direlako (azken lau urteetan erregularki esportatu duten enpresak direlako, Merkataritzako Estatu Idazkaritzak ezarritako irizpideen arabera).

– Enpresak likidezia-arazoa edukitzea edo finantzaketarik eskuratu ezin izatea, COVID-19aren krisialdiak bere jardura ekonomikoan izan duen inpaktuaren ondorioz».

Bi. Letra bat, e), gaineratu zaio 31.1 artikuluari, eta honela dio:

«e) Lerroaren zenbatekoaren % 35 bideratu ahal izango da, gehienez ere, erakunde kotizatueta.»

Hiru. Paragrafo bat gaineratzen zaio 40.8 artikuluari, eta honela dio:

«8. Nahiz eta lege- edo estatutu-arrazaia egon, kapital-sozietateetan bazkideek ezingo dute sozietatea uzteko eskubidea egikaritu, harik eta alarma-egoera eta, hala adosten denean, horren luzapenak amaitu arte.

Hala ere, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren 348. bis artikulua 1. eta 4. apartatuetan aurreikusten den sozietatea uzteko eskubidea etenda geratuko da 2020ko abenduaren 31ra arte.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Bat. Apartatu bat gaineratzen zaio 20. artikuluari, 4. apartatua, eta honela dio:

«4. Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioen ebazpenen berri emango die autonomia-erkidegoei eta toki-erakundeei, datu pertsonalen titularrak aldeztu aurretik baimena eman behar izan gabe. Jakinarazpen hori egiteko, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ezarritako baldintzen arabera prozedura informatikoak beteko dira, administrazio horien eskumeneko prestazioak aintzatesteko eta kontrolatzeko hertsiki behar den

informazioa helarazteko helburuarekin. Emandako informazioa ezingo da erabili beste helburu baterako, baldin eta interesdunak ez badu baimenik ematen. Hori guztia hala izango da, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 5.1.b) eta c) eta 6. artikulua, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8. artikulua aplikatuz.

Aurreko paragrafoan ezarritako baldintzei jarraikiz, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioen ebazpenen berri emango zaie Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunei, eta hala badagokio, toki-korporazioei, administrazio horiek, elkarlanaren eta lankidetzaren esparruaren barruan, egin behar dituzten jarduerak burutu ditzaten, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari dagokion bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kudeatzeko eta kontrolatzeko arloan.

Era berean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, lehenengo paragrafoan ezarritako baldintzak oinarri harturik, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren gainean beharrezkoa den informazioa eman ahalko diete hala eskatzen duten instituzioei eta erakunde publikoiei, telematikoki eta datu pertsonalen titularrek alde aurreko baimenik eman behar izanik gabe, instituzio eta erakunde publiko horiek, beren eskumenen eremuaren barruan, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera aplikatuz eratorritako jarduketak burutu ditzaten.»

Bi. Lehenengo xedapen iragankorraren 3. apartatuari laugarren paragrafoa gaineratzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«2. apartatuko b) letran deskribatzen den bizikidetzaren unitateko bizilekua Nafarroako Foru Erkidegoan edo Euskal Autonomia Erkidegoan izango balitz, ulertuko da aurreko paragrafoan aipatzen den Zerga Administrazioaren ordez Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako zergen Foru Ogasuna aipatzen direla, hurrenez hurren.»

Azken xedapenetako seigarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 6., 7., 8., 10., 11., 13., 14., 15., 17., 18., 21., 23. eta 25. apartatuen babespean ematen da, Konstituzioak honako hauek arautzeko eskumena ematen baitio Estatuari: konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak; merkataritza-legeria eta legeria penala eta espetxeetakoak; prozesu-legeria, hargatik eragotzi gabe ordena honetan autonomia-erkidegoen zuzenbide substantiboaren berezitasunen ondoriozko beharrezko espezialitateak; lan-arloko legeria; legeria zibila; aduanen eta muga-zergen araubidea eta kanpo-merkataritza; kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeko oinarriak; jarduera ekonomikoaren planifikazio orokorraren oinarriak eta koordinazioa; Ogasun Nagusia eta Estatuaren zorra; ikerketa zientifikoaren eta teknikoaren sustapena eta koordinazio orokorra; Gizarte Segurantzaren arloko oinarritzko legeria eta ekonomia-araubidea; administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak; administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarritzko legeria; telekomunikazioak; ibilgailu motordunen trafikoa eta zirkulazioa; ingurumena babesteari buruzko oinarritzko legeria, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek babesarako arau gehiago ezartzeko dituzten ahalmenak; eta meatzeen eta energiaren araubidearen oinarriak.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena eta betearazpena.*

Gobernuari eta ministerio-sailletako titularrei, bakoitzari bere eskumen-eremuan, ahalmena ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *RENOVE PLANerako arauak emateko gaikuntza.*

Industria, Merkataritza eta Turismoko ministroari ahalmena ematen zaio II. eranskinaren edukia aldatzeko (II. eranskina: RENOVE PLANA 2020), baita 38. artikulutik 52. artikulura arte jasotako xedapenak —Espainiako ibilgailu parkea 2020an berritzeko programari (RENOVE PLANA 2020ri) buruzkoak direnak— zuzen aplikatzeko beharrezkoak diren garapen-arauak emateko ere.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2020ko uztailaren 3an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea.

PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

## I. ERANSKINA

### Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsaren kapital- eta ustiapen-aurrekontua

#### *Estatuaren 2020rako Aurrekontu Orokorrak*

Erakundea: Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsa

Kontu-zenbakiak	Ustiapen-aurrekontua Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua		(milaka eurotan) 2020
	1.	Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.	0,00
	a)	Ekitaldi honetan	0,00
751	a.1)	Ekitaldiko gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzak	0,00
		– Estatuko Administrazio Orokorren eskutik	
		– Estatuko Administrazio Orokorren erakunde autonomoen eskutik	
		– Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoaren beste batzuen eskutik	
		– Enpresa- edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoaren eskutik	
		– Europar Batasunaren eskutik	
		– beste batzuen eskutik (zehaztu)	
750	a.2)	Transferentziak	0,00
		– Estatuko Administrazio Orokorren eskutik	
		– Estatuko Administrazio Orokorren erakunde autonomoen eskutik	
		– Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoaren beste batzuen eskutik	
		– Enpresa- edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoaren eskutik	
		– Europar Batasunaren eskutik	

Kontu-zenbakiak	Ustiapen-aurrekontua Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua			(milaka eurotan) 2020
			– beste batzuen eskutik (zehaztu)	
752		a.3)	Pasiboak ezeztatzeko jasotako dirulaguntzak, betiere pasibo horiek ondare-elementu baten berariazko finantziatorik ez badakarte	0,00
			– Estatuko Administrazio Orokorraren eskutik	
			– Estatuko Administrazio Orokorraren erakunde autonomoen eskutik	
			– Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoaren beste batzuen eskutik	
			– Enpresa- edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoaren eskutik	
			– Europar Batasunaren eskutik	
			– beste batzuen eskutik (zehaztu)	
754		b)	Aktibo arruntetarako eta beste batzuetarako dirulaguntzak egoztea	
777		2.	Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	38,05
795		3.	Hornidura-soberakinak.	
		A)	KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (1+2+3)	38,05
-65		4.	Emandako transferentziak eta dirulaguntzak	0,00
			– Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoari	
			– Enpresa- edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoari	
			– beste batzuei (zehaztu)	
		5.	Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.	-2.250,00
-62		a)	Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak.	
-676		b)	Beste batzuk.	-2.250,00
		B)	KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA (4+5).	-2.250,00
		I.	Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B).	-2.211,95
		6.	Arruntak ez diren beste partida batzuk.	0,00
778		a)	Diru-sarrerak.	
-678		b)	Gastuak.	
		II.	Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+6).	-2.211,95
		7.	Diru-sarrera finantzarioak.	0,00
		a)	Ondare-tresnetako partaidetzetatik datozenak.	0,00
7630		a.1)	Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.	
760		a.2)	Beste erakunde batzuetan.	
		b)	Balore negoziagarrietatik eta aktibo ibilgetuaren kredituetatik datozenak.	0,00
7631, 7632		b.1)	Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan.	
761, 762, 769, 76454, (66454)		b.2)	Beste batzuk.	
		8.	Finantza-gastuak.	0,00
-663		a)	Taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin zorrak izateagatik.	

Kontu-zenbakiak	Ustiapen-aurrekontua Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua		(milaka eurotan) 2020
(660), (662), (669), 76451, (66451)	b)	Beste batzuk.	
	9. Arrazoizko balioaren aldakuntza finantza-aktibo eta -pasiboetan.		0,00
7646, (6646)	a)	Finantza-deribatuak.	
7640, 76452, 76453, (6640), (66452), (66453)	b)	Arrazoizko balioko beste aktibo eta pasibo batzuk, emaitzei egotzita.	
7641, (6641)	c)	Ekitaldiko emaitzari egoztea salmentarako finantza-aktibo eskuragarrien zenbatekoan.	
768, (668)	10. Truke-aldeak.		
	11. Balioaren narriadura, bajak, eta finantza-aktiboak eta -pasiboak besterentzea.		0,00
7960, 7961, 7965, 766, (6960), (6961), (6965), (666), 7970, (6970), (6670)	a)	Taldeko erakundeena, talde anitzekoena eta elkartuenak.	
765, 7966, 7971, (665), (6671), (6962), (6966), (6971)	b)	Beste batzuk.	
	III. Finantza-eragiketen emaitza (7+8+9+10+11).		0,00
	IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezkiea edo desaurrezkiea) garbia (II+III).		-2.211,95

Kapital-aurrekontua Eskudiru-fluxuen egoera		(milaka eurotan) 2020
I. KUDEAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
A)	Kobrantzak: (+)	38,05
	1. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.	
	2. Kobratutako interesak eta dibidenduak.	38,05
	3. Beste kobrantza batzuk.	
B)	Ordainketak: (-).	-2.250,00
	4. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak.	
	5. Beste kudeaketa-gastu batzuk.	-2.250,00
	6. Ordaindutako interesak	
	7. Beste ordainketa batzuk	
	Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (A+B)	-2.211,95
II. INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
C)	Kobrantzak: (+).	0,00
	Finantza-aktiboen salmenta.	
D)	Ordainketak: (-).	-3.000.000,00
	Finantza-aktiboak erostea eta kredituak ematea	-3.000.000,00
	Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (C+D)	-3.000.000,00

Kapital-aurrekontua Eskudiru-fluxuen egoera		(milaka eurotan) 2020
III. FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
E)	Ondarearen hazkundera: (+)	10.000.000,00
	1. Funtsa hartzen duen erakundearen ekarpenak	10.000.000,00
F)	Funtsa hartzen duen erakundeari egindako ordainketak: (-)	0,00
	2. Funtsa hartzen duen erakundeari ekarpenak itzultzea eta emaitzak banatzea	
G)	Finantza-pasiboak jaulkitzeagatiko kobrantzak: (+)	0,00
	3. Jasotako maileguak	
	4. Beste zor batzuk	
H)	Finantza-pasiboak itzultzeagatiko ordainketak: (-)	0,00
	5. Jasotako maileguak	
	6. Beste zor batzuk	
	Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (E+F+G+H)	10.000.000,00
IV. SAILKATU GABE DAUDEN ESKUDIRU-FLUXUAK		
I)	Aplikatu gabe dauden kobrantzak (+)	
J)	Aplikatu gabe dauden ordainketak (-)	
	Sailkatu gabe dauden eskudiru-fluxu garbiak (I+J)	0,00
V. TRUKE-TASEN ALDAKUNTZEN ERAGINA (+/-)		
VI. ESKUDIRUAREN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA ETA ESKUDIRUAREN AKTIBO LIKIDO BALIOKIDEAK (I+II+III+IV+V)		6.997.788,05
	Eskudirua eta eskudiruaren aktibo likido baliokideak ekitaldiaren hasieran	0,00
	Eskudirua eta eskudiruaren aktibo likido baliokideak ekitaldiaren amaieran	6.997.788,05

## II. ERANSKINA

### RENOVE PLANA 2020

#### 1. artikulua. *Diruz lagundu daitezkeen ibilgailuak.*

##### 1. Diruz lagundu daitezkeen ibilgailuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Programa honen xede diren dirulaguntzen helburua ibilgailu berriak eskuratzea izango da, bai zuzenean, bai finantza-leasing bidezko zein errentamendu-renting bidezko (leasing operatiboa ere deitzen zaio) finantzaketa-eragiketen bidez. Ibilgailu berriak direla ulertzeko, fabrikatik atera berriak, eta lehen aldiz Espainian eta laguntzaren azken hartzailearen izenean matrikulatuak izan beharko dira, renting kasuetan izan ezik; kasu horietan, renting-enpresaren izenean matrikulatuta izan ahalko dira. Gainera, salerosketaren fakturaren data eta matrikulazio-data, gutxienez, 2020ko ekainaren 15ekoa edo geroagokoa izango da. Era berean, ibilgailuaren prezioaren ordainketa 2020ko ekainaren 15ean edo geroago egin beharko da, konturako edo, hala badagokio, beste edozer kontzepturen arabera zenbatekoen ordainketa barne.

b) Programa honetan aurreikusten diren dirulaguntzak ibilgailu erdiberri bat zuzenean eskuratzeko ere erabiliko dira. Ibilgailu hori kontzesionario baten esku eta kontzesionario horren izenean Espainian matrikulatuta izan beharko da aldez aurretik, 2020ko urtarrilaren



1a baino geroagoko datarekin. Gainera, ibilgailu berri baten kasuan bezala, salerosketaren fakturaren data 2020ko ekainaren 15ekoa edo geroagokoa izan beharko da. Era berean, ibilgailuaren prezioaren ordainketa ere egun horretan edo geroago egin beharko da, konturako edo, hala badagokio, beste edozer kontzepturen arabera zenbatekoen ordainketa barne.

c) PGL, GNK, GNL edo gasolina-gas bifuel gisa homologatutako ibilgailuak eskuratzeko ematen diren laguntzen kasu zehatzei dagokienez, ibilgailu berria dela esango da fabrikatik badator edo fabrikatzailearen kontrolpean, berak baimendutako sarearen bidez, eraldatua eta bermatua bada, eta lehen aldiz Espainian matrikulatuta badago laguntzaren azken hartzailearen izenean.

d) Nolanahi ere, M1 kategoriako eta erregai alternatiboak erabiltzen dituzten gainerako kategorietako ibilgailu guztiak «Ibilgailu berrien erregaien kontsumoa eta CO<sub>2</sub> isurtzeak» izeneko datu-basean erregistratu beharko dira; datu-base horren egilea enpresa-erakunde publiko hau da: Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutua (IDAE).

2. Edozer kasutan ere, laguntza eskuratu dezaketen ibilgailuak ondoren zehazten diren kategorien arteko batekoak izan beharko dira:

a) M1 turismoak: Ibilgailu motordunak, bidaiariak eta haien ekipajea garraiatzeko bereziki diseinatu eta fabrikatu direnak. Ibilgailu motordun horiek, gehienez ere, zortzi plaza izango dituzte, gehi gidariarena, eta ez dute bidaiariak zutik joateko espaziorik izango, eserleku-kopurua gidariaren eserlekura mugatzen den edo ez alde batera utzita.

b) M2 autobusak edo autokarrak: Ibilgailu motordunak, bidaiariak eta haien ekipajea garraiatzeko bereziki diseinatu eta fabrikatu direnak. Ibilgailu motordun horiek zortzi plaza baino gehiago izango dituzte, gidariaren eserlekuaz aparte, eta gehienez ere 5 tonako gehieneko masa izango dute, bidaiariak zutik joateko espazioa duten edo ez alde batera utzita.

c) M3 autobusak edo autokarrak: Ibilgailu motordunak, bidaiariak eta haien ekipajea garraiatzeko bereziki diseinatu eta fabrikatu direnak. Ibilgailu motordun horiek zortzi plaza baino gehiago izango dituzte, gidariaren eserlekuaz aparte, eta 5 tona baino gehiagoko gehieneko masa izango dute, bidaiariak zutik joateko espazioa duten edo ez alde batera utzita.

d) N1 furgonetak edo kamioi arinak: Ibilgailu motordunak, gehienez ere 3,5 tonako gehieneko masa duten salgaiak garraiatzeko bereziki diseinatu eta fabrikatu direnak.

e) N2 furgoiak edo kamioi arinak: Ibilgailu motordunak, 3,5 tona baino gehiagoko baina gehienez ere 12 tonako gehieneko masa duten salgaiak garraiatzeko bereziki diseinatu eta fabrikatu direnak.

f) N3 furgoiak edo kamioiak: Ibilgailu motordunak, 12 tona baino gehiagoko gehieneko masa duten salgaiak garraiatzeko bereziki diseinatu eta fabrikatu direnak.

g) L3, L4, L5 eta L3e, L4e eta L5e motozikletak: Bi gurpildun, edo ibilgailuaren luzetarako erdiko ardatzari dagokionez, hiru gurpil simetrikodun edo asimetrikodun ibilgailuak, 45 km/h baino gehiagoko diseinu-abiadura dutenean.

3. M1 kategoriako ibilgailu-modeloak eta sustatu daitezkeen erregai alternatiboak erabiltzen dituzten gainerako kategoriak IDAEn Ibilgailuen Datu-basean agertu behar dira, (<http://coches.idae.es/base-datos/vehiculos-elegibles-programa-MOVES>), eta M eta N kategoriei dagozkien ibilgailuek baldintza hauetakoren bat bete beharko dute:

a) Gasolinazko edo gasoliozko barne-errekuntzako motorren bidez erabat propulstutako ibilgailu konbentzionalak.

b) Barne-errekuntzako motorren bidez propulstutako ibilgailuak, baldin eta honela homologatutako erregai alternatiboak erabil baditzakete: PGL/Autogas, Gas Natural Konprimatua (GNK), Gas Natural Likidotua (GNL) edo gasolina-gas bifuela.

c) Ibilgailu elektriko hutsak (BEV), motor elektrikoaren bidez erabat eta esklusiboki propulstatuak. Motor elektriko horiek baterien elektrizitatearen bidez lortzen dute energia, partzialki edo osorik, eta, bateria horiek berriz kargatzeko, ibilgailuaz kanpoko iturri baten energia erabiltzen da, esaterako, sare elektrikoa.

d) Autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (REEV), motor elektriko bidez erabat eta esklusiboki propulstatuak. Motor elektriko horiek baterien elektrizitatearen bidez lortzen dute energia, partzialki edo osorik, eta, bateria horiek berriz kargatzeko, alde batetik, ibilgailuaz kanpoko iturri baten energia erabiltzen da, eta bestetik, ibilgailu elektriko horiek gasolinazko edo gasoliozko barne-errekuntzako motorra barne hartzen dute.

e) Ibilgailu Elektriko Hibrido Entxufagarriak (IEHE), gasolina edo gasoliozko barne-errekuntzako motorren eta motor elektriko bidez erabat edo partzialki propulstatuak. Motor horiek baterien elektrizitatearen bidez lortzen dute energia, partzialki edo osorik, eta, bateriak berriz kargatzeko, ibilgailuaz kanpoko iturri baten energia erabiltzen da, esaterako, sare elektrikoa. Motor elektrikoa kanpoko energia-iturri baten bidez kargatutako bateriekin elikatu beharko da.

f) Ibilgailu Hibridoak (IH), gasolina edo gasoliozko barne-errekuntzako motorren eta motor elektriko bidez erabat edo partzialki propulstatuak. Motor horiek baterien elektrizitatearen bidez lortzen dute energia, oso-osorik, eta, bateriak berriz kargatzeko, ibilgailuak berak barnean sortutako energia erabiltzen da.

g) Erregai Piladun Ibilgailu Elektrikoa (EPIE), ontziratutako hidrogenozko erregai-pila batetik jasotako energia elektrikoa erabiltzen duena, esklusiboki.

h) Erregai Piladun Ibilgailu Elektriko Hibridoa (EPIEH), zeinak, gainera, bateria kargagarri elektrikoak ere hornitzen baititu.

4. M1 eta N1 kategorietako ibilgailuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Kategoria hauen arteko batean sailkatuta izan beharko dira, 2016ko apirilaren 13ko Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenean ezartzen denari jarraikiz –2016an zehar trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzeari buruzko 2016ko urtarrilaren 8ko Ebazpenaren lehenengo puntuaren C.1 apartatua eta I., II. eta VIII. eranskinak aldatzen dira ebazpen horren bidez–:

i. ZERO isurtzeak. Ibilgailuen Erregistroan honela sailkatutako ibilgailuak: bateriako ibilgailu elektrikoak (BEV); autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (REEV); gutxienez 40 kilometroko autonomia duten Ibilgailu Elektriko Hibrido Entxufagarriak (IEHE); edo erregai-piladun ibilgailu elektrikoak.

ii. ECO: Ibilgailuen Erregistroan honela sailkatutako ibilgailuak: 40 km baino autonomia gutxiago duten ibilgailu hibrido entxufagarriak; ibilgailu hibrido ez entxufagarriak (IHEE); gas naturalak propulstutako ibilgailuak; gas natural konprimatuak edo petrolio-gas likidotuak (PGL) propulstutako ibilgailuak. Nolanahi ere, C etiketaren irizpideak bete beharko dituzte.

iii C: Ibilgailuen Erregistroan gasolina EURO 4, 5 edo 6 edo diesel EURO 6 moduan sailkatutako ibilgailuak.

b) M1 kategoriako ibilgailu konbentzionalak, gasolinazko edo gasoliozko barne-errekuntzako motorren bidez erabat edo partzialki propulstutzen direnean, eta eranskin honetako 1. artikularen 3. apartatuko a), e) edo f) letretan jasotzen diren baldintzak betetzen dituztenean, IDAEren webgunean argitaratutako «Ibilgailu berrien erregai-kontsumoari eta CO<sub>2</sub> isurtzei buruzko IDAEren datu-basea»ren A edo B klasean sailkatuta izan beharko dira laguntzaren eskabidea egiten den egunean. Hori hala izango da abuztuaren 2ko 837/2002 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, zeinaren bidez arautzen baita Espainiako lurraldean salmentan jartzen diren edo errentamenduan eskaintzen diren ibilgailu berrien erregai-kontsumoari eta CO<sub>2</sub> isurtzei buruzko informazioa.

Gainera, M1 kategoriako turismo-ibilgailuek gehienez ere 120 gCO<sub>2</sub>/km-ko CO<sub>2</sub> isurtze homologatuak egiaztatu beharko dituzte; aldiz, erabilera anitzeko AF karrozeria duten M1 kategoriako ibilgailuek eta 2.500 kg baino gutxiagoko Teknikoki Onargarria den Gehieneko Masa (TOGM) duten N1 kategoriako furgoneta arinek gehienez ere 155 gCO<sub>2</sub>/km-ko CO<sub>2</sub> isurtze homologatuak egiaztatu beharko dituzte. Isurtze horiek bat egiten dute 2017/1153 eta 2017/1152 (EB) Betearazpen Erregelamenduen arabera ezarritako NEDC-ren isurtze-balioekin.

M1 kategoriako ibilgailuak, eta eranskin honetako 1. artikularen 3. apartatuko b), c), d), g) edo h) letretan jasotako baldintzak betetzen dituzten eta erregai alternatiboak erabiltzen dituzten gainerako kategorietako ibilgailuak, laguntzaren eskabidea egiten den egunean, IDAeren webgunean argitaratutako «ibilgailu berrien erregai-konsumoari eta CO<sub>2</sub> isurtzei buruzko IDAeren datu-basea»n agertu beharko dira, abuztuaren 2ko 837/2002 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Gainera, M1 kategoriako turismo-ibilgailuek gehienez ere 120 gCO<sub>2</sub>/km-ko CO<sub>2</sub> isurtze homologatuak egiaztatu beharko dituzte; aldiz, erabilera anitzeko AF karrozeria duten M1 kategoriako ibilgailuek eta 2.500 kg baino gutxiagoko Teknikoki Onargarria den Gehieneko Masa (TOGM) duten N1 kategoriako furgoneta arinek gehienez ere 155 gCO<sub>2</sub>/km-ko CO<sub>2</sub> isurtze homologatuak egiaztatu beharko dituzte. Isurtze horiek bat egiten dute 2017/1153 eta 2017/1152 (EB) Betearazpen Erregelamenduen arabera ezarritako NEDC-ren isurtze-balioekin.

c) Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2009ko ekainaren 18ko 595/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera homologatutako M1 eta N1 kategorietako ibilgailuei dagokienez, ez dira aurreko b) eta c) apartatuak aplikatuko. Erregelamendu horretan, motordun ibilgailuen eta motorren homologazioa arautzen da (Euro VI) ibilgailu astunen isurtzei dagokienez.

d) Artikulu honetako 1. puntuko b) letran agertzen diren M1 eta N1 kategorietako ibilgailu berri edo erdi berriak eskuratzen direnean, diruz lagundu daitekeen ibilgailuaren eskuratzaile titularrak nahitaez egiaztatu beharko du zirkulazioko behin betiko baja eman diola Espainian matrikulatutako ibilgailu bati, eta ibilgailu horren titular moduan azaltzen dela Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan; egiaztapen hori egiteko, ibilgailuaren behin betiko bajari dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Kasu horretan, laguntzaren azken hartzaileak —diruz lagundu daitekeen ibilgailuaren eskuratzaile titularra izango denak— edo ibilgailu-errentariak —renting edo leasing operatiboko eragiketen kasuan— txatarrera eraman beharreko ibilgailuaren zirkulazioko behin betiko baja bideratzen ari dela egiaztatu ahalko du Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan, ibilgailuaren behin betiko bajaren dagokion ziurtagiria aurkeztuz. Txatarrera eraman beharreko ibilgailua M1 edo N1 kategoriakoa izan daiteke, bata zein bestea, eta Espainian 2020ko ekainaren 15a baino lehen matrikulatuta izan beharko da. M1 kategoriako ibilgailuei dagokienez, hamar urtekoa baino antzinatasun handiagoa izan beharko dute; eta N1 kategoriakoei dagokienez, zazpi urtekoa baino handiagoa. Ibilgailuen antzinatasunaren ondorioetarako, data hauek hartuko dira kontuan: lehen matrikulazio-datatik laguntzaren eskabidea egiten den egunera arte, edo eskuratutako ibilgailu berriaren matrikulazio-datara arte, baldin eta matrikulazio-data eskabide-egunaren aurrekoa bada. Horrez gain, eta kategoria zein den gorabehera, txatarrera eraman beharreko ibilgailuak indarrean izan beharko du Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT), gutxienez, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duena, argitaratu zen egunean. Era berean, laguntzaren azken hartzaileak txatarrera eramandako ibilgailuaren titulartasuna izan beharko du, gutxienez, laguntzaren eskabidea egin aurreko hamabi hilabeteetan; eta horrez gain, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren azkeneko ordainagiria aurkeztu beharko du, behar bezala ordainduta izan beharko dena, gutxienez 2019tik aurrera.

5. L kategoriari dagozkien ibilgailu elektrikoek kasuan, baldintza hauek bete behar dira:

1.a Motor elektrikoek bidez propulsiatuak izan beharko dira eskusiboki, eta ibilgailu elektriko moduan homologatuta izan beharko dira.

2.a Diruz lagundu daitezkeen motozikleta elektriko berriek (L3e, L4e eta L5e kategoriakoei) ezaugarri hauek izan beharko dituzte: litiozko bateriak, 3 kW-eko edo gehiagoko motorren potentzia duen motor elektrikoa, eta gutxienez 70 km-ko autonomia.

6. Renting finantziazio-eragiketen bidez eskuratutako ibilgailuek laguntzak jaso ahal izateko, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Dagokion errentamendu-kontratuak gutxienez bi urteko iraupena ezarri beharko du, indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita; eta nolana ere, 2020ko ekainaren 15ean edo geroago formalizatu beharko da.

b) Errentamendu-kontratuak berariaz ezarri beharko du errentaria dela ematen zaion laguntzaren azken hartzailea; eta kontratuan bertan ezarri beharko da, berariaz baita ere, renting-enpresak laguntzaren zenbatekoaren ordainketa jasotzen duen egunean bertan laguntzaren kopuru osoa aplikatuko duela errentariak ordaintzeke dituen errentamenduaren ordainketa- edo errenta-kuotak murrizteko.

c) Kontratuan honako hau jaso beharko da: ordaintzeke geratzen diren kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino gutxiago izango balitz, azken hartzaileari ordaintzeke geratzen den laguntzaren soberakina renting-konpainiak ordaindu beharko dio, errentamendu-kontratu amaitzean. Beraz, errentariak, laguntzaren azken hartzaile denez gero, errege lege-dekretu honetan aurreikusten diren baldintzak eta bateraezintasunak bete beharko ditu.

d) Renting-eragiketak diren kasu guztietan, laguntzaren azken hartzaileak kobratzeko eskubidearen lagapen-dokumentu bat sinatuko du eragiketa formalizatzen duen renting-konpainiaren alde.

7. Programa honen esparruan, onuradun berak gehienez eskuratu ahalko duen ibilgailu kopurua ezartzen da, hain zuzen, hogeita hamar ibilgailu, izaera juridikoko erakunde pribatuen kasuan. Onuraduna pertsona fisikoa eta profesional autonomoa denean, aldiz, ibilgailu bakarra eskuratu ahalko du. Onuradun bakoitzeko laguntza-mugak laguntzaren xede diren kategorietan adierazitakoak izango dira, salbu eta muga hori txikiagoa izan behar bada, eskatzaileak «de minimis» erregelamenduan ezarritako laguntzen muga bete duelako.

## 2. artikulua. *Laguntzen aurrekontu osoaren banaketa.*

Eman beharreko laguntzen aurrekontu osoa honela banatuko da:

a) Turismoak, furgoneta arinak eta motozikletak: 230.000.000 euro.

a. Turismoak (M1): 200.000.000 euro.

b. Furgoneta arinak (N1): 25.000.000 euro.

c. Motozikletak (L3, L4, L5 eta L3e, L4e eta L5e): 5.000.000 euro.

b) Autobusak eta autokarrak (M2, M3), furgoiak, kamioi arinak eta kamioiak (N2, N3): 20.000.000 euro.

## 3. artikulua. *Laguntzen zenbatekoa.*

1. Laguntzaren honako banakako zenbatekoak ezartzen dira, eurotan, eta beraz:

– Salmenta-prezioaren muga: bezeroarentzako salmenta-prezioa dirulaguntzaren eskabidea egiteko unean eta BEZ edo IGIC ezarri aurretik.

– ZERO, ECO, C: ibilgailuaren sailkapena Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan.

– A, B: ibilgailuaren sailkapen energetikoa «Ibilgailu berrien erregai-kontsumoari eta CO<sub>2</sub> isurtzei buruzko IDA Eren datu-basea»n.

– Partikularrak, autonomoak, ETEak, Enpresa handia: eskatzailearen izaera.

– TOGM (kg): Teknikoki Onargarria den Gehieneko Masa.

## a) M1 kategoria

		Estatuaren laguntzaren kopurua (€)						
		Partikularrak edo autonomoak		ETE		Enpresa handia		
	Salmenta-prezioaren muga (€)	Motorizazioa	A	B	A	B	A	B
ZERO	45.000	BEV, REEV, Erregai-pila	4.000		3.200		2.800	
		IEHE	2.600		2.300		2.200	
ECO(1)	35.000	-	1000	600	800	500	700	450
C			800	400	650	350	550	300

(1) Eranskin honetako 1. artikulua 3 b) apartatua jasotzen diren eta energia-etiketarik ez duten gas-ibilgailuen kasuan, honako hauek izango dira laguntzak: 800 € partikularrentzat, 700 € ETEentzat eta 600 € Enpresa handientzat.

Goian aipatutako salmenta-prezioaren muga 35.000 eurotan ezarri da, eta 45.000 eurora arte handituko da, baldin eta eskatzailea mugikortasun urriko pertsona bada.

## b) N1 kategoria

		Estatuaren laguntzaren kopurua (€)			
		TOGM (kg)	Partikularrak edo autonomoak	ETE	Enpresa handia
ZERO	2.500 baino gutxiago		4.000	3.200	2.800
ECO			1.200	950	850
C			1.000	800	700
ZERO	2.500 edo gehiago		4.000	3.200	2.800
ECO			2.700	2.200	1.900
C			2.100	1.700	1.500

## c) M2, N2, M3, N3 kategoriak

Motorizazioa	Kategoria	TOGM (kg)	Estatuaren laguntzaren kopurua (€)
Teknologia guztiak	M2, N2	–	2.000
	M3, N3	18.000 baino gutxiago	2.000
		18.000 edo gehiago	4.000

d) L3, L4, L5, eta L3e, L4e, L5e kategoriak

Motorizazioa	Salmenta-prezioaren muga (€)	Motorraren potentzia (kW)	Autonomia (km)	Estatuaren laguntzaren kopurua (€)		
				Partikularrak edo autonomoak	ETE	Enpresa handia
BEV	10.000	3 edo gehiago	70	750	750	700
Gasolina	8.000	–	–	400	300	200

2. Lehen adierazitako kopuruei laguntza gehigarri bat ezarriko zaie, irizpide hauen arabera:

a) Mugikortasun urriko onuradunak. Azken hartzaileak mugikortasun urriko pertsona fisikoak badira eta ibilgailu egokitua edo beren gidatzeko modura egokitzen den ibilgailua badute, eta M1 kategoriako ibilgailua eskuratzen badute, laguntzaren zenbatekoa 500 euro handiagoa izango da, betiere eskuratutako ibilgailuaren fitxa teknikoan jasotzen bada ibilgailua egokitua dela. Gehikuntza hori ezarriko zaie, baita ere, N1 kategoriako ibilgailuak eskuratzen duten profesional autonomoei, mugikortasun urriko pertsonak badira eta ibilgailu egokitua edo beren gidatzeko modura egokitzen den ibilgailua badute.

b) Hilean 1.500 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten etxeetako onuradunak. Eskatzailea hilean 1.500 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituen etxe bateko pertsona fisiko bat bada, eta hori hala egiaztatzen bada eskabide-galdetegian erantzukizunpeko adierazpena eginez, M1 edo N1 kategoriako ibilgailu bat eskuratzeko laguntzaren kopurua 500 euro handiagoa izango da.

c) 20 urte baino gehiagoko ibilgailuak txatarrera eramateko laguntza gehigarria.

Azken hartzaileek, pertsona fisikoak edo profesional autonomoak izanik, M1 edo N1 kategoriako ibilgailuak eskuratzen duten kasuetan, laguntzaren zenbatekoa 500 euro handiagoa izango da, betiere txatarrera eramaten baldin badute 20 urte baino gehiagoko antzintasuna duen eta kategoria horietakoa den ibilgailu bat. Nolanahi ere, txatarrera eramaten den ibilgailuak eranskin honetako 1. artikulua (4.e) apartatuan jasotako baldintzak bete beharko ditu.

3. M1 eta N1 kategorietako ibilgailu bat eskuratzen denean, kontzesionarioek eta salmenta-puntuak deskontu bat ezartzeko obligazioa izango dute; deskontu hori estatuaren laguntza-kopuruaren baliokidea izango da, eta gehienez ere 1.000 euroko muga izango du. Deskontu hori jasota geratu beharko da fabrikatzaileak/inportatzaileak edota kontzesionarioak edo salmenta-puntuak laguntzaren azken hartzaileari, berariaz eta berezita, bidaltzen dion eskuratutako ibilgailuaren salmenta-fakturan, eta faktura horretan azalpen hau adierazi beharko da: «RENOVE programaren bidez ezarritako deskontua».

4. Laguntzaren eskatzailea enpresa bat denean, enpresa horrek ETEa edo Enpresa handia den adierazi beharko du laguntzaren eskabidean, hala ezartzen baitu Europako Batzordeak 2014ko ekainaren 17an emandako 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean.

4. artikulua. *Eskaerak formalizatzea eta aurkeztea.*

1. Laguntza-eskabideak egiteko, aplikazio informatikoan eskuragarri dagoen inprimakia beteko da, honako prozeduraren arabera:

a) Aplikazio informatiko horren bidez, programa honen xede diren laguntzen interesdunek M1 kategoriako ibilgailuen, eta laguntza jaso dezaketen eta erregai alternatiboak erabiltzen dituzten gainerako ibilgailu-kategorien markak, modeloak eta bertsiok bilatu ahalko dituzte.

b) Eskabidea egiteko, eskatzaileak laguntzaren eskaera-inprimakia elektronikoki bete beharko du, eta inprimaki horretan, eragiketaren oinarritzko datuak adierazi beharko ditu,

onuradunari eta laguntzaren xede den ibilgailuari dagokionez; datu horiek aukeratzeko, aplikazio informatikoan L, M eta N kategorietako ibilgailuentzat agertzen den zerrenda erabiliko du. Laguntzaren xede den ibilgailua aukeratu ondoren, aplikazioak RENOVE PLANA 2020 esparruaren barruan dagokion laguntzaren zenbatekoa adieraziko du, eranskin honen 3. artikuluan ezartzen denaren arabera. Eskaera horretan, dagokion aukera hautatu beharko da eranskin honetako 3. artikuluko 2. apartatuan jasotako kasu partikularren artean, hala badagokio; horrela, artikulua eta apartatu horretan kasu horietarako ezarritako laguntza gehigarria jaso ahalko du eskatzaileak. Paragrafo honetan adierazitako kasuak edozein izanik ere, jasotako datuak ezingo dira zuzendu.

c) Behar diren datu guztiak bete ondoren, laguntzaren eskabidea aplikazio informatikoan kargatuko da, eta horrela, erregistratuta geratuko da; ondoren, eskabidearekin lotutako aurrekontua automatikoki erreserbatuko da, dagokion zenbatekoarekin. Eskabide horrekin batera, eskatzaileak ibilgailuaren eskaera egin izanaren ziurtagiria kargatu beharko du, baita, hala badagokio, kontzesionarioari entregatutako seinale ekonomikoaren ordainketa-frogagiria ere. Ondoren, eskatzaileak posta elektronikoa bat jasoko du, helburu horretarako adierazitako helbide elektronikoa, non eskabidea baieztatuko zaion, baita eskabideari esleitutako laguntzaren zenbatekoa ere.

d) Eskabidea egin eta aurreko apartatuan adierazitako dokumentazioa kargatu ondoren, eskatzaileak, aplikazio informatikoan dagokion dokumentazio guztia kargatu ahal izateko, ehun eta hogeit hamar egun izango ditu, M1 eta N1 ibilgailuen kasuan, eta ehun eta laurogei egun N2, N3, M2 eta M3 ibilgailuen kasuan, 5. artikuluan adierazten denaren arabera. Eskatutako gainerako dokumentazioa kargatu ondoren, kudeaketa-organismoak dokumentazio hori berrikusi eta baliozkotu beharko du.

e) Aplikazioan telematikoki kargatutako eskabideak edo dokumentazioak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko. Zuzenketa horiek egiteko epea ez betetzeak dagokion eskabidea ez onartzea eta eskabide hori automatikoki ezeztatzea ekarriko du. Ezingo dira zuzendu laguntzaren kopurua aldatzea ekarriko luketen datuak edo dokumentuak (3.2. artikuluan jasotako laguntza gehigarriak, onuradun-mota aldatzea, etab.), ezta onuradunaren eta/edo ibilgailuaren oinarriko datuak ere (sozietate-izena, NAN/IFZ/IFK, onuradunaren izaera juridikoa, matrikula, ibilgailua, kategoria, erregaia edo teknologia, etab.); izan ere, datu horiek funtsezkoak dira RENOVE PLANA 2020ren aurrekontua erabiltzeko, eta ondorioz, ezingo da eskabidean adierazitakoa aldatu. Aplikazioan kargatu beharreko dokumentazioak bat etorri beharko du markatu diren dagozkion laukitxoekin.

f) Aurrekontua agortuz gero, laguntza-eskatzaileek eskabideak aurkezten jarraitu ahal izango dute dagokien aplikazio informatikoan. Eskabide horiek itzarote-zerrenda batean sartuko dira, eta aurkezten diren hurrenkeraren arabera erantzungo zaie —eta gainera, hurrenkera hori zorrotz jarraituko da—, betiere kontuan izanik aurreko eskabideen artean ezeztapenik izan ote den, eta ondorioz, aurrekonturik askatu ote den.

2. Laguntzaren eskaera-agiria baliozkoa izango da baldin eta eskabidean betetako datu guztietako bakoitza egiazkoa bada. Eskatzaileak laguntza-eskabidea borondatez ezeztatu nahi izanez gero, posta elektronikoa bat bidaliko du, eta posta horretan, eskabidearen identifikazioa eta bere datuak (izena eta NAN, AIZ edo IFZ) zehaztuko ditu, eta eskabidea ezeztatzeko eskaera azalduko du.

3. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 22.4. artikulua arabera, laguntza eskuratzeko eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean egiazta dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla. Hala ere, eskatzaileak berriaz uko egin ahalko dio baimen-emate horri. Hala eginez gero, eskabidea egiteko unean, organo eskudunek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko.

Era berean, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko du ez duela inolako betebeharririk Estatuko Administrazio Orokorrarekiko eta haren mendeko edo hari lotutako organismo eta erakunde publikoekiko laguntzak itzultzeko.

Halaber, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko du, baita ere, ez dagoela berreskuratze-agindu baten zain, Europako Batzordeak dirulaguntza bat ilegal eta merkatu erkidearekin bateraezin gisa deklaratu duen aurreitazko erabaki baten ondoren.

4. Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 27.6. eta 35. artikulua eta lege hori partzialki garatzen duen azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretuaren 32. artikulua aplikatuz, eskabideari beste edozer frogagiri osagarri aurkezteko, eskabidearen kopia digitalizatua aurkeztuko da, eta jatorrizkoarekiko fidelitatea bermatzeko, sinadura elektronikoa aurreratua erabiliko da.

5. Instrukzio-organoak, ekainaren 22ko 11/2007 Legean aurreikusitako baldintzei jarraikiz, jatorrizko dokumentazioa prozeduraren edozein fasetan erakusteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari. Dokumentazio hori, gutxienez, lau urtetan gorde beharko da, emate-ebazpenaren egunetik zenbatzen hasita, eta betiere, itzultzea eskatzeko Administrazioak duen eskubideak preskribatzen ez duen bitartean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kasu horretan, onuradunari emandako laguntza itzuli beharko da, 12. artikuluan ezarritako baldintzak oinarri hartuta, baldin eta onuradunak ez baditu jatorrizko agiriak gehienez ere 15 eguneko epean aurkezten, agiriak aurkeztea eskatzen zaion egunetik zenbatzen hasita; inguruabar hori gertatuz gero, ulertuko da emandako laguntzaren hartzaileak ez duela bete justifikatzeko betebeharra.

6. Eskabidea aurkezteak eskatzailearen onespina dakar espedientea izapidetzen den bitartean egiten diren komunikazio eta jakinarazpen guztiak baliabide elektronikoen bidez jasotzeko, ekainaren 22ko 11/2007 Legean eta azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Interesdunei bidalitako jakinarazpenak horretarako sortutako aplikazio informatikoan argitaratuko dira, interesdunek jakinarazpen horiek elektronikoki kontsulta ditzaten, beren burua aldeztatik modu seguruan identifikatu ondoren. Komunikazioak aplikazio informatikoan argitaratzeak jakinarazpena bidaltzea ordeztuko du, eta interesdunekiko ondorio guztiak sortuko ditu.

7. Interesdunak pertsona juridikoak direnean, eta jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egiten diren ondorioetarako, pertsona juridiko horiek organo jarduleei eman beharko diete erakundearen ordezkari izandako aldaketen berri, aldaketa horiek gertatu bezain laster. Erakundearen ordezkaria aldatu dela dioen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera egiten diren jakinarazpenetan aplikatuko da aldaketa. Behar bezala egindakotzat joko dira egun horren aurretik espedientean ageri den ordezkariari zuzendutako jakinarazpenak.

8. Eskabidea egiteko eta eskatutako dokumentazioa kudeatzeko, interesdunak ordezkari bat izendatu ahal du, eta ordezkari horrek interesdunaren baimena izan beharko du ondorio horietarako.

#### 5. artikulua. *Aurkeztu beharreko dokumentuak.*

1. Laguntza-eskabideak dokumentazio digitalizatu honekin osatuko dira. Eransten diren fitxategi elektronikoak PDF formatuan (Portable Document Format) izan beharko dira:

a) Eskatzaile edo interesdun berari eman ahal zaizkion laguntza edo laguntzak 3.000 euro baino gehiagokoak badira, eskatzaile edo interesdun horrek egiaztatu beharko du zerga-betebeharrak egunean dituela, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak ondorio horietarako emandako ziurtagiriaren bidez, eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak ere egunean dituela; eta hori hala egin beharko du Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Ziurtagiri hori errege lege-dekretua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu ondoren egina izan beharko da.

b) Eskuratutako ibilgailuaren Fitxa Teknikoaren fotokopia (IAT txartela).

c) Eskuratutako ibilgailuaren Zirkulazio-baimenaren fotokopia, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emana.

d) Ibilgailuaren salmenta-fakturaren fotokopia; salmenta-eguna 2020ko ekainaren 15ekoa edo geroagokoa izan behar da. Ez dira onartuko autofakturak.



Fakturan jasota geratu beharko da kontzesionarioak, ibilgailuaren salmenta egitean, eranskin honetako 3. artikulua hiru garren apartatuan aipatzen den deskontua ezarri duela eskuratze-prezioaren gainean.

Kontzesionarioak sinatu eta zigilatu beharko du faktura, eta bertan jaso beharko dira eskuratutako ibilgailuaren matrikula edo txasis-zenbakia, marka, modeloa eta bertsioa. Era berean, datu hauek ere agertu beharko dira: fabrikatik irteerako prezioa, beste kostu batzuk, beste balizko deskontu batzuk, zerga-oinarria, ezarri beharreko BEZ edo IGIC, zergen ondorengo prezioa, eta onuradun eskuratzailerak ordaindu beharrekoaren guztizkoa edo ordaindu beharreko fakturaren guztizkoa.

Nolanahi ere, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko da salmenta-fakturan. Erregelamendu hori azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren —fakturazio-betebeharrak arautzeko Erregelamendua onartzen duenaren— 1. artikuluan onartzen da.

e) Ibilgailuaren salerosketa-faktura ordaindu izanaren frogagiriak. Dirulaguntzaren xede den ibilgailua identifikatzen laguntzen duten ordainketa-frogagiri guztiak onartuko dira. Ordainketa-frogagiri baliozkotzat hartuko dira honako hauek identifikatzen laguntzen dutenak:

- i. Onuraduna: argi geratu behar da laguntzaren azken hartzailea dela ordaintzaile bakarra.
- ii. Ordaindutako kopuruak jasotzen dituen hirugarrena (salmenta-puntua edo kontzesionarioa).
- iii. Ordainketaren data (balio-data) edo laguntzaren azken hartzailearen funtsak egiaz irten diren data.
- iv. Dirulaguntzaren xede den ibilgailua.
- v. Enpresa errentatzailea, renting kasuetan.

Urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, 2.500 euroko edo gehiagoko zenbatekoa duten eragiketak ezingo dira diruz ordaindu, baldin eta eragiketa horietako esku-hartzaileen arteko batek enpresaburu edo profesional gisa jarduten badu; urriaren 29ko 7/2012 Legeak iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzen du. Muga hori kalkulatzeko, ondasunen entrega zenbat eragiketa edo ordainketatan zatikatu den, horien guztien zenbatekoen batuketa egingo da..

f) Txatarrera eramandako ibilgailuari dagokionez:

i. «Ibilgailuaren behin betiko baja egiaztatzeko ziurtagiria»ren fotokopia, dagokion Ibilgailuen Tratamendurako Zentro Baimenduak (TZB) emana Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren izenean; edo, halakorik ezean, dagokion probintziako trafiko-burutzak ematen duen eta behin betiko baja egiaztatuko duen Ibilgailuen Erregistro Orokorreko txostena.

ii. Txatarrera eramandako ibilgailuaren fitxa teknikoaren (IAT txartelaren) fotokopia, aurrealdetik eta atzealdetik, non jasoko diren Ibilgailuen azken Azterketa Teknikoaren data eta azterketa horren iraungitze-data; hortaz, Azterketa Teknikoa indarrean izan beharko da programa hau indarrean jartzen den egunean. Era berean, ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia ere aurkeztu beharko da, non jasoko diren lehenengo matrikulazio-data, Espainiako matrikulazio-data eta jaulkipen-data. Dokumentu horietakoren bat aurkeztu ezean, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak ibilgailuaren historiaren gainean emandako txostena aurkeztuko da.

iii. Txatarrera eraman den ibilgailuaren trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordainagiriaren fotokopia; zerga hori behar bezala ordainduta izan beharko da, gutxienez, 2019ko ekitalditik aurrera.

g) Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusian eskatzailearen bankukontua aintzatetsi izanaren frogagiria, laguntza jaso ahal izateko.

h) Profesional autonomoen kasuan, Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan alta eman izanaren ziurtagiria, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak emana.

i) Mugikortasun urria egiaztatzen duten pertsona fisikoen kasuan, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuko (IMSERSO) edo autonomia-erkidegoetako balorazio-organo eskudunek emandako ziurtagiria. Eskatzailea pertsona fisikoa bada eta hilean 1.500 euro baino diru-sarrera txikiagoak dituen etxe batekoa bada, egoera horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena eman beharko du laguntzaren eskabidearen galdetegian.

j) Enpresak direnean:

i. Merkataritza Erregistroko ziurtagiria, edo halakorik ezean, notario-ahalordea. Edozein kasutan ere, laguntza-eskabidearen sinatzailea enpresaren legezko ordezkari gisa agertu beharko da.

ii. Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldako inskripzio-ziurtagiriaren fotokopia.

k) Renting edo leasing operatiboko eragiketen kasuan, aurreko dokumentuez gain, renting edo leasing operatiboko kontratuaren fotokopia erantsiko da; kontratu horren iraupena, gutxienez, bi urtekoa izan beharko da, eta kontratuaren errentaria laguntzaren eskatzailea edo laguntzaren azken hartzaile potentziala izan beharko da. Kontratu hori 2020ko ekainaren 15ean edo geroago sinatu beharko da, eta kontratu horretan berariaz jaso beharko da errentaria izango dela RENOVE PLANA 2020ren laguntzaren onuraduna. Horrez gain, kontratuan jaso beharko da emandako laguntza osoa aplikatuko zaiola errentariak ordaindu beharreko errentamenduaren kuoten edo errentaren gaineko murriztapenari, eta zehaztu beharko da zein den kuota horien zenbatekoa laguntza aplikatu aurretik, eta zein den kuota horien zenbatekoa laguntza aplikatu ondoren. Gainera, berariaz jasoko da renting-enpresak laguntzaren zenbateko osoa erabili ahaliko duela ordaintzeke geratzen diren errentariaren kuotak ordaintzeko, renting-enpresak laguntzaren zenbatekoa jasotzen duen egunetik aurrerako ondorioekin. Horrez gain, ordaintzeke geratzen diren kuoten batura laguntzaren zenbatekoa baino gutxiago izango balitz, renting-kontratuak jaso beharko du, baita ere, zer forma eta epe erabiliko diren azken hartzaileari laguntzaren soberakina ordaintzeko, errentamendu-kontratu amaitzean.

l) Ibilgailuaren eskabidearen frogagiria, baita kontzesionarioari, hala badagokio, entregatutako seinale ekonomikoaren ordainketa-frogagiria ere. Bi agiri horiek laguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira, eta hori izango da eskatzaile eta ibilgailu horri aurrekontua erreserbatu ahal izateko baldintza.

m) Onuradunaren banku-kontuaren aintzatespen-frogagiria —Altzor Publikoak emana— ibilgailua eskuratzeko behar diren frogagiriekin batera aurkeztu beharko da.

n) Interesdunak hala erabakitzen duenean, hirugarren bati ematen dion baimena haren ordezkari gisa jarduteko gaitasuna izan dezan, bai eskabidea bere izenean aurkezteko, bai eskatutako dokumentazioa kudeatzeko eta bai jakinarazpenak jasotzeko. Baimen hori bi alderdiek sinatu beharko dute.

2. Ez dira aurkeztu beharko a) eta h) apartatuetan adierazitako agiriak, betiere interesdunak laguntza-eskabidean berariazko baimena ematen badu bere identitate pertsonaleko datuak Nortasun Datuak Egiaztatzeko Sistemaren bidez kontsulta daitezzen. Sistema hori abenduaren 26ko PRE/3949/2006 Aginduan xedatu zen, non ezartzen diren Egiaztatzeko Sistemaren konfigurazioa, ezaugarriak, baldintzak eta sarbide-prozedurak, apirilaren 28ko 522/2006 Errege Dekretuak agindutakoari jarraikiz —errege-dekretu horrek Estatuko Administrazio Orokorreko eta hari lotutako edo haren mendeko erakunde publikoetako administrazio-prozeduretan nortasun-agiriaren fotokopiak emateko beharra kentzen du—.

3. Aplikazioan kargatu beharreko dokumentu guztiek bat etorri beharko dute laguntza-eskabidean adierazitakoarekin, edo, bestela, jatorrizko eskabidea ezeztatu eta eskabide berria egin beharko da. Dokumentu zuriak edo eskatzen direnez bestelako agiriak aurkeztea eskabideari uko egiteko arrazoia izango da.

4. Aurreko apartatuetan aipatutako frogagiriak aurkezteak ez du eragotziko beste kontrol batzuk aplikatzea, egiaztatzeko benetan existitzen dela laguntzaren xede den eskurapena, baita eskurapen horren baldintza zehatzak zein diren ere.